Iñigo Aranbarri

Emon biar yako

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1994 iñigo Aranbarri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1994ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

–1–

– Hotzak?

– Hala beharko du.

– Galdera bat baino ez zuan. Zer moduz hagoen.

– Hala zen nirea ere.

– Ez hadi berriro hasi.

Lanbrotan, egun hasi gabeak fluoreszenteen islak baino ez dizkio itzultzen gelako leihotik begiratzen duen aldiko Julen Azkueri. Lau hodi zuri gauaren ilunean esekiak pinudian galdutako begien gainetik. Behelaino itsua zetorkien mendi aldetik, auto baten argiak errepidean behera, argi luzeak zituela tarteka, bidegurutzerantz.

– Lasai hitz egin dezakek. Aditu al duk, Julen, horiek gustura uzteko lain. Ez kezkatu. Ez niregatik behintzat.

– Joan zaitez txoritara.

– Horrela ez –gozakaiztu egin zitzaion–. Literatura maitatzea ez duk hil ala bizikoa.

Berotze aldera bezala, eskuak galtza gainetan nola igurtzi zituen erreparatu zuen. Hotz zen

kanpoan, bazekien. Beti da negu lainoa den artean. Horregatik espero zuen; etetera zihoan isiltasuna, horrela ematen zioten gorrotorik gabe behatzen zioten begi pisu haiek.

– Aldatua hago.

– Zer jakingo ote duzu zuk.

– Liburuek aldatu haute.

Leiho zirrikituan jarri eskua eta kristalean bildu den lurruna atzematera egin.

– Liburuek ez dute inor libre egiten –harria bezalaxe Azkuek.

– Ikusten, hasi haiz berriro. Ahaztu ere egin zaik behar bezala hitz egiten.

Laino tarratek agerian utzi zituzten pinu gandorrak. Laster eraitsiko zituzten. Ondo ordainduagatik ere, mendi hondo gorriak askozaz itsusiago egingo zuela pentsatu zuen.

– Abertzale, abertzale... A zer aberria zuena.

– Zuk esan behar. Liburuek noiztik dute aberririk.

Autoak ezkerreko bidea hartu zuen. Atzean gelditzen zitzaizkion etxeetako lehen argiak, zurailak eta isilak, ortzimugari itsatsiak. Zabaldu egiten zen orain kamioa, stop bat. Elkarren gai-

nean jarritako bi seinale argitu zituen, balaz egindako zulo biribilekin biak. Argi haiei begira geratuko zen, ez zuen gibelera egingo.

– Aldatua hago.

Kuartel aurrekoetara iristean makaldu zen. Ubel kolorekoa zen eta hiru lagun zihoazela esango luke. Keinu egin zuten argiekin. Eskua altxatuz agurtu zituen guardiakoak leihopean.

– Benetan, ez haut ulertzen.

–2–

Oinetakoak erantzi zituen. Bakardade ustea ukabilaren adinako harria zuen urdail zuloan. Sukaldeko aulkietakoren batean eserita egin ohi zuen legez, eskuineko behatzekin atera zuen ezkerrekoa, orpoan behera indar eginez. Beti gorde izan du gogoan oinetakoena. Zergatik ez dio egundo inori galdetu? Ilunabarrak denbora beharko zuen oro menperatzeko, ez askorik, baina tartea hala ere, etxegainak hartzen zituen hodei xeratsuari ertzak hain garbi ikusteko modua zuen-eta oraindino. Astiro zihoan. Baliteke oinak betirako han geratuko direla adierazi nahi izatea. Galdera-ikur bi zapata abandonatuak. Berarentzat hala zen, eta aski. Oinutsik hiltzea ausart hiltzea da, babesik gabe, oin zuriak ur hormatuan sartuta bezain garbi. Gogoa hartuta, ezin egongo da galdera egiteke. Zergatik kentzen dituzte oinetakoak? Behi sabel handitua oso goitik irristatzen zen eta haizea min zetorren haren petik. Azkuek begiak bildu zituen. Ez zitekeen hutsik. Izotza egingo zuen.

Honela zen; bada zerbait agortua dena, ardaitua, mundua pikutara doa eta zeu berarekin. Aitormen poseaz ohartuta, errazean esana iruditu die bere baitan emandako berbei. Ondorio horrek beste galdera bat behar luke nahitaez orpotik, eskubide du. Hilik aurkitzen duenak izango duen bezalaxe, bestelakoa baina segur asko, umiliagarriagoa hagitzez. Ulertuko ote du behintzat zapatena, galdera ikur haiek sabai gabeko balkoian, hila bakarrik utzi gabe, leiak gogortutako txolarre lotaratuak balira bezala, borondatezko heriotzaren kodea. Gerta daiteke norbaitek salaketa usainik ikustea agian hustasun haietan eta inor ohartu orduko desagerraraztea. Bi ikur izoztu poltsa batean atereak etxetik, burdinak bezain ezkutuan, min handiagoa egitea erdietsita horregatik. Eta deiadar egiteko arnasarik ez izana deitoratuko du: *begira horri, begira horri!* Hilak salatua ero da betirako, berak badaki. Baina baliteke bestela izatea. Kartoia bezala gogortutako zapatak eta bihotzekoak emanda hildako gorpu bat haien ondoan, gordeka ibili beharrik gabe. Okerrena zukeen. Ordea ezinezkoa zen, ikusi beharra zeukaten; ez zuten azken gu-

rariz beteriko orririk aurkituko, maitasun txantaiarik, *ez nazazue gorrotatu,* baina nahita zen joana, izoztua, ez bihotzak eraitsia; nazkatuta, esan du, bada zerbait ahiturik dena, aldamioa gainbehera eta zu berarekin. Eta hor zeuden formak, gauzak burutzeko estiloak. Grazia egin zion bere burua hitzez engainatzen harrapatzeak. Azken batean, ez zuen bere burua hilko, itxaron baino ez zuen egingo, nola Galiziako trenari Norteko estazioan, bakarrik. Bazen alderik. Abandonoa, uztea bera izango zukeen ikurrik handiena, ederragoa zapatak berak baino.

Han, zumitzezko besaulkian heriotzaren zain, harturiko erabakiak jokotik zuena xehatzen ahaleginduko da Julen Azkue. Barru-barrutik eztul egin zuen. Biriketatik gorako erreak inoiz baino biziago zegoela ohartarazi zion. Oinutsik egotea, lehenago edo beranduago ulertuko zen seinaleaz gain, asmoa burutzeko berme izango zuen. Baina bazitekeen loak hartu eta itzartzea, esku ezagun batek astindua: *zer duzu?* Ez ote, bazuen fedea izotzaren indarrean, oinazearen heldua baino gozoagoa, *ni banoa* eztia.

Zalantza horrekin utziko ditut pentsatuta, oin azpiak hozten hasita eta begiak zeru gainean bakarrik geratu den behiaren sabelalde orain hustuagoan, bata eskozes iluna lotu du. Hartu berri duen anis beroa hegoaren indarrez igo zaio ezpain mamietaraino. Eta bere burua ez badu hil zer egiten zuen bada balkoian eta galtzerdiak txukun-txukun jasoak, batan bildua baina zapatak ondoan eta oinutsik? Alferrik astinduko dute, zafladan jota iratzarri nahiko. Bekain altxatuek erakutsiko dituzten begi jausiak mintzatuko dira beraren ordez. Irribarre egin zuen: ez zuten egun argirik gehiago ikusiko. Hozkailuaren motorrak itotzera bezalako hotsa atera zuenean zabaldu zituen, pizturik zegoen sukaldeko argirantz egiteko. Mahairik hutsena eta bezperatik erabili gabe zuen txapagaina. Lau aulkiak mahaipean. Ezabatu gabeko egun asko erakusten zituen horma egutegiak sukaldeko ate zarratuan. Puska ederra urteari geratzen zitzaiona. Eta zer. Adorea pattaltzen hasia, alkoholaren beroak sudur mintzak hartzen zizkion, lazten mihia. Zer egiten duen hemen ez bada bere burua hotzez hiltzeko?, galdera berrituak ordura arte ez bezalako

indarra hartuko zuen. Ordu batzuk baino ez burura datozkion liluramendu uneak betetzeko. Berriro bildu ditu begiak eta azken mugimenduak errepasatu, ondo gogoan du, apalera itzuli du botila. Bere baitarako ekarri du gogora, kopa kanilapean garbitzen eta lehortzen ari da. Anisaren usaina gero eta galduago urak koparen ahoa bete ahala.

Ez zekien hilko zen. Itzartzekotan non egongo zen jakiteak galarazten zion begiak itxian mantentzea. Eta hala ere, absurdotik, ezerez hutsaletik gutxi zuen erabakiak. Botila, kopa erabilia, suizida orok idatzi beharreko eta berak ere idatzi dituen gutun zirriborroak dira errautsetan ezkutatu, arraskan erre dituenak. Baina galderak ez dira ezkutatzeko, sufrimendua honela lehertzen da gordean izanez gero; ez da arrazoirik mina ezkutatzeko harekin bakarrik bizi zarenean. Esana zuen, eta norbait honetaz hala oroitzea espero du, borroka denboretan ere zilegi zeritzola joateari, gorputza inorentzat irain izan gabe; ez muinak postaz lehertuak, ez lotsara ekarria soka baten muturretik, oinak airea zapaltzen; eme-eme joaten utzia baizik, joaten, utzia,

hormaren laztanaren zain, *ni naiz* esanez, konparazio batera.

Erlojuari eman dio begia. Hogei minutu besterik ez. Luzea egingo da gaua. Hodeia, orain doi-doi baizik suma ez dezakeena eta itxuragabetua, erreferentzia bezala balio ez duela jarri zaio. Ilun dago. Esku gogortuetarako bidea egin dio gogoak eta hatz bakoitzerainokoa imajinatu du. Honetan zela, ezerk ez zuen bere lekua betetzen kateatu berri zituen irudietan. Lagun izan ditzakeenen gogoak errukian daude, ez ulertu izanean. Eta ez daki begi biak baino nahiago duen haiek bederen ondo uler dezaten zapatak eranztearena ala hobe den hori ere uztea. Haien nahitako itsumenaren damua erabili zuen gogoan apur batean auto azpietan elkarren bila zebiltzan katuen marruek lotu zuten arte. Azken batean, zapatena ez zen ulertzeko gutun erraza, eta gaua arin zekion eskatu zuen bere baitarako.

– Autoa lagatzerik bai?

Orduko hartan zuriegia iritzi zion irribarreaz eskatu ziola gogoratu du. Argi-argi datozkion Inesekikoak errepasatzen emango du. Ile jasoa lepoa erakusten. Belaunburuak agerian uzten

zizkion gona eta pulober granatea gehitu dizkio oroimenari. Argazki batean bezala geratuta ikusi du Ines, lehen planoan orain, hatzak frisoak paperarekin bat egiten duen hegi estuan bera, ausaz argalago biak. Ezpainak goraka alboratzen harrapatu du bere burua. Beste *galdera batez erantzun ziola du gogoan, galdera batez erantzuten zaio ondoen beste bati Julen,* eta luze iritzita edo, betirako eskailburuan egotea pentsatzen ote zuen edo antzekoren bat zelakoan dago, batapetik agertzen zaion erlojuari begiratu eta sei minutu baino ez direla pasatu egiaztatu duenean. Oinak ez dira bi sastada gorri baino. Orain ikusi ditu. Atera, etxeko berora begira erori dira zapatak.

Ezin, iraganak hartzen dio gaina orainari eta Inesek laranja bat darabil esku batetik bestera. Mahai gainean utzi du biribilka dadin. Trakets egiten du bere ardatzean. Besondo melarrak mahai ertzean dituela, zoru gainera jaustear zegoela jasoko zuen. Ezkerreko eskua zuen. Eraztunagatik dio. Azken unera arte eduki du luzatzeke besoa, kasik gabe, mahaitik beherako amilbidea hasia duenean eusten ikusiko zuen pasillo

barrenetik giltza uztaia hatzean sartuta zetorrela.

– Eta ni berarekin. Erraza da oso: bada norberaren baitan agortzen doakigun zerarik, eta orduan dakizu muga-mugan zaudela, ondoren etorriko diren aldaketek ez zaituztela heldu zaren ondorioetatik aldenduko. Bai, mugan. Eta berriro hasi izanak ez zaitu bestelako egingo. Izan zaitezke estimatua, egon liteke zure barnean besteenganakorik. Hitz ederrik. Baliteke. Baina ez zara zeure jokoaren morroi baino. Eta hala ere, zure ekintzek ederrera egingo dute. Horra hor. Eta Ines, gauzak ez nahastu, hainbeste badakizu: ez naiz iheslari ostia bat.

Ahurretako marrei beha egon zen luzaroan: izerditan zituen. Denboralea iraun zuen isiltasunak, gizonak zabalik utzia zuen logelako irratiko zurrumurruaren jabetzeak baino hautsi ez zuena. Beste hotsik ez. Inesek ez zuen aurpegira begiratzeko korajerik izan; ahazturik zuen sentsazio bortitza zen begiak mahai gainean zeuden objektuetan gelditzera behartzen zuena. Pixka bat lehentxeago esku artean balakatu zuen laranjak hauskorragoa zirudien begiak azalaren

distira moteletik ez kenduz gero, mailatuak zeudela gomutatu da.

Gogoetek abiada mantsoan egiten zuten atzera-aurrerakoa. Aurrena eta azkena izango zuen norbaiti hainbeste aitortzen zionik, bere buruaz beste egin zezakeenik ideia hutsetatik dimentsio errealago batera hain gorririk agertzen zitzaionik. Inesek ez zuela hala ere aintzakotzat hartu dago sinetsita. Esateko erak saldu zituen hitzak. Betiko gaitza zuen.

Norbaitek txistu egin zuen urrunean.

Sentitu egiten zituen oraindik oin hilak. Orratzenak bezalako sastadak ziren batez ere oin gainean sentitzen zituenak. Iraganaren gainera bere burmuinak luzatzen zituen begiradek, laburragatik ere, ez zuten bestelakoetan izandako indarrik. Inoiz pentsatu izan zuen heriotzaren ataritik itzulitako jendeari entzuna egia zela. Bestela zen orain ordea. Bizitza ez zen segundo batean laburtzen. Irudiak ez ziren zorabioa emateko moduko abiaduraz pasatzen. Sekuentziak ziren, aukeratuak, astiro joaten eta etortzen zirenak.

Bestelakoa zen orain, luxuzko suizida bat. Luzaroan, irautearekin aski zela, horrela uste izan zuen, eta hala deritzo orain ere, baina berak ezin du. Eta erabakiak gutxi du nekamen fisikotik. Beldurtu egin da ideien mailakoa baino ez daitekeela pentsatzean. Sekuentzietan atzerantz egiten saiatu zen. Mahai gaineko laranjak etorri zitzaizkion lehenengo. Ines haiei begira. Zergatik eteten dira gogoetak? Zauri zornatuak balira bezala laztantzen zizkion mailatuak.

Artean Antton bizi zela bakarrik daki, eraztuna bakarra zen haren hatz luzean. Berandu iluntzen zuen. Orain bera dagoen parean egon ziren biak eguzkiaren beherakoa ikusten, lagun zaharrek bezala hitz egiten zuten. Gizonak SOS moduko berbak botatzen zizkiola iruditu zitzaion emakumeari, harrotasunez beteak baina. Bazitekeen maitasun eskeak izatea; baina hitz egiten zuen tonuak bermatzen zuen Julenen betiko barrua. Gorrituta zeuden mendi beheak. Belzten hasiak iradiak goia irabazi ahala.

Julen Azkuek ez zituen begiak ireki. Zeudenzeudenean ikus zezakeen bere begi bilduek gordetzen zutena. Iberdueroren transformadorea

metalezko sare estuaren bestaldean, gauaren beltzean sartzen ziren burdinazko habeez inguratua. Bertan amaitzeke egiten zuen bideak hegaletik aurrera, marearen gora eta beherak igartzen ez zituen errioa haren atzean: inoiz txalupa azpi zapalak lotu izan ohi ziren paldoak, uretaraino jaisten ziren eskailerak. Eta sastrakak eta etxegintza zaborrak jana duen orubea, porlanezko bloke zulatuak malda aldera.

Harantz behatzean oraindik urrun sentitzen zuen herioa lasaitasuna ematen zion etxekotasunez betetzen hasi zen. Gaua zen; izotzaren hatsa hartu gogo zuen ibaitik altxatu eta bere gorputz gainean pausatzen. Hondamendia unibertso guztiaren gainean. Ikaratu egin zen.

– Zuk baten bat behar duzu, Julen –esan zion emakumeak erriora begira zegoen gizonari.

Azkuek orain bere heriotzaren talaiatik begi itxiz begiratzen duen bezalaxe begiratu zion orduan ere ibaiaren eman geldiari. Gorputzak gorde ezin zezakeen zera hark bultza egiten zuen anaiaren emaztearengana.

– Zu igual.

Inesek lehentxeago mahaian zegoela egin bezala saihestu zuen orain ere behakoa. Idatzi gabeko lege zahar bat zen; entzuten zuenak begiratu behar zion ibaiari. Beherantz makurtu ziren emakumearen ezpain estuak, ausaz etsipenez.

Azkenaldian gero eta sarriago jarri izan zion amarrua bere buruari. Etorkizunak batu egiten zituela. Eta hala ere, broma tonuan bota berri diona izan du estreinako amua. Ordura arteko sentsazioak arrazoitzen ahalegindu zen, emakumeak bakandu egin zituen azken asteetan Anttoni buruzko aipamenak. Ausentzia indarra galtzen hasia zen bien arteko solasean. Eta hala eta guztiz ere, biek zekiten, ezer egotekotan ere, ez zitekeela hitzen eta gogoen jolasa baino izan. Hala behar zuen. Arauak ziren. Inesengana egin zuen. Emakumeak begirada mekanikoari eusten zion.

Hotz zuen. Gogoetan ez bezala, orain piztuta zeuden hesirainoko argiak. Ezin izan zuen transformadorearen silueta bereizi, belztasun berean nahasten baitzen guztia. Eta hala ere, errealitateak ez zion ezer ukatzen. Argi ahulen pean, arrotik gora behelainoa balitz bezala ikusi zuen

hilko zuen lurruna. Erlojua eskumuturretik askatu eta aulkitik jaiki gabe bota zezakeen urrunen jaurti zuen.

Zakur zaunkek esnatu zuten. Zenbat denbora pasatu zen? Ordu erdi, ordubete? Erlojuaz oroitu zen, etxe atzeko erkoan galdua. Min egiten zioten oinek. Adausiak datozkio berriro, hurbilagotik oraingoan. Burua makurtu zuen barandako burdina artetik hobeto ikusteko. Jabearen aurretik zihoan zakurra, ibilera dotoreko polizi txakur bat, orubeko blokeetaraino heldu eta ilunpeari jardun zion zaunkan. Arratoiak izango zirela pentsatu zuen Azkuek. Gizonak, hogeita hamar urte inguruko gazteak, argitatik deitu zion, katea eskuan zuela. Zigarroa erretzen ariko balitz bezala irteten zion lurrunak arnasa hartzen zuen aldiro. Tximistaren habailaz etorri zitzaion: izotza ari zuen, ez zegoen dudarik. Zakurra ateratzeko, ez zela artean oso berandu izango ondorioztatu zuen. Gauerdia ere ez.

Burua ia belaunburuetara eramanda jarraitu zuen, kokotsa ezkerreko izter gainean. Gizonak hutsaren kontra astintzen zuen katea. Berriro deitu zion: Troski. Zaunkak eten egin ziren. Arra-

toiak imajinatu zituen, beren begi urduriez zokoren batetik zelatan, bera zegoen bezalaxe. Gizonak pauso batzuk eman zituen ilunpetan ezkutatu zen arte. Handik gutxira agertu zen berriro ere argitara, zakurra ibili behartuan samatik oratuta oraingoan. Jo behar zuen keinuak egiten zizkion katetik libre zuen eskuaz; zakurrak atzeratu egin zituen belarriak. Eskuak hurreratze plantak egiten zituen bitartean eduki zuen burua makurtuta. Azkuek goititu eta atzerantz bota zuen berea, zintzurrezurra ortziaren garbiari eskaini nahian bezala. Birikak ase bete artean hartu zuen arnasa. Erre egiten zuen. Estutik zabalerako irudia egiten zuen argitara. Berriro makurtu zenerako ez zuen ez gazterik ez zakurrik ikusi.

Errio bazterretako basatzarekin alderatu zuen bere bizitzako azken urteez zuen oroimena: bera eta heldugaitzagoa azalean, oreago zenbat eta barnerago egin, lohiaren bihotzerago. Beldurtu, ez ote zen gertatua eta fikzioa desberdintzeko gauza izango. Baina badaki Inesi inoiz galdetu ez dion arren, bazegoela ibaiari begiratze hartan nolabaiteko baietzik, elkarrekiko geroa isiltasun hartan hasi izanaren seinalerik.

– Zer moduz zure loa?

Ez zion galdetzeagatik galdetu. Hitza eman nahi izate bera zuen bere ustearen bermerik onena. Sukaldean sartu eta giltzak laranjen ondoan utzita etxetik joana izango zen mindurik bazen.

– Ondo esan beharko.

Berebiziko freskotasunez gogoratu du. Ukondoaz zurkaiztu zen balkoian. Muino gibelean ezkutatzear zegoen eguzki ahula soinean behera irristatzen zitzaion. Kolorez aldatzen zizkion begiak.

– Neka-neka egin arte irakurtzea txarra ez –esan zion emakumeak. Hortz ezin zuriagoak erakusteko lehertu zen mizpira heldua.

Irribarre egin zioten elkarri, zeinu gazteegia zeukaten adinerako. Inesek autoko giltzak gerri parean dantzatu eta poltsan sartu zituen. Are irribarre gehiegizkoz erantzun izan zion eskerrei. Julenek eman zizkion berak eman beharrean. Errukarri agertu ote nahi zuen etorri zitzaion emakumeari. Anaiaren ondoan etzanda ikusi zuen gizonak karrajuan barrena zihoala lasatzen hasitako ipurmasail guriak erreparatu zituenean,

ausentzia gorpuztu harekin bizkarrez bizkar, gau guztiak bata bestearen antzeko.

Urdail-zuloko harriak tiratua egin orduko hasi zaizkio, berak geratzeko ahaleginik egin gabe, betetzen begiak.

– Bihar goizean goiz eramango dizkizut tailerrera.

Giltzengatik ari zen. Berak beharrean Jabierrek eman zizkion hurrengo goizean buzoa janzten ari zelarik. Atzera egin zuen bezala ulertu nahi izan zuen Julen Azkuek. Horrela izan zen elkarrekikoa hortik aurrerakoa, elkar topatze eta urruntze etengabea.

– Amak eman dizkit.

Mutilak gorroto zion, ziur zegoen.

Minutuak dira azkenengoz dardarka egon denetik. Ezinezkoa da. Ezingo du loak hartu azkenera arte. Izan ere, ohorea erdokatu eta autopsian lehenago edo geroago agertuko liratekeen sedanteak baztertuta, beste bidekoren bat izan behar. *Neka-neka egin arte irakurri,* gogotik aldenduta ere, behin eta berriz datorkio emakumea. Ez litzateke itxura izango. Liburu bat bere buruaz beste egin duen baten aldamenenean.

Hildakoaren esku urdinetik ozta-ozta alde egindako errebolber bat bezala ikusi du liburua zoru gainean. Odol zipriztinik gabe, auskalo zein orrialdetan zabaldua. Bere baitarako egin du barre. Gizonezko esku batzuk ikusten ditu, ezagutzen ez dituenak eta azkazal garbiko, orrialde horretan Azkuek hartutako erabakiren bat ote dagoen aurkitu nahian. Inoiz inprimatutako libururik ederrena zitekeen. Erraietaraino jaitsiz, barruak berotu dizkio barreak zotinak negarrerako egin dion arte.

Inesen aurrean inoiz egin gabe zegoen bezala egin zuen. Eskuak aulkiko besaburuei oratuta, malkoak ez ikaratzen ahalegindu zen. Begiak itxi zituen, haien gozoa sentitu zuen gauaren garbiarenarekin batera. Itotzera balihoa bezala zabaldu eta estutu zituen birikak. Idoiztatzen hasita zeuzkan. Ezpainetaraino heltzerako, lehortuak zizkion haizeak. Hotza larritzen ari zen. Betazalek ordura arte ez bezala erretzen zioten.

Hurrena zabaldu zituenerako ziur zegoen: lo egin zuen. Haizea epelera aldatua zela iruditu zitzaion. Baina nahikoa izango zuen beste loaldi bakarra gehiago ez esnatzeko eta gau osoan bu-

ruan ibili dituen fantasma guztiak bere inguruan gorpuzteko eguna zabaldu eta batera. Hartxintxar hotsa entzun orduko, urrutien zeuden bide ertzeko posteetara begiratu zuen. Itzal bat izan zen, lehenengo batean argi uztaian eta gero bestearenean abiadan agerian utzi zuena. Lehengo zakurra izan zitekeen. Gazteak behar zuen atzetik, katea eskuan seguruenik. Argipera iritsi baino lehen sumatu zuen zigarroaren gorria ilunpetan. Zakurrak oruberantz egin zuen berriro ere. Ernegatu ahotsez egin zion deiadar. Zaunkaz erantzun zion adreilu artetik, ez berari eginak baina. Jada ez zuen oinik, ez zituen sentitzen. Arratoiak, pentsatu zuen. Berarengana bildu zituen gogoaz: izutuak imajinatu zituen bere oinetan harramazka, zaunketatik ihesi.

Nola hartuko ote zuen Inesek heriotzaren berri? Ez zuen asmatzen, senarra lehenbizi, honen anaia, ordezko guraria gero. Munduaren zama hartuko zuen bakardade nahiak bere *han* hartan. *Julen hil da* esango dio bien lagunen batek telefonoz, edo Jabierrek berak beharbada. *Ez dakigu nola, balkoian topatu dute.* Oinutsik. Eta ez du negarrez ikusten, ez beste ahotsaren

aurrean bederik. Emana zion gaztigua, eta harri bat balitz bezala jausiko zaio gogora. *Mundua badoa eta ni berarekin, Ines.*

Zaunkak ahitzen entzun zuen. Gero eta bakanagoak, isiltasunak hoztu egin zuen haizea. Makurtuta, balkoiko burdina artetik begiratzera behartuta zegoen. Ez zuen zakurra ikusi. Gaztea, katea poltsikotik zintzilik zuela, arnasaren berora bilduta eskuak, bide ertzeko sasiei beha zegoen. Gernu beroaren lurruna lehen hatsarena baino arinago igotzen zen. Zigarroa etorri zitzaion. Bi farola argiren arteko ilunpetan ikusten zuen, ia nabarigaitza bide erdian.

Berriro ohartu zenerako, begira zuen. Begiak Azkue zegoen balkoitik kendu gabe deitu zion Troskiri. Errioko basatzetan gordetzen sumatu duen itzal txikiago baten atzetik agertu da argitara. Lotzen ikusi du. Sukaldeko argi isiotuaz ohartu da Azkue. Horrek deitu die gaztearen begiei, eta orduan konturatu da hau gizonaren presentziaz. Eta ez du gainera alde egingo, erantsi du hortz artean. Nahitaezko betebeharra zuen, bere herioan ez da lekukoentzat tokirik.

– Ondo al zaude? –egin dio oihu gazteak aulkian eserita dagoen itzalari.

Azkueren baitan rafaga batek legez egin dute gogoetek. Esan ez zizkion gauza asko zegoen. Inesen eskua bereen artean. Zure ezpainak gehiago zabalduko balira argiagoa litzateke gaua.

– Ondo al zaude? –errepikatuko du, ozenago oraingoan.

Erantzunaren zain, itzala altxatzen eta etxean sartzen ikusi du gazteak. Lotsak ez du hitz egiten. Zakurraren zaunkak entzun ditu, mutilaren kolpeek etenda imajinatu dituenak. Belarretan geratu den erlojua jaso behar duela jaio zaio. Harriak lakoak ditu min ematen dioten oinak. Ez du zapatarik etxera sartuko. Zakurrak amatatu den argi zuri bat gorde du begietan.

–3–

Oinez joatea erabaki zuen. Zer erremedio bestalde auto zahar harekin, bateko karburadorea ez bazen kontaktuari eman orduko platinoak errearazten zizkion bobina alu hura, bazuen beti konpondu beharrekorik, kezkaren bat beti ere, lehendik nahikorik ez balu bezala. Inprimategiko atea kolpe bakarrez itxi eta karrikan gora jo zuen aurrena. Zikina egin zaio, zabor poltsak zakurren batek uxarka lehertu balitu bezala. Harritu ere egin da, bada latorrizko ontziak baino ez dituen bat. Haiek ikusita?, paketea ahaztu zuela gogoratu zuen. Jiratu, eta egindako bideari ekin zion, bestaldeko espaloitik oraingoan. Muxin zegoen. Aukeran, nahiago zuen euritan ibili beharra hezurrak ere hotzez erretzen zizkion haize min hura baino.

Argirik piztu gabe sartu zen bulegoan. Kanpoko atea zarratuta ere, sarraila eskuarekin ukitu gabe idoro, giltza lehenengoan sartu, erdiko kajoia ireki eta paketea topatzen baietz denbora berean asmatu egingo lioke lepoa edozeini. Ohi-

tura zuen hartua. Orduantxe sentitu zituen, komun ondoko paper hondatuaren ontziaren pean, inoiz baino azantza handiagoa atereaz, makinak itzalita eta langileak falta zirela eta nabarmenago. Zokaloko zura ezpaltzen ariko ziren. Asteburu oso bat hartu beharko zuen, ahal zuen guztia libratu, makina eta apalategi arinenak erdiratu eta zulo guztiak porlanez estaltzeko. Laguntza pixka bat ere gaizki ez. Kristal xehatua nahastuko dio masari, itxi dira zeruko ateak gazteok. Botilak beharko zituen, Igartuari eskatuak. Zuloak bederen. Izua sortzeko moduko zulo lotsagarri haiek. Bila hasita ere, auskalo non dituzten-eta habiak.

Paketea listaritik oratuta, bi bueltaz itxi zuen bulegoko atea. Hainbeste urteren poderioz, gogoko egin zitzaion azkenerako tinten usaina. Kalekora heldu baino lehen gelditu zen azken aldikoz. Begiek ate zirrikitutik sartzen zen argi bertikala saihestu eta isilik lotu zen, oinak behegainean tenk. Lau, bost, sei segundo. Ezer ere ez. Zortzi, bederatzi. Arrapalada batean sumatu zituen, komun ondoko paper multzo zimurtupetik bulego azpiko aterako bidean. Atepean egongo

ziren, mintz hezeak tarterik zabalenaren bila. Lehenbailehen beharko zuen. Datorren larunbatean.

Plaza hutsetik gora heldu zen kale bururaino. Geltokirako bidea hartu zuen. Platanondo sustraiak hasiak ziren lauza jarri berriak harrotzen. Harriak usteltzen zirudien bere oinpean, airea zuten faltan. Bide estuegia zen hura hainbeste kamioirentzako. Ez da askorik aldatu Igartuareneko argazkitik hona, tximista bat bezala pasatu zitzaion irudia. Han zuen Igartuak, pilotari eta ukabilkada seguruko boxeolarien argazki trakets enmarkatu haien artean. Fundiziotik zepa garraioan zeramaten kamioiak falta ziren fotoan, udaberri aldera beharrera bizikletaz zihoazenak bide bazterrean, eragin mantsoan, hainbeste ikasita honezkero jaitsi beharrik gabe eta gurpilek harroturiko hautsari aurpegia ukatuta. Arbolak bai haziagoak, baina ez etxe berririk zeru eta lur zati hartan. Jakin gabe errespetatzen ditu gizonak argazkiak. Zerbait zuzendu nahi izan du, baina ez daki zer. Harantzago egin zituzten sei pisuko etxebizitza berriak, adreilu gorrikoak, trenbideak etendako alorraren bestaldean, pare

bat zentimetro markotik kanpo, eskuin aldera inondik ere. Haientzat izan zen trenbidepean egin zen lehen pasalekua. Orain kamioien joan-etorriekin hain itoa gelditu dena.

Zaharra iritzi zion Igartuareneko fotoari. Ondo ezagutzen zuen. Jaietako programaren batetik, kalitate negargarriko klixe apaisatu batean urteetan horman esekia izan zuena, noizkoa.

Trena heltzen ikusi zuen urrunetik, artean bidea zuela egiteko. Heldu zenerako, irteteko agintzen zion txistuaren hotsak eman zion ongietorria. Larri ibili beharko zukeen benetan hartzekotan.

Hilabete pare bat bai ez zela geltokira hurbildu ere egin. Honela gogorarazi zion Arronak.

– Zer dugu, Julen? –ederra zuen ahotsa, tabakoak urtetan laztua, irratirako modukoa.

– Hementxe.

Beti hitz egin behar izaten zuen haria eskuan zuela:

– Zer edo zertara etorriko hintzen ba.

Zer edo zertara, zerbaiten susmoa beti aurretik duenaren eran jardungo zion.

– Bisitan.

Mahai gainean utzi zuen paketea. Listariak egindako erreari eman zion begia. Nekosoa zitzaion atzamarrak mugitzea, gorritasun meheak salatzen zuen azal mindua. Eskua hersten eta zabaltzen aritzeak mesede egiten zion. Orri koadrikulatu bat hartu zuen Arronak mahai gaineko apaletik. Boligrafo gorriz idatzi zuen lehendabizi. Urdinez ostean haren gainean. Zenbakiak, hiruzpalau. Nahasia zuen mahai gaina, traste txiki elemenia. Ordutegi orriak. Boligrafo errekanbioak. Zirriborroz betetako oharrak.

Puntu eta marrako klabea egiaztatu beharrik gabe, telefono giderrari eragiten ikusi zuen. Galdetu behar dio nola dabilen. *Irten du.* Trena bere geltokitik aurrera zihoala esaten ari zitzaion, laster batean zuela berean. Esan gabe jakingo zuen bestaldekoak noiz ikusiko zuen sartzen azken bihurgunean, esku hezurtsuak, azkenaldian edanak ere seguruen dardaran jarriak, trena geltokirantz bideratzen. Makaltzen sentituko zuen orduan, zain zegoen jendea atzerantz egiten, umeen esku txikiei babesgarri eusten handiagoek, eta orduan eskatuko zuen inork minik ez hartzea barruan zetozenetatik norbait gelditu baino

lehen jaistekotan. Labur mintzatu zen Arrona, alfer hitzik gabe, ohiturak dakarren zakartasunez. Irten du.

Bi hitz zituen Arronaren egunerokotasunak. Berba sotil haietara biltzen zitzaion egun guztia, hogeita lau ordutako arrisku posible oro. Irten du. Honela pasatzen zioten elkarri beldurraren zama. Istripua. Karga desagertzea. Bere burua itzal arin bilakaturik trenbidera bota duenen bat. Gertatu egin izan baitzen.

Ea betikoa duen galdegin dio. Betikoa. Betiko orduan. Arazo txiki bat dagoela, Arronak. Aldatua dagoela erreleboa eta berria dela, makinista ez dagoela jakinaren gainean. Egoteko lasai baina, itxaron dezala apur batean. Bertaratzekoa da, bai, gaur bertan, hamar minutu barru dutela han. *Hamar minutu, bai.*

Aurrez aurre zuen posterrean emakume eder bat eta honi hatza nabarmenegi luzatuta erlojua erakusten dion geltoki-buru bat agertzen dira, trena galdu duelako jazartuta hura. Trenen garaiz ibiltzeari buruzko eslogan bat izango dela esango luke azpian dakarren esaldia, frantsesez hala ulertuta. Eta bestea? Alemanez? Flandese-

raz dela erantzun dio Arronak. Belgikatik ezagutzen ez duen lagun batek ekarria.

– Egongo gaituk, ez diat presarik.

Orduan ohartu da ez dela gelako dekorazio elementu berri bakarra. Norbaitek oparirik beldurgarriena egin dio Arronari. Tren bat zubian behera eroria, jendea igerian bagoietatik irten ezinean, lehorretik pospolo itxura ematen dien gizon eta emakume batzuek adore izateko keinuak egiten dituzten bitartean. Beso bakarrak ageri dira uraren azalean airearen kirtenei heldu nahian. Jendearen ahotan laguntza eskeak jartzea bakarrik falta da. Oraindik oleoz zikinduta izango ditu eskuak koadroa sinatu ez duen hiltzaileak, eta ez dio iritzirik emango.

Mutil garaia zen. Sasoikoa. Ilea beltz, belarri ertzeraino luzatzen zitzaizkion patilak, bizarra ondo eginda, Roblako linean nagusi gogorren batekin egina nonbait makinista praktikak. Harrizkoak ikusi zizkion begiak Julen Azkuek behingoko iruditu zitzaion emetasunez jarri zionean Arronak paketea esku artean.

– Zer da? –begiratu batera agerian ez izenik ez helbiderik ez ikustean zurtu da hau.

– Liburuak –erantzun dio Arronak. Berearen aldean hotza du ahotsa faktorrak, honela deritzo Azkuek. Ondo ari da, bakoitza bere lekuan, sinetsita egiten ez badu ere.

– Euskarazkoak, jakina –Juleni begirik kentzeke gaztea–. Legalak izango dira horregatik?

– Adarrik ez niri –sartu da Arrona makinistaren begietan–. Beraiek azalduko zaizkik jasotzera.

Burubiko motor hungariarra ikusi uste izan du Julenek hurrengo geltokiko nagusiaren begirada nekatuan, zeru atal batekin ekialdean. Bagoi bat gero. Eta beste bat. Ilunago pintatutako bat ostean. Posta. Atzean gelditu da bihurgunea eta malkarreko soroaren ederra, eguzkiak behar lukeen alderantz etzanda dagoen belar beltza. Orain bere garita atzean dagoen arren ikusi ezin duen orratzainak jarria du bide artezean. Eta hor dator, baretua. Atzera egingo du jendeak. Izu begiz baina inoiz gutxitan bezala ikusitako irriz egingo dute atzera umeek. Ez du inork jauzi egin, atea zabalduta zenbait buru ikusten baditu ere jaisteko imintzioz, elkarren gainean, haizearen kontra begira guztiak, itxaro-

ten zeuden bakanen artean aurpegiren bat identifikatu nahian agian. Eta galgek irristaka geldiarazi dute arratsaldeko lehen tren hura, muturrak nasa hasierarekin bat egin duen arte. Atzerantz egin du segundo laurden batean. Zanbuluka ikusi du jendea bagoi barruetan.

– Ondo da. Norako? –galdetu du mutil garaiak.

Ume bat balitz bezala eusten dio paketeari, zer gerta ere, bertan erori eta hausteko beldurrez.

– Bilborako –gero eta petralago Arronak.

– Norako? –ezpain ertza goratuz masail mamiak ia begia itxi dio–. Han euskaldunik ba al dago barren?

– Hi bezalakorik ez behintzat.

Eta trenera igotzen ikusiko ditu Azkuek, eta musualde aratzak leihoaren kontra, ileak laztanka orrazten dituen esku bat, haize mehea bandera gorri bildua –edo berdea izaten da?– altxatu duen eskua gogortzen. Hotzegi dago elurra egiteko.

– Esan diat. Egingo dik –bota dio makinistak agurrik gabe alde egin duen orduko.

Ez zuen, paketearena burutik kenduta, martxa egiteko gogorik azaldu. Honela iritzi zion Arronak, atzea emanda trenbide aldera zeraman atetik so ikusi zuenean. Zabalak zituen bizkarrak, lasa beso motzak gorputzetik gertu, eskuek poltsikoetatik gainezka egin baliote bezala.

– Noiz datorkik hurrengoa? –galdetu dio atzea emateari utzi gabe, begiak argi indarraren harien bidea egiten.

– Berrogeita bi minutu barru, Eibarrera –erlojuari begiratu gabe, ausaz harpa gogoz, Bruselako geltoki-buruaren orpotik.

Trenei irteera emateko baino janzten ez zuen gainalde zapaleko kapela gorria aulki burutik hartu eta mahai gainean ezarri zuen, lehentxeago paketea utzia zuen bazter berean.

– Zer ba?

– Goazen hadi kanpora.

Herdoilak ate ertzak ugertutako bagoiak husten ari ziren biltegikoak. Irten orduko, nagusiena zirudienarekin hitz egiten geratu zen Arrona. Aurrera jarraitzen ikusi zuten. Gaztainondozko otarreak, altzairu plantxak, arratsalde osoa beharko zuten hura guztia barrura sartu, bere lekuan

egokitu eta besteak etortzerako dena gertu izateko. Honela zuritzen ziola entzun zuen bere atzean Azkuek. Harrapatuko zuen nahi bazuen.

Luzegabe sentitu zituen Arronaren oinotsak, hartxintxarretan zart-zart, bereen gainetik. Mendiaren kontra zegoen geltokia, laiotza behar zuen lekuak nahitaez. Ez zion mesederik egingo Arronaren bizkarrari, hain egiten zitzaion zokoa. Eguzkiak ez zuen txarrantxatik mendiranzkorik urtzen.

Lainotuta zegoen arren malkarraren itzalari ihesi jo zuten zabalera. Bidegorriari ekin zioten, hitzik egin gabe elkarri, urrats bakoitza errezelo bilakaturik ezinbestean faktorrarentzat. Txori baten txortxorra. Sasiak astinduz hega zabalez irten zuten hego beltzaxkek. Honek ba dik zer edo zer, hori etorri zitzaion aho itxira Arronari.

– Presoak zer? –galdegin zion tupustean Azkuek bertatik bertara, tunel begiaren parean biak.

Susmo zaharraren usaina hartu zion bide ondoko larrari Arronak. Baziren pertsonen barrura barik inguruetara zabaltzen zirenak. Txarrantxari eman zion begia, hesola jarri berriekin, mutu-

rrak berritan erreta lur hezean sartzerakoan aise ustel ez zitezen.

– Zer preso? –galdera itzultzean erantzun egoki baten bila aritzeko segundo batzuk gehiago zituela jabetu zen Arrona. Ezin baina atzera egin. Gainera datorkio. Oinez segitu zuen, bidetik irtenda asun zapaltzen.

– Hik askatzen lagundu behar hituenak.

Susmo usainak larrean behera egin zuen, iparrak eramana, inguruko hosto eta sasi zotz iharrak bereganatu zituela, denek entzuteko moduan. Hesipetik igaro eta fundizio atariraino heltzen sumatu zuen. Garbi heltzen zitzaien labeen marruma hotsa, mundua behin eta berriro egosten. Baina altzairuak ez du borondaterik, pisua besterik ez. Gau eta egun mantentzen zituzten hutsik gabe piztuta, belarriak dituenak badaki. Han zuen. Beha.

– Begira, Julen –eten egin zitzaion hitza. Harrapatua ikusi zuen bere burua. Bidegorrian behera egingo zuen, korrika egin gabe, zankada handiz. Bazekien, beti egon duk Julen jakinaren gainean. Birao bat lehertu zitzaion hortz artean. Ez zuen beherako imintziorik egin. Txorimaloa

zen orain, ale heldurik gabeko alor baten zaindari, urki egurrezko hanka bakarra zokor artean, bere barruaren preso, tenterako edo etzanerako baino ez.

Sartu gabeko hesolak erreparatu zituen saihetsean, elkarren gainean luzetara metatuak.

– Ez zakiat nola dakian, baina ezetza ematea libre izango duk bada, ez? –ahotsak dar-dar egin ziola dago, ez zuen hura eman zezakeen erantzunik egokiena.

Hots sikua atera zuen labeak, metalezko atzaparra aire urria itotzen.

– Eta orduan ondo aterata ere, zer? –jarraitu zuen Arronak. Irabaz zezakeen aurpegia berak beste hartuz gero–. Garbi egongo lukek nor izan zen trena bere bidetik atera zuena. Horrelako txapuzak galduko ditek hemen onena ere. Gauzak ez dituk horrela egiten.

Hotz egiten zuen. Ozenegi aritu nauk, jaio zaio. Biltegirantz begiratu zuen. Beren lanean ari ziren beheko biak, gizon baten luzerako egurrezko kutxa nasa gainera ekarri ezinean. Astuna zirudien. Hirugarrenaren izena entzun zuen –Esteban–, laguntzera joan zekien.

Lurra bota zion lurrari:

– Gauzak ez dituk horrela egiten.

Su geldoan egosia, berunezkoa zen ortzia bi gizonen gainean, astunagoa bazkalosteko lehen orduak aurrera egin ahala. Egingo ez egingo zebilen azken asteetan. Eta ez zuen berandu. Bazekien maiatzean ere egiten. Elur itxura zekarren. Gauez agian, errazagoa beti ere, hainbestekorik egin ez balu. Asteak zeramatzaten elkarrekin berbarik egin gabe. Bien artean zerbait hozten ari zela goganbehartu zen Arrona. Tartekatuagoa ez ezik guritasun guztia galtzen ari zen elkarrekikoa. Asun zapalduen gainean makurtzen ikusi zuen, beharbada berak zerabiltzan gogoeta berdinekin. Orduan sumatu zuen so zituen begien indarra, aiher-aiherrik mami zuri bila zebiltzan bi bala zuri.

– Ez nauk kontuak eskatzera etorri.

– Ez, baina lasai ederrean bota duk –haria eteteke Arronak.

Dago jarraitu beharra duela laido egiten ez dion bitartean.

– Begira, Julen –ondo esan nahi zuen–; ni euskalduna nauk, eta Euskal Herrian bizi nahi diat.

– Eta?

– Galtzekoak baino ez ditugula.

Lokaztuak zituen oinetakoak, oin bi elkarri begira, babes bila baleude bezala barrenerantz okertuak. Bereei begiratu zien. Hartuak zituen galtza barrenak, bernezurrean gora zipriztinak.

– Galtzekoak baino ez. Ez zagok gaizki pentsatua.

Ezin jakin nola, beti heltzen da; saminez gogoratu zuen, Arronak pentsa uste izan duen eran. Azkenaldian gantzutzen, zainak lohitzen ari zitzaizkiola pentsatu zuen, eta behin gogortzen utziz gero zailagoa izango zutela, biak beti ere, egunerokotasunean urtzea.

– Hurrengoan hasi hadi hortik.

Aurrera egin zuen trenak tarte batean, hustuta ziruditen bagoietako ateak zabalik. Morroiloz hesteko agindu zien Arronak bidezidorretik irtenda. Hatzak ezpainetara eramanda egin zuen txistu. Hiruretan gazteenak, borra eskuan, ateko burdinan joz geldiarazi zuen bagoia, aurrekoekin lehenago egin zuen bezala biltegi atarian. Arrotz egin zitzaion krakatekoaz gelditu zen. Itxitako atea ireki nahian zebilen orain borraduna. Bel-

tzuri, bakarrik moldatu beharko zuela esaten ziotela entzun zuten bi gizonek goitik. Azkena bide zuten.

– Lehen ere etorri zitzaizkian.

– Noiz lehen –galdetzeke esan du, behar baino gehiago ari zitzaiola tiraka iruditu zitzaion Arronari.

– Zenbat tren deskarrilarazi dira hemen?

– Aspaldiko kontuekin hator.

– Hasi ez denak ez dik aspaldirik.

– Ni gabe ere berdin-berdin egin zitean nik egin nezakeena.

– Eta? –hitz gutxirekin zebilen Azkue. Zituen guztiak erakutsi gabe erasotzen ziola irabazteko-ak zituen.

– Harrapatu egin zituztela. Ez daukak trena bere horretatik atera eta hanka egiterik. Beti zagok hariren bat agerian.

– Adurra.

– Ez, begipean zeuzkatean –jarraitu zuen faktorrak, azalpenaren beharrez jabetuta–. Errail txerri haiek azkenean askatu zituztenerako bazekitean nor ziren.

Eraso egin behar ziola iruditu zitzaion. Hartzen nekatuta zegoela esan nahi zion erantzun harekin, bakoitzak bere bizitza duela, horretan baino ez zetzala neurri handiegiak hartzen ari zen berbazko labana-truke hura. Azkue geldirik dago. Ez du giharrik mugitzen. Orain segitu, Julen, begiez erremata ezak hitzez hasi duana.

– Eta, zer irabazi diagu harekin?

Itotzen jartzeraino ikusi zuen bere burua. Faltan da, zabor poltsa bat sartu diote burutik behera, hozkada etsituz zulatu nahi duena. Jarraitu beharra zuen itoko ez bazen.

– Zer uste duk, neuk hartu nian minik handiena –esan zuen azkenean Arronak.

Herra antzerako zerbait gehiago geratu zaio irteteko, isiltasuna oso astundu da. Hain dago bakeosoa txara, heltzen ez den gorroto betearen zain dagoela dirudi.

– Arrona.

– Zer –ez zuen aurpegiko gihar bakarra mugitu.

– Horretarainoko mina izanda, ez al zitzaian kaskarretik pasa heure burua trenbidera botatzea?

Agur zeinurik gabe egin zuen Azkuek bidegorrian beherakoa, oinatz txikiz, lapatx labainean ibiltzen ohituaren jitez, saltoka egin zituen azken metroak salbu. Ordekara heldu zenean baino ez zuen atzerantz begiratu. Utzi zuen lekuan ikusi zuen, basabehera atarian, oinetako lokaztua pinu enbor etzanaren gainean. Latasa.

Lainotzen igarriko zuen ahotsa.

– Lasaiago egingo huke lo!

Ez zuen biltegiko inor ikusi, barruan izango ziren. Eta Arronak eskerrak emango zituen bere baitan. Zigarroa piztu zuenerako, ezer esanda ere elkarri ez entzuteko moduan ikusi zuen gorputz motza, urrats berdinez saihesten trenbide zatiak berritu zirenetik bertan utzita zeuden errailak. Behin hesira helduta, geltokitik itzuli ordez nahiago izan du zelaitik egitea. Kamioi bat atzerantz sartzen ari zen fundizioan, eskuak astinduz bidea erakusten ari zitzaion baten esanetara. Inoiz baino ugerrago ematen zion babesa Azkueri eta berari aurre egiten pabilioi handiak. Begi haiek. Harrika hautsitako kristalak errepide aldera.

–4–

Azkenaldian gizenduegia deritzon Zubeldia itzuli dio kristal zabalak. Aterantz egin du labain gorputz isla ilunak, eta eskua letoizko maratilan duela sakatu dio ate itxiari. Ilunpeak bildu dizkio begiak eta arakatzen ditu orain, bi linterna gauaren erdian hondoan dagoen barran zein topatuko. Duda egin du inor nahi ote duen. Ordea erabakia dago, nahi ez duela ere. Igartua bera dago bakarrik.

Herriz herriko ibileretan bada hutsik egin gabe bete beharrekorik, horrela sinetsarazi dio bere buruari eta honela gustatzen zaio azaltzea inoren aurrean, eta Igartuareneko kafea da horietako bat. Oinetakoen sartu-irtenak eta noiz edo noizko lixiba harramazkek zuritutako egur zurailak erakusten dio barrarakoa. Puntapaxen buruetan erreparatu du, beltz eta nabarmenak ohol higatuetan. Beroa du faltan zuloak, hutsik ditu mahai guztiak. Ez da inor ausartegi bota eta ondorengo damuz enbidoari eutsi ezinean. Trabesen hotsa du ments, sartu orduko entzun be-

harrekoa dena beti bezala dabilela, ohituren gozoa, egiaztatzeko.

– Bazkaldu egiten du hemen jendeak gero eta beranduago –entzun orduko bertaratzen hasi zenetik horren esaldi luzerik ez diola entzun jabetu da Zubeldia. Aldi izango du iharrak.

Gabardina luzea erantzita eseri da leiho aldamenera. Nabarmen geratzen haiz bada traje horrekin, pentsatzen entzun dio bere baitan sartu berriak Igartua txipiari.

– Zer dugu?

– Betikoa. Hutsa.

Ez du han ezerk lotzen, sartu izana aukera bat da soilik, beste edozein izan zitekeen, ezein plangintza zehatzetik kanpokoa. Ez du ordea nori azaldu. Ez du zerenik behar. Atsegin du tokia. Jendea lanera joana zelarik sartu ohi zen ordura arte. Eta bazen beti begi zelataririk partida haietatik mintzatzen zekienik. Alde egingo zuen eta orduan zioten gaztigua emango, bazekien. *Hemen egon duk.* Begiak handituko zituen hasieran eta apalduko gero besteak, eta ukondoetatik eskuetarainoko pisua barra gainean erortzen utziko.

– Zer nahi zuen ba al dakik?

– Egongo zaretela baino ez zidak esan.

Jakako poltsikotik atera duen puruari bizpahiru bider tira egin eta kikera hutsean barik platertxoan zabaldu du errautsa Zubeldiak, azukre kozkor txikien adinako aleetan. Larruzko zorro batetik atera eta betaurrekoak jantzi ditu. Hezur beltzekoak. Ohituraren beharrak pospolo amatatu berriaz hauster pikorrak xehatzera eraman du. Hauts-bidea da orain platertxoa, Esne Bidea zerutik amildua, kikera hutsaren inguruan jiraka, errautsezkoak espazioko harri guztiak. Honela entzun zion Bartzelonan lan berean aritzen zen bati: kafearen ondoren berak beti, egundo ere ez batera. Haren mikatz usainaz, baina ostean. Ohitzea da, izkribuak zipriztindu ez daitezen, eta ez zen tantez soilik ari, edonoren aurrean justifikatzeko erakutsi behar badira, beti ere. Paperak karpetatik atera eta batera behatu dio Igartuari. Bere buruari zerbitzatutako baso ardotik edaten ari da, atxikarra luzatuta. Ez dio inoiz errukirik izan, esker ona gehiago, zerbait izatekotan. Bekaitza ez zegokien ahulei besterik.

Gozagarriro eraman zuen purua ahora. Bi poema zituen orriak, elkarren artean ia tarterik utzi gabe eta ezker eskuin aurkeztuak. Bart gauean irakurri zituenean baino lasaiago ekingo zion oraingoan. Lodi erabili zuen kea ahoan, laino gorputza hartu nahian. Kamerak betetzen ari zen Igartua. Botilen hotsa zetorkiolako daki, elkarrekin momentu horretan baino ez ondokoarekin kontaktuan, aurrean zituen hitz haiek bezala. Gutxinaka baina presaka legez tira eginez, paperera hurreratu zuen purua. Biribilean belztu zen behe-behekoaren lehen ahapaldia, orbain gorria zuena gainetik, gero eta zabalagoa du uztaia aire urdinduaren artean. Erretiratu duenerako errea du *Prohibido* dioen zigilu gorriaren gehiena. Lau. Ez, makina letra beltzez jotako bost lerroko zabalera da orrialdeari jan diona.

Aeronfixez forratutako apalean telebista zuhurtziaz gordetzen dagoen katagorri disekatua izan du beha. Kristal gozokoa du soa eta puru merke bat du hortz artean, kopa bat pattar eta kikera bete kafe hanketara, kartoizko eta tristurazko barren haiek alaitzeko mozkor bihoz-

beraren batek jarriak. Zahartuta hau ere, buztaneko alanbrean du ezagun.

Gazterik heldutako harra zuen poesiarena. Estimatu egiten zituen errealitatea bestelakotzeko ahalegin haiek. Orrialde zulatua eskuan duela kordea galtzen hasten eta itzultzen ez direnen traza berdina duela begitandu zaio Igartuari, begiak inora ez begira ikusi duenean. *Bat baino gehiago ezagutzen diat horrela hasitakoa.*

Tabernan jendea ohean baino hobeto ezagutzen da. Bezero bati entzuna du, orain bere egina.

Maite zuen gazte hura Zubeldiak. Bazuen meriturik bizi zen bezala bizita hain sen zorrotza hazteagatik, ez zuen utzi behar galtzen, zin egin zion bere buruari. Xaloena ere, edertu egiten zen hitza haren eskuetan. Deabruaren edertasuna zuen, hala definitu zuen behin haren lana batzordean. Asmatuko zuen eraren bat salbatu berri duen poemaren defentsa egiteko. Alde zuen guztia. Azkenaldian, goikoek besterik eskatzen badiote ere, gauzak ez zebiltzan inori zintzur egin eta odolusten uzteko moduan. Lortua zuen, berak hala emango baitzion, argitaratzeko bai-

mena. Behartuta zegoen. Berriro jo beharko zituen makinaz etxeratu bezain laster, berak ezean alabak Olivetti modelo berberaz bi poemok, elkarren jarraian biak, bost lerroko tartea zutela. Ezkerrean euskarazkoa, erdarazko itzulpena eskuinera. Goikoari baino ez zion egingo marka tanpoi gorriaz. *Prohibido.* Kolpe bakarrean. Merezi zuen lan hura hartzeak. Deabruaren edertasunagatik.

Minutu pare bat barrena, berba urduriz kontatuko zion gero Juleni ez ezik harekin arratsaldeko errondan bertaratu zaizkion guztiei Igartuak. Folio zulatu hura eskuan zuela nola egon zen begiak bere barrenera irauliak balitu bezala, nola ez zuen ezpainik gabeko aho hura baino mugitzen tartean-tartean. Eta horrela egon zela berak lehenbiziko kikera eta plater errautseztua erretiratu eta kafe berria zerbitzatu zion artean.

Bitter baten propaganda zeraman hautsontzi batekin itzuli zitzaion Igartua. Ez maitatzea, estimatzea da gehiago, zuzendu du bere arestiko gogoeta. Zehaztasuna bilatzen du hitzetan, bere burutazioen hariari tiraka. Ezagutzen du poema ederrik bazterretan, esku artean gozatzeko au-

kera izan du horietako asko. Honetan dagoela, etxean dituen zirriborroez oroitu da, betirako desagertzetik salbatu duenak bultzatuta. Ia egunero idazten ditu, oraindik ere, boladaka, sorgin-kiribilka legez, jakako poltsikoan beti eskueran eraman nahi izaten duen blok txikian hitz bilakatzen zaizkion tiratuak, isuriak, jario herbalak. Batekoa eta bestekoa irakurtzen ari dela etorritako ideiak, egitura bitxirik, etxera heldu orduko hiztegian baieztatu ostean poemaren bati hasiera indartsua emango dion berbarik. Sendotu egiten zaizkio irudiok gogora lotzen dituenetan, gero irakurtzean baino ederragoak iruditu. Badu argitara emateko modukorik, orrazia nahi den estuen pasatuta ere. Inork baino errazago, badu non. Ezizenez bidaliko ditu, oraingo berberaz, ezaguna izatearen kalteak, letren jaiotza eta heriotzari buruzko langintzan aritzearenak. Lan hori ere serioago hartu behar duela aginduta egin dio gogor bere buruari. Bat gehiago.

Bere onetik aterako du oraindik tabernariak. Barra atzean dago eta lehen aldean ilun irizten dio guztiari. Betarteak jite desberdina hartu dio orain, argia gero eta urrunago, barratik kristale-

rako ihesian. Berehala piztuko dira lanparetako bonbilla gehienak eta argiago ikusiko ditu Igartuak askotan beretzat bakarrik gorde nahiko lituzkeen koadroak. Orain itzalak direnak inoiz edo behin horrelaxe etorritakoren baten patxadaz ikusi dituen fotoak dira alde egin aurretik gozatu nahiko lituzkeenak. Gaitza egiten zaio kaleko argia berea duen egunak eskaintzen dizkion argilunei esker sumatu baino ez ditzakeen irudiak identifikatzen. Mundua dago han ordea, eta hobeto ikusi nahiko lituzke. Eskuekin mahaian indar eginez altxatuko da. Hurbiletik ikusita errazagoa izan zaio irudien ezartzea memorian, baina ez du guztietan erreparatuko. Atetik sartu orduko ukabilak begira dituen boxeolariekin entretenituko da aurrena. Hori da, berariaz ditu jarriak. Gizon desberdinak ez direla jakingo ez balu guztietakoa bular bera zela esango luke, hain antzerakoak izaki, jaietako argazkiak ateratzeko egur pintatuzko muntaia haietako bat, abioneta, txalupa, ezkonberriena bezalakoa, buruak eta eskuak bakarrik aldatuta. Isidoro Gaztañaga ezagutu zuen. Hor Paco Bueno. Marcel Cerdan, Edith Piafek abestietan baino oroituko ez zuena. Gra-

zia egiten zion euskarazko berba bakanik ere ekartzen zioten emataile haiek. Bulartsuak. Erdaldunek beherago, zakarrago, inobleago dutena goratua guk. Irribarre burlosoz kontatuko die Igartuak.

Berdin zuten makurtzen soina guztiek, erraiak estu, saihetsak garbiago azaltze aldera. Ilerik gabe, paparra zuri gehienek. Bakarren bat zuen ezaguna betikoaz gain, argazki beraren beste kopiaren bat beste nonbaiten ikusia. Uzkudun ez zegoen. Egia. Askotan ikusiagatik, ohartu gabe zegoen ordura arte. Lepoa egingo luke berariaz zeukatela baztertua. Etxetik kanpora joanari zergatik ez zaion ukabilkada traketseko haien laurdenaren erdirik ere opa galdetu nahiko lioke, Igartuari baino hari kaskoak berotzen dizkionari. Edo Uzkudun ez da etxekoa? Dirudienez gehiago ordea Primo Carnera bera, errezildarra eraistearen merituagatik etxekotua. Zein eta Carnera. Sinatuak zeuden guztiak. *Igartua lagun handiari,* erdaraz denak. *Besarkada handi bat.* Argazkiei bota zien kea. Bat baino gehiago baietz egon konbate bakarra egin eta erretiratutakorik.

– Erretratua duk errazena –arnasan etorri zitzaion, ezer neurtzeko astirik gabe.

Igartuak ez dio orain trajedunari arretarik ematen, hortz artean aritu zela, petralkerian, esango zien.

– Zahartzen eta zaztartzen, Martin.

Argiak piztu zituzten. Ez daki esaten Igartua bera izan den edo bebarrura daraman atetik sartu eta joan berri den emakumea. Kointzidentzia handiegia bestela honela komunikatzea, horren mintzaira zorrotza aukeratzea, lokala askorik arraitzen ez zuten bonbilla haien bitartez adieraztea bereak zirela eta bereak baino ez boxeolari haiek, haiek zirela –eta Igartua ez zen bakarlanean aritzekoa– berak ezin egin zezakeena azken batean labanaren zorroztasunez burutzen zutena. Ematea. Hustea. Gogotik. Bihotza ukabiletara bildua izan balute bezala.

Amoniako eta gernu kiratsak hartu du sartu den orduko. Baldosa berdeko horma kareztatuan jarri du eskua beheraka begira dagoela. Katea hautsita, argindar kablea dute jarria depositotik zintzilik. Gozo egiten du zerrauts bustiak zapaten zolapean. Komunean behera tu egin due-

nean, gozotasun epel batek bete dio aho sabaia. Odoletan ditu hortz-oiak. Oka egin nahiko luke, barruak marruzka eramanez hustu, horretarainokoa urdailetik gorakoa. Azkue izan nahi du une horretan, beraren galtzetan sartu, inguruan duen aire itogarri hartako gizaki arnasadun bakarra. Eta bere betazal itxiak batetik bestera gurutzatzen dituzten puntu urdinak ikusten hasi orduko baino ez du entzun atearen ahalegina zabaltzeko. Handituaren handituaz lehertuz desagertu dira argi pinporta begetal haiek. Berriro saiatzen dira, baina ezin, kisketaz itxi du. Bereizten asmatzen ez duen zer edo zeren gainean, –Astelenako partidua izan liteke– gizon boza, norbait ozen ari da hizketan, eta ez da Igartua.

Urez bustitako eskuak pasatu ditu lokietatik, ileak burondoan itsatsita geratzen zaizkion arte. Xaboi pastillak arrautza urtua zirudien, bere bitsa fosilduaz azalean. Koadroetako gizon haiek lotu zaizkio gogora: bizi al liteke besteari irabaztearen esperantza hutsarekin?

Bigarrengoz jo du kisketak ahoa.

– Oraintxe.

Irten zuenean, bost begi pare sentitu zituen goitik behera arropa artean araka, sakaka, begiraden bortxaz bultzaka errekistatzen zutenak. Irribarre behartu batez agurtu ditu.

Mahaira eseri zen berriro, beste aulki batean oraingoan. Urduritzen hasia zegoen seinale, erantsiko zien Igartuak gero. Karpetako orri mekanografiatu guztiak eskuan zituela atzetik aurrera pasatuko zituen hatz lodiaz, liburu amaitu gabeekin egin ohi den modura. Liburu bat zagok hor, pentsatu nian, erantsiko zion tabernariak Azkueri.

Egilea ezagutu zuen eguna gogoratu nahiko luke, baina hirugarren batek kontatutakoari esker daki dakiena. Bi flash: handinahia bezain txarra iruditu zitzaion historia liburu baten aurkezpena eta ondorengo ardoak aurreko tabernan. Ez denborak, ardo merkearen lurrunak ezabatu zion gogoramena. Irakurria zuen liburua, jatorrizko izkribua. Ez argitaratzeko gomendatu ziola, baina alferlana. Zorrotza zuen begia, eskua beste. Nekez eta zaratatsu hartzen zuen arnasa. Hatsa bezain urduria zuen hitza.

Marmolezko mahai gainean zabaldu zituen orriak. Eskuz jarri zien zenbaki bana eta jasotzen hasi, Igartuari anarkikoa iruditu zitzaion orden batean. Beldur zen: gizonak itoko zuen poeta, zainak ematen zion. Zintzur egingo zion odolberoak idazleari eta odolusten utziko, onenak inondik inora eman gabe. Ez zen izango lehena. Zaindu beharra zegoen mutil hura zerbait aterako bazen, eta erdaraz ez zen txarra.

Onak zituen salbatu zizkion poemak, tarteantartean eta dinamitaren indarrez agertzen uzten zuen jenio txar harengatik ez balitz. Ezin izango zituen ontzat eman. Tamalez, benetan zioen, ez ziren nahi lituzkeen guztiak izango bere onespena jasoko zutenak. Ezinezkoa zitzaion gehiago arriskatzerik. Dozena-erdi poema surtarako, zentsore bihozbera batek salbatuak, inon horren akta jasoko ez bada ere. Gehiago kezkatzen zuen besteak. Gizonak itoko dik poeta, lepoa.

– Egia al da Gailegoaren emaztearena?

Hautsia zen musaren hasierako jokorakoa. Denen artean gazteena zirudienak bakarrik jarraitu zuen beste guztiak bereganatu arte aldameneko mahaian, begi ertzetik zaintzen zuen.

– Atzo eraman dutela entzun diat.

Jokoan ari zirenen arreta bereganatuta zuela jakiteak ematen zion baimena informazioa zabaltzeko, honela ulertu zuen Zubeldiak beretik, begiak orri haietatik altxatu gabe. Egia eraman izan zutela zirudien, eta Santa Agedara, inora izatekotan. Suaren garra hotsez entzun zuen handitzen berbaro mutua. Igartua hurbildua zen mahaira.

– Ezkondu aurretik ere ez omen zebilean santu-santu. Enbido –gehitu zuen atzea emanda zuenak.

– Jaso.

Oinez hasi eta zergatik ez dakizula erori. Begiak erleak helduta bezala, eta zarratuak hala ere. Zumarrez eta zumar itxurako jendez beteriko patioa duzula aurrean. Irri egiten duzu, zure hortzak ez ditu inork ikusten. Ez zaizu inor begira ari. Bero da. Nork laguntzen dizu artilezko jertse lodia eranzten? Iruntzietara duzu. Eguzkia arrama gorrietan geratu da bihurritua, eta ez da erortzen, zu bezala. Makuluaz ahalegintzen zara. Eta patio azalari zauria egiten diozula jaikitzen zara aulkian esertzea lortzen duzun arte. Marra

bat egin du arrasta egin duenean. Ortzimuga. Abar iharra. Uhala izan liteke. Edozer. Dena. Lurretik, enbor azala ekarri duzu ahur beroan eta latza da. Jolasean aritzen dira hatz hauskorrak, erliebe ederrak ditu. Eguzkia tarratatuta ari da hiltzen. Patioko surtidoreari darion etengabekotasuna. Ohartu zara zaindaria datorkizula, zeure izenez deitu zaitu. Botika ordua? Ez dator bakarrik. Begiak irekita ere, zer da ikusten duzuna? Ezagutzera egiten duzun baina benetan zumar gerri horiek bezain arrotz zaizun nebaren aurpegi hau, eroria hau ere.

Zubeldiak arreba bisitatu zuen azken aldiko gogoetak berritzen harrapatu du bere burua, norberaren buruari min egitearen garratza gozatzen. Ondoko mahaikoek utzia dute bistaz bada ere, agian ezagutzen duen gailegoaren emaztearen kontua. Begi garbiz begiratu du. Jokoan ari dira. Berbaroak hitz mekanikoak dakarzkio.

Bonbillen argia Lizarraga Torranokoaren soinean dago lo, on aurpegiko besteen aldean. Joatea erabaki du.

Bere burua eskua luzatuta ikusi du Zubeldiak, tabernariak amantal zurian berea lehortzen

saiatzen den bitartean eta estutzeko prest. Neurtzen zaila zitzaion zeinu azkarregiko hura. Ikaratu egin zen. Bestearen hatz beroak pitzatu beltzez beteriko bereak inguratzen sentitu orduko erretiratu zion Igartuak bostekoa.

– Hurrengora arte –gorriak zituen erpuruak, zauri txikiz puztuak azkazal motz muturrak.

Taberna, pentsatu du Zubeldiak.

Luzea iruditu zaio inoiz dotoreago izandako itxura hartzen dion karrikarako atera heldu ezinean. Ukabilak prest ikusi ditu ezker paretakoak. Uzkudun ez baina Urtain dago Atano hirugarrenaren ondoan, bekozkoz begira biak, inon ere dauden txapel handienen jabe. Ezer ez esatea erabaki du Igartuari, gehiegi antzeman ez dakion. Hobe horrela, itzal luze desagertzea. Eskua maratilan duela entzun du, itxuraz argi.

– Ez da honezkero agertuko.

Itzala nola galtzen den sentitu du, irudia gero eta argiago erakutsiz. Lotsaren baitara bildu da geriza zena. Atea, morroiloaren hots mikatzez, zabaldu gabe du oraindik.

– Zortziak, zortziak eta laurden, hor inguru, seguru. Inprentari krankatakoa ematen dionean.

Iparrak jo du aurpegian. Karpeta gabardinapean sartu eta goraino lotu ditu botoi nakaratuak. Gorantz begiratuta, zatarra dator. Atzerantz egin du buruaz kalea zapaldu orduko. Jokoan jarraitzen dute, beha eman gabe entzunez. Igartua txipia hemen nagok esanez bezala. Katagorriak ez du pattarra hustu.

– Ez dio axolarik. Egongo naiz berarekin.

–5–

Autoan zihoala ikusi zuen. Gora hitzari zerion erdoka beltzak salatzen zuen eskua. Ez dituk behintzat lasai ibili, etorri zitzaion. Nahiago zuen birao legez ulertzea, pinturaren arreaz baino ez zegoela behartuta maitatzera norbait. Oinetako zipriztinduak espaloian barrena korrika. Animalia ardamaindu bana erraietan gora zutela imajinatu zituen, lagunaren arnasari gor. Autoren baten argiek etengo zuten eskua hurrengo hizki larria artean pote barnean zeukatela, motor baten zaratari lotutako argiek aterea gaueko ilunpetatik *Gora Euskadi Azkatat* amaigabe trabatu hura. Oihu bat, eta bi ondoren, izen propiorik gabeak. Arituaren arituz ikasitako defentsa. Ostikoz joa potea, iharririk, erreteneraino koa zuen egina pinturak espaloian behera, nola izotz kandelak teilatu hegalean, beltz baina. Ihesa amaituta ikustera egin zuen bere baitan; izango da hala nahi izanez gero norbaiten izuarekin jolasterik. Bi minutu bai geldirik egon dela, ez aurrera ez atzera, bidea eskabadora gorriak etenda. Auto

motorretik zetorkion labea itzaltzea erabaki zuen; gehiegi berotzen zuen. Alkandora atzea melatuta zekarren eskai gorrixkaren kontra. Orduan kaskodunak atzeratzeko agindu zien ikustera pilaturikoei. Kontaktua kendu zuen. Ederregia zetorren eguna kiskalita hiltzeko.

Jabier hurreratu zitzaionerako baztertua zuen autoa eta batuak kasik atzeko aulkitik paper resma hasiak, azaleko estraza urraturik. Heldu orduko, gazte bat aipatuko zion, eskura emateko gutun bat, orain bere bulegoko mahai gainean, besteekin batera zeukana. Izenik eman gabe alde egin omen zuen, bi aldiz galdetu dion arren. Ez dela ezer baina emateko mesedez zorro hura eskura, ardura hori hartuko ote zuen bere iloba izanda. Presa zuela gero, gaurko. Harritu ere eginda, imintzioz ari zaio adierazi nahian, ezagutu ez eta osaba duela jakin.

Nire kontu, esan izan diola azkenean.

Zein bekain zabal zituen kontatzen entzungo dio gero Julenek, ilea bakantzen hasia gainaldean. Ez duela ezagutzen esan dio, ez horrela esanda behintzat, papertegiko norbait izango dela, Tolosatik ez noski propio horretara etorria.

– Gazte asko hartzen ari dituk aspaldian –Jabierren aurpegiak lasaiago dagoela dio.

– Hura ez zen behintzat bobina asko garraiatutakoa.

Desgogora, ez zion erantzungo. Alboetara etzaten zaion papera zailtasunez zamatzen ikusi du Azkuek, bizkar gainean jarri eta egurrezko ateari izterrezurrez bultzatuta okerka sartzen. Bertaraino heltzen zen dieselaren kiratsa. Palakoilarari zerion ke beltza eginahalak egiten ari zen gizonen biriketara sartzeko, inoiz, insomnioak loa galarazten zionetan hartua zuen kiratsa, etxe atzeko orube hutsean erretzen zituztenean obretako zakarrak, gasoilaren ordez gasolina erabiltzen bazuten ere. Plastiko errearena, berniz pote hutsena, hondo-hondotik garra, zikinetik libratu nahian bezala. Ke beltzez betetzen zitzaizkion begiak itxi eta loak hartu arteko guraria. Kolpeka ateratzen zen ke zikinak hodi gaineko txaplata altxatzen zion. Jabier itzulia zen gillotinara. Berak luzaro segituko zuen begira, beltza beltzago aterako ez zen arren.

Egunero jasotzen zuen posta. Ez zen erraza ulertzen zergatik aukeratu zuten eskuz eskukoa,

sarritan irten beharra izaten zuela jakinik. Arriskuak ordainik ez balu bezala jokatzeak mesederik ez zekarrela, eta zitaltzen igarriko zuten besteek. Nor zen bera ordea eskolak emateko. Zioten begirunea ez ote zen beste zer edo zeren estalgarri pentsatuta sartu zen bulegoan.

Mahai gainean besteengandik bereizita zeukan Jabierrek. Itotzen hasia zen. Ito egiten zuten horiz margotutako hormek. Nonbaiten irakurria zuen jendea zoratu egiten zela pareta horien artean. Alborik bigunenetik ireki zuen kartazala. Orria atera zuen. Uste zuena. Ohituta zegoen gutunak horrela irakurtzera, data adierazten zuen zenbaki hutsa, etortzeko dagoena gehienetan. Ordurik ezean aurreko zitakoa gogoratzen saiatu zen. Ilundu gabe zegoen artean. Lekurik gabeak ziren guztiak, aurretik hala erabakita. Arratsalde bertarako izateak ernegarazi zuen. Ez joan beharrak, estiloak baino. Zabarkeria iruditzen zaiola muturreratzea erabaki du, egin gabe utziko dituen lanak apuntatzeko paperaren bila dabilen artean. Bat du azpimarratzen, mutur zapaleko zirkulu gorri batean sartzen. Ezin da jendearekin jolasean ibili, sentitzen dut. Halako zerbait esan-

go zien, baietzak baietzagoa izan nahi duela bere aldetik, hori gutxienean.

– Jabi!

Zeukanetik zaharra baino gehiagotan atzeratzen zitzaion erlojuari eman zion begia. Bizkor beharko zuen ibili helduko bazen. Bil-bil eginda zuen oharra eskuan harrapatua tergalezko jakako poltsikoan. Data bat eta denborarekin are barregarriagoa irizten dion sinadura: Huitzi. Bere burua konbentzitzeko, pentsatu du lanak zuela merezi, ez ilunetan ere dir-dir egiten duela uste duen bitartekari jendekera horrek. Hormako erlojuaren ordu bera jarri zion eskumuturrekoari.

– Bai?

– Donostiaraino joan beharra diat. Liburu baten aurkezpena.

Bide batez Diputaziokoekin egoteko aprobetxatuko zuela esaten entzun dio ilobak, ez dela honezkero bihar arte agertuko.

Ondo zegoela erantzungo zion Jabierrek. Eta zer berari. Bere anaiaren semea zelako, ez parekoa zuelako. Asteak dira esana ziola amari osabak begitan hartua zuela, Inesek berak kontatu-

ta daki. Ez du inon aitortzekoa, irribarre hark bere onetik ateratzen zuen Azkue.

– Eta? –ezpainak garaipen Jabierrek.

– Diptikoena bukatu orduko entregatu, eskura kobratzekoa duk, heuk joan beharko duk beraz.

Eskua poltsikotik atera eta zakarrontzira botako zuen paper bildua Jabierrek atea itxi eta metalezko eskaileran haren oinotsak entzun orduko. Hala zen, horia zen jasangaitz gertatzen zitzaiona. Telefonoa. Zaharretakoa zuen txirrina, likidoagoa berrien aldean.

– Bai, esan?

Eten egin zen. *Zuten.* Bestaldekoek ziurren. Bulegoko atea itxi eta gaztea agurtu gabe sartu zen autoan. Eskabadorak goiz goizetik ur hodi berriak sartzeko zabaldu duen bidean behera desagertzen ikusi du tailerreko ate irekitik.

Ordura arteko lanak pasatu zituen behin eta berriz bere gogotik bidean zihoala. Andanak eskuratu baina inork gutxik irakurri dituen liburuak ziren haietan gehienak. Historiakoak, antropologiakoak beste norbaiti aginduta, narrazioak eta olerkiak baino ez ditu argitaratu azken sei urtee-

tan. Gutxi irakurriak denak. Besteen aldean, literaturak bazuen bere gain ez zegoen beste zerarik: eustearen nahitaezko bandera. Haizerik gabe ere dantzatua, puztua behar zena.

Harra askatzearren, hari beretik tiratuz ateratzen zitzaizkion objektuen zerrenda egin zuen, bere bandera propio izan eta etxean dituenak, azkenaldian ez hain gordean: Lemoatik igorritako gutunak armairuko izara artean, basorako aita zenak zerabilen errebolberra, afixak, John Zabalo, Txikirenak asko: «Por una universidad vasca. Vota al estatuto». Berarekin arriskua baino ez zekarten fikzioek zer balio zuten paper gainean oroimen haiek baino gehiago? Amore eman zion bere buruari. Berak bai, baina oro har ezer gutxi zuten aurrerako gehienentzat ez bazen zimentarritik, gordailutik.

Maite du errepidean bakarrik txofer egitea. Arbolen adar zabalen petik autoa abian gidatzea, kapota gainean arroila zulotik bidea ez eze inguruko soroak hartuko zituen leia nola pausatzen den sentitzea. Goizegi da horretarako ordea, bazuen argirik artean. Luzatzen hasia zen eguna. Mendien gibelean zelatan, gainean zuen beneta-

ko gaua. Haizea aldatzen ari zuen. Arbolategia atzean gelditu eta bakarrik zoazela jakin. Abioi baten isla zeru garbian irristaka, zilarrezko bala bat bezain argitsu. Hari zuriek elkar ukitu gabe segitzen dute bere atzean luzaro, urrunago, umeek egindako marrazkia dirudite.

Zeru gainean keinu egiten zuten argi gorrietan erreparatu zuen kafetegiko leiho bestaldetik. Ordubetean ikusten zuen bigarrena, mendebalderantz hau ere. Kafea eskatu zuen. Espaloietako argiek beregana ekartzen zituzten jendearen itzalak. Mahaira eseri zen, bazekien itxaron egin beharko zuela. Barra gainetik hartu zuen. Orduan gomutatu zen, irakurria zuen. Goizean ohartu ez den gauza bat erreparatu du orain: izenburuko hitz guztiak letra berberaz hasten dira. Zenbat egun diren behar horrelakorik berriro gertatzeko, galdegin dio bere buruari. Guztira ere, zenbat izango ote dira harrapatuko zutenak? Tipografoak, kazetariak, poliziak. Egunkariak astiroago irakurtzearen abantailak, plazeraren beste muturrean. Kasualitatea dela sinetsi nahi du, izutzekoa litzateke bestela, jokoak bere gatza izan dezakeela sinetsita badago ere. Polita

nolanahi ere Huitzirentzat. Orduan ohartu zen, zapatak lokatzaz zikindu zituen.

Aurreko espaloian mundu bat dago, semaforoa aurrean geldi. Eta han da, bat-batean kiosko aurrean eta egunkari guztietatik bat aukeratuta, tolestu, jakako poltsikoan gorde eta orain jende artean galdu dena da Huitzi. Berde jarri orduko egin du aurrera, gorde-gordean beti ere, azkena. Traketsa du ibilera. Ezagun du zaldi gaineko gudari garaietako ohitura, berari entzuna gainera, hartaratua ibilera. Besoak saihetsaldeari atxikirik zetorren, eskuak hilda balitu bezala eta burua apur bat aurrerantz makurtuta. Txapelpean, uda zein negu izerditan ezagutu dion burusoil gorri hura, otarrain egosiaren koloreko.

– Arratsaldeon –esan zuen otarrainak.

Azkuerena ez zen ezpain mugitze bat baino izan, eztarrian sortutako hots bokal gabea. Ikaragarri handiak zituen begiak. Bi begi egosi beti begira zenituenak. Legena ezkerreko belarri ertzean.

– Bizi al gara?

– Beharko –Azkuek.

Egunkaria poltsikotik atereaz, mahai gainean utzi zuen Huitzik, buruz behera Azkuerentzat. Arratsaldekoa zen, ez hitz guztiak letra berberaz hasten ziren berri gazigabeko hura.

Almiranteren bati ostutako jaka zuria zeraman kamareroak, sorbaldak gaineko gorriz.

– Neuk ere horrelakoxe bat –esan zuen erdaraz Azkuerena bekainak altxatuz erakutsiz.

Eguna luzeago eginagatik ere, ilunduta zuen kanpoan. Presaka itxuraz pasatu den emakume bati begiekin segika harrapatu dute elkar.

– Lana diagu –jarraitu zuen Huitzik.

– Pentsatzen dut.

Begira-begira gelditu zitzaion. Mahai gainean utzi berri dioten kikeran galdu zen Julen Azkuerena. Sartu orduko atera zituen begiak eta besteen parera altxatu, likidoak artean.

– Zuk esango duzu.

Ordura arte ikusi ez zion larruzko kartera ireki zuen, mahairaino jaso gabe belaun gainean gorderik. Kartazal handi bat atera bertatik eta hitzik egin gabe erakutsi zion mahai ertzean. Azkueren ukondoa eta leihoaren artean. Busti egin zen, orein urtsu bat zuen orain. Zabalik zegoen

eta gomaz lotzeko kartoizko karpeta higatua zekarren barruan. Orri muturrak aterata, kopiak zirela esango luke, kalko paper beltzez eginak. Azaleko begiratu azkar bat ematen ikusi du Huitzik.

– Ondo dago, eta?

– Datorren hilaren azkenerako –esan zuen agintzen ohituta dagoenaren ahotsez.

Haizealdi bat. Semaforoa libre dago oinezkoentzat. Egunkariek hegan egitera egiten dute, kortxetek heldu ez baliete. Almirante jantziko kamareroak irribarre gangarrez jo du besagainean jaka beltza daramana. Barre hatsa du honek. Egunkari orriak nahiko lituzke, haize boladak kafetegian sartu eta aho hura itotzen.

Lehen bider denboralean, zorroa luzatu zion gizon hotzaren begietan sartu zituen bereak. Hasieran gozoago aritu izan zitzaiola gogoratu zuen. Ez zuen haren hitzak orain duen sorbatzik. Huitziren bitartez egin zuen lehen lanaz oroitu zen. Elkarrizketa luze bat izan zuen orduan ere, literaturaz gehienbat. Iritzia zion eskatu. Librea zela baietza ala ezetza emateko, baina egin behar bazuen konbentzituta egiteko. Azkueri oi-

narrizkoak iruditu zitzaizkion izen batzuk aipatu zizkion, jolaseko lakioa ere jarri zion gezurretan harrapatzeko hau horretan ari bazen. Jantzita zetorrela erakutsi zion. Barre egingo zuen zaharrak. Eta begiz ere egin zuen Azkuek etxekoaz ez eze kanpokoaz zuen ezagutza erakutsita. Minegia inoiz, etxean liburu gutxi dituela aitortu zion arren.

Terminologia bera. Erresistentzia kulturalaz, berba horiexekin, hitz egin zutela biek du gogoan. Eginbeharraren garrantziaz. Huitzik beharra aipatuko zuen, zenbaiten bihotzak kutxa gotorrak balira bezala errebentatzen dituen berba. Ardoak piztuta mintzoa, lehendik ezagutzen ez zuen itsas gaineko txiriboga batean, burdinazko hankak eta usteldutako gaina zuen mahai bakarra parrapean. Uda zen eta mahats ale helduak zoru gainean usteltzen ziren. Erleak gero eta hurbilago mahaitik.

Ez zuen mintzoa abaroan egoteko. Lehertu beharrean zituen begiekin mintzatuko zitzaion:

– Alferrikakoa duk oroimenak negarrerako gizentzea. Iragana ezagututa baino ez gaituk joan-

go aurrera. Eta beharrezkoa haiz hi, eta bestea eta bestea. Azkue, egin beharra zaukaagu.

Ez zuen erraztasun handirik, ibilera bezain trakestua zuen hitza. Bare zegoen itsasoa behean, soroen altzoan. Begi zuriz, telefono hariei jarraitu zien, muino atzean desagertu ziren arte. Norbaitek goiko leihoetako bat ireki zuen. Gauza astunen bat zoru gainean jausten, uztearen dangatekoa gero. Dei egiten zuen ahots bat. Geranio ontzi berdeak zeuden bentana guztietan. Ailorbe usaina aditu zuten. Itsasoari loturik, noiz indartuko zain egon zela du gogoan Azkuek orain. Zamaontzi bat ortzimugan irristaka. Eta ukabila estutuz ekin zionean berriro askozaz ere ozenago aritu zen, ardo kiratsa aurpegira bortxaz zeriola:

– Loeroan egon gaituk, lotarako herri egin nahi gaitiztek, Julen. Bazagok zer eta nork idatzia, neuk ekarriko ditiat egin ahala. Makinak baino ez ditiat eskatzen. Literatura, Azkue.

Itsas zapu urdinila da itsasoa, egonean zabal. Zuzen zegoen, garaia da bera jabetu dela literaturak ez duela salbatuko. Eta ez daki baina zer den bizitzara lotzen duena ez bada literatura

bera, beharra, Huitzik gogora ekarri dion bezala. Berde freskoaren ederra zaparradaren ostean. Autoan sartzen lagunduko zion.

– Ez beste inor, hi haiz egokiena, Azkue.

Leihatila jaisten du gogoan, haizearekin itzarrita segi zedin, eta han utzita jo zuela oinez aldatsean beherantz du oroimen haren azkena. Ontzia desagertu egin zen zabal gurenetik.

Etxeko atepetik botata Inesek igande goiz batez aurkitu zuen zorroa izan zuen hurrengo berria. J.A. inizialak kanpoan, makinaz jotako folio mordoxka bat eta, eskerrekin batera, alderdiaren babesa eta errespetua eskaintzen zizkion gutuna. Ordukoa da gogoan duen lehen sinadura, eskuz, letra single eta lotugabez: Huitzi.

– Esan bezala beraz –lan handiz altxatu zen aulkitik–. Beste zer edo zer nahi?

Ezker-eskuin astindu zuen Azkuek buru makurra eta begiak gora. Nekatzen hasia zela gauzak eramateko era harekin adierazten ari zitzaion mututasun haren bidez. Bihotza noren alde eman behar den ez dela beti agintera. Isilik jarraitu zuen Huitzik larruzko karpeta batzen zuen bitartean. Egunkaria tolestu eta bertan

sartu zuen. Orixez oroitu zen, Ameriketatik etorria zelarik egin zitzaion omenaldiaz. Argazkiak ditu eginak. Abenduko hotzetan, bidez urrun egin zitzaion Leitzan. Buruaz agurtu zuen. Omenduaren ondotik. Ozta-ozta erantzun ziola. Bilatzen hasita, Agustin, bota du bere baitarako, ez al zenuen beste gaitzizen diskretuagorik?

Barrara hurbildu eta biena ordaindu zuen.

– Deituko diat –esan zuen berriro ondotik igarotzean.

Bulebarrera irten orduko, bestaldera pasatzen eta jende artean desagertzen ikusiko du. Leiho ondoan jarraitu zuen Azkuek, gaua zumardia estaltzen. Kopeta kristalean pausatu eta lausoaren bustia harrotu zitzaion aurpegiaren isla estali nahian. Nekatuta zegoen. Espaloietan bakantzen hasia zen jendea. Gazte bat sartu zen ondoko bebarruan, katea aterata zeraman bizikleta eskuan zuela. Ezagun itxurak egin zizkion emakumeak lagundu zion ateari eusten. Ezer ez esateko elkarrizketa bat entzun zuen entzun gabe. Gogozko zituen etxez kanpoko iluntzeak, inoiz ikusi gabeko jendeari beha. Ez zen haien bizitzak imajinatzera jolasten, ikusi baino ez zituen

egiten batera eta bestera, bidean, inoizkoan eta betikoan, kafetegietako beren randebuak urrun balituzte bezala. Edo, otu baino ez, haietatik ihesi.

Ukondopeko zorroa hartu eta zerbitzari nagusia zirudienarengana egin zuen, zenbat zen galdetzen, aurretik Huitzi barra gaineko txanponak biltzen ikusi duen arren. Izenez deituko dio barre okaztagarridunari. Baietz egiten ikusi du buruaz.

Kalea kafetegitik baino zaratatsuago zegoen, autoen harat-honatakoa zuen gutxietsi. Portuko harresian barrena jo zuen. Maite zituen bide luzeak inorengana joateko presarik ezean. Bustia zegoen harria, orbain iluneko. Bera izan zen galderarik egin ez ziona, ez irakurri, gainetik begiratu ez zuen testu bat zuen besapean, hitzezko konpromisoa. Bere baitarako egingo zuen irribarre: kontzientzia lotaratuak esna mantenduko zuen garra. Itzal etzanak sumatu zituen ilunarekin jolasean: bikoteak. Eta hala ere, bazuen zer eramana, ez du estiloarena esateko adorerik izan. Maiseatzen entzun zituen. Irribarre egin zuten gero sareen gainetik.

Erabakia zuen, ez zuen inprimatuko. Ernegatu egiten zuen kontzientziaren burmuin handi hura mantentzeko galdara hain esku traketsetan zegoela pentsatze hutsak.

– Estua zara gero.

Huitziz oroitzean etorri zaio berehalakoan Inesek harekikoak aipatutakoan behin baino gehiagotan ekaika aurpegiratu izan diona. Harri bilakatu zitzaien esaldi hartara biltzen zuen Inesek berekiko agerian erakutsi izan duen akarraldi bakarra. Emakumearen begietako gozora behatzen zuela egin zuen: ez zuen ezer ikusten. Non ote dago orain. Huitziren deiaren zain geldituko zen.

– Ez, Agustin, ez diat aterako.

Orriak irakurriko zituen bitartean.

–6–

Ederra zaio gaua sabai astuna begien berora ekarrita. Ez da ilunetik ilunera doan argirik, ez du ikusi bederik, begiak arteztu baditu ere, balkoian eman duen denboran. Izarrik ezean ere etor daiteke eder izatera, Inesi ikasia da, lantxurda iragartzen duten hodeiez estalia. Aurreko leihoetako argietan erreparatu du, mugitzen ez diren gerizak dira. Hala imajinatu ditu hodeien gainetik doazenak, itzal ezezagunen batak bestekoarenak zaintzen are argi ahulago baten babesean. Identifikatzen lanik eman ez dien hiri bat, argi tanta sakabanatuak, ibaiaren distira zauri bat bezala barneratzen, ausaz epelago. Zapata zolaz zapuztutako kristala da hiria eguzki etsai etorri den abioitik. Inoiz baino urrunagoko egin zaie eguna ilunetik ilunerako ozeanoan. Ekialde hau ez da gozoa loeroan datorrenarentzat, arrotza du lainoa berriro ere hegaletako piloto gorrien pean. Luze egingo du hegazkinak, itsasertza norako hari bat, muga iragan orduko argi sakabanatuagoak ikusteko. Aparra galtzen hasia duen

zerbezak eskuak hoztu dizkio. Kanpora nahi du gortinak ere, haizea dabil. Eskuak balkoiko burdina beltzean, behera behatu du, burutapenen kateatzea. Hutsik dago, inon badiren baina ez gertu ez urrun ezarri ezin dituen oinotsak. Honezkero loak hartu baino lehen amaitu nahi luke. Amaieran du nobela, ezin izan du etxeratu eta azaletik atera orduko ohe ondoan eta biharko utzi. Nahiago du honela, erraiak ez bada ere muinak errukigabe bustiko dizkion ostizaparrada, inoiz azidozkoa amestu duena. Amaitu arteko euri errea. Bihar dio Huitzik deituko gustatu zaionetz eta konposatzen hasteko. Agindua duen galderaz mintzoko da, adiurrean darama. Edalontziari hondarra isurarazi eta epelean sartzea erabaki du. Zeudenean jarraitu dute itzalek aurreko etxean, gauak haiek ere bere eta betiko ezin egin balitu bezala.

Hotz zituen oinak ohe zabaldu gabearen gainean etzan zenean. Min ematen zion bizkarrak burkoaren kontra, sufritua da hortik lehenago ere. Izarapean sartu eta alboka etzan zen, orrialdeak ondo antolatuta. Makalago egiten zituen bere orain, ordura arte inoiz ikusteke zituen letra

moldez jotako lerroak. Ohizkoak baino biribilagoak eta bigunagoak ziren, hutsagoak barrenetik, ezagutzen ez zuen idazmakina batenak. Ezinezkoa zitzaion. Lan handia ematen zion aurrerakoak, beteak begiak. Ahaztua zuen zer irakurri zuen azken bost orrialdeetan. Folioak meta batetik bestera eraman eta azken lerroak irakurri zituen. Auzune baten izena da gogoan ez zuena, galduak zituen A. izenekoaren urratsak portu karriketan barrena. Ez zuela norakorik iruditu zitzaion, eta hala pasa zituen beste bi orrialde. Ez nondikik. Txiki nabaritu zituen bere begiak, beteagoak oinots haiei orpotik jarraitzeko ezgauza arrain erre usaineko kartier batean. Orriak eskuan hartu eta zangoak luzatu zituen, egurraren zurruna aise ukitu zuten arte. Atsegingarri zitzaion giharrak gogortzen sentitzea izter mamietan. Zoru gainean utzi zituen orrialdeak, zenbaki gabeak egoteak ordena gehiago zaintzera behartzen zuten. Eskuz zien jarriko, beretzat baikere.

Argia itzali eta irratia piztu zuen. Hotz zituen oraindik oinak. Betidanikoa izan du, ubeldu egiten zaizkio hotzarekin. Odola da, aiher izanik zai-

naren beroa ukatzera datorrela adierazten diona. Iritzi zion *zirkulazio txarrekoa da*ra eramateko ohiturak bazuela irainetik. Bizigaiak berak zuela aukera egina bizi beterik ez emateko. Elkarren kontra igurtzi zituen oin moreak, elkarri eman ziezaioten.

Orduan baino ez zen ohartu alemana zirudien hizkuntza batean ari zela espikerra. Pausatua zuen tonua, erbesteko hizkuntzei baino ezagutzen ez dien monotoniarako joera. Ohartu gabe aldatu izango zuen LWra. Lasai mintzo zedin utzi zion, eztarrian ebakiriko albisteetan ezaguna lukeen hitzen bat noiz harrapatuko. Ezagutzen ez zituen milaka pertsona zituen albainuaren bestaldean; berririk ere ez zuten kultura baten pindarrak mantentzeko eder izango den nobela baten originala amaitzeko kemenik gabe gelako zoru gainean utzi berri zela ohartzeke. Hartara biltzen zen gaua, mutur biko hizkuntza baten berbetara. Izaren hotzera, geldian egon ezin duten oin ahaztu batzuetara. Mundu oso bat izenik gogoratu ezin duen auzo karriketan abandonatzera, begien nekera. Emakumezko ahotsak hartu zion txanda gizonezkoarenari. Ezagunak

egin zaizkion izen batzuk entzun dituen zaioa du. Pausatua zuen ahotsa, beroa. Berarentzat zen bezain bero ote zen gauero entzuten dutenentzat, galdera du buruan. Ez dio maitemintzeko astirik emango. Eskua dialean zuela Argentina esan du gizonezkoak berriro ere. Ezkerretara joaten sentitu duen orratzak oso tonu bestelakoak ekarri dizkio, etorri eta badoazenak. Gaztelerazko ahots baten bila dabil eskua, lotu du bat, hots mehe batek berarekin eraman duena. Bihar goizean amaituko du. Eguerdirako izango ditu idatziak Huitziri esango dizkionak. Zuzen entzun dio gauaren atalik zailena ahots beroaren ondoan pasatzen duenari. Argentinan tren batek beste bat jo eta zenbatekorik ez duten hildakoak aipatu ditu. Hegorako bidean zihoazen, erantsi du ahotsak. Bertan utzi du diala eta begiak itxi. A.rentzat, trena bizitza da.

Loa etor zekion egon zen. Gela bezain beltz imajinatu zuen bere burua, esfera ilun bat, airez baino lika hariz betea. Batetik besterako amaraun lodia. Astuna da hutsa, kontrako irudia egin nahiko lukeen arren. Bikezko hariak, gero eta zarratuago den sare likidoa osatzen. Ezin, pentsa-

tu du beroaren lehen erasoa sentitu orduko. Putzua desegin ez dadin, indarra egin behar izan du. Hariak ekarri nahi izan ditu berriro, beltzaren pisua. Badoanarena. Eskua eraman du berotasunera, xaretuz doakio amaraun gero eta urrunagokoa.

Argizko malutaren beroaz doaz urtzen putzu erdikoak. Bonbilla bat dirudi, harizko sarera ekarria. Ipurmasailak estutu ditu, ukabil itxia da eskua orain gorpuzten ari zaion errea ito nahian. Jolasa da arnas estutua itotzea, bero egiten dio ihes hatz arteko leiho hezurtsuetatik lika zuriak.

Ispilu aitzinean zegoela lorik ez zuela hartuko etorri zitzaion. Luze utzi dio txorrotari, ezinaz jabetzen ikasten hasia nauk, esan izan dio Arronari. Izango da bera bezalakorik, begiak zabalera bizitzera kondenatutakorik. Hik uste baino gehiago, erantzungo zion. Sinpatiaz zuen beha, errukiak ez du aitzakiarik. Kanila itxi eta urari begira geratu zen, bazihoan.

– Insomnioa duk suizidioaren hall-a.

Negua zela oroitu du. Arronaren irribarre urduria, tira, ez duk horrenbesterako. Faktorrak errazago ulertu zuelako gauei amaigaitz iriztea,

hortik atera du. Berbena belarra gomendatu zion, pasiera oheratu aurretik. Gehiegi esatea zen, baina nekatzea bada kontua, burua ez duela duena baino gehiago nekatzerik esan behar ziokeen. Komuneko argia itzali eta ez dela ohera itzuliko erabaki du. Galtzerdi garbiak jantzi ditu hankagain handiko oinetan.

Telebista piztu orduko irudien aurretik datorkion zarata entzunda ohartu da ahaztuta zegoela honezkero amaitzear egongo den konbateaz. Bere aurrean ring bat zuela idatzi zion inoiz bidali izan dion gutun bakarra. Harritu egin zen. Ukabilkadek ez zioten minik ematen memorian. Inesek bere hitzak nola ulertu zituen bekain ireki hark baino gehiago ikaratu izan badu ere. Martxoa zen eta eskubizkor bete zuen orria. Txalupa uharrira gidatzen hasi zen zerbait idatzi zuela baino ez daki. Hitz jarioan gordea lema hondatu zuen arroka. Ederrak iruditu zitzaizkion esaldi bat edo beste ditu gogoan, aurretik ere gordean zituenak. Eskertu izan dio dena den egundo aipatu ez izana gutuna izan zela gero eta banatuago egotearen arrazoi. Bi gila ohol ozeanoaren

azalean, urteko lehenbiziko egun urdinek sehaskatuak.

K.O.z erabaki zuen borroka, zazpigarrengoan. Beroan idatziak ez zion barkagarriago egiten eskua. Ondo gogoan zuen, errua duenaren memoriaz, telebistako argi azula lagunen aurpegiak bustitzen Igartuareneko mahaietan. Antzeman izan balio bezala mintzatu izan zaio harrezkero beti. Pattarraren errearen gozoa eztarrian behera, eskua barra atzetik hartu zuen boligrafoaz paperezko serbilleta batera behartu zuela zaio etortzen. Besteen ezkutuan, egiara zihoakion eskua, eta utzi egin zion. Damu hitza maite ez duenetakoa da Ines. Ukabil seguruko ikusi zuten, ondo babestutako aurpegiera hanpatua. Bereak ere bat egin zuen besteen oihura lehen balantza egin zuenean. Serbilleta idatzia poltsikoan sartzen du gogoan, agur herabe bat eta Cassius Clayren eskuinekoa Zora Volleyren matrailezurrean. Afari-lagunen aho bateko behetik gorakoan gordea egin zuen ihesa. Orain dagoen bezalaxe eseri zen etxera orduko, amaitu gabe zegoen konbatea papera hartu eta idazteari ekin zionean. Komentaristaren deiadarrak altxarazi zion

burua. Volley ez zen jaikitzeko gauza. Poztu egin zen. *Nik ez zaitut nire beharretara makurtu nahi,* idatzi zuen. Bi besondo garaiezin Munduko zerurantz. *Libre nahi zaitut. Baina nire.* Orain aurrean duen telebista berean puntu argitsu batera desagertzen ikusi zuen agian bere ere bazen irabazlea etenkariari sakatu orduko. Hobeto segituko zuen isilean, astiroago egin zuen eskuak min eta eskeko tinta harilkatzen. Ikaratu egin zuen bakardadeak. Hasia zegoen ordurako lorik gabearen nekearekin ematen gauak. Ardaitzen zuen eskua. Horri deitu izan dio berak ere hustea, eskua norberarekin azken hatseraino mintzatzea, besterentzat bada ere. Agurra nola eman zion oroitu nahirik galdu du begiratua ringean. Ez da dudarik, Volleyren hartan ez bezala, puntuka erabakiko da entzun berri dituen arren izenik gogoratzen ez dituenen artekoa. Zaluegiak dituzte hankak bertan erortzeko. Ez zuen musu asko idatzi. Berak bakarrik harrapa zezakeen hitz ederren bat zen. Orain eginahalaren hutsalean benetan gogora ekarri nahi ez lukeen labana. Zauriturik ikusi nahi ez dituen begiak. Inesek ez du boxeoa gogoko.

Ez zuen beste gutunik jasoko bizitzera gurasoen Leon urrunera zihoala esan zionetik. Hustu izango luke zaina hatz erietatik behin baino gehiagotan, gero eta lan handiagoa ematen dioten telefono deiak ditu testigu, baina damu ez bada ere, idazten ahaztea bezalakoxea.

– Jaso nuen.

Lehortuta zituen ezpainak, estepako haizeak, pentsatu zuen Julenek. Bi esku elkar bilatzen, hitzak garesti saltzen direla adierazi nahian elkarri, formikazko mahai zatartu baten gainean. Ez zion txaluparik aipatu, lemazainarena irudi estupidoegia zuen ezpain lahartu haiei eskaintzeko.

Kas-kas jotzen entzun zuen gelako kristalean. Begiak zabaldu zituen. Elurra ari zuen. Pinportale urduriek betetzen zuten pantaila. Komunera jaiki zenean utzi zuen bezala zegoen ohea, abandonatua hau ere iluntasun elektrikora. Elkarren gainean jarri zituen oinak mahai txikian, zerurakoa neurtzen ariko balitz bezala. Kolpe goxoak sentitu zituen berriro ere balkoian: haize gordina zen munduari erasotzen. Argitzen ari zuen.

Baina maitasuna han zegoen, lau begi izutu inoizko labarraren ertzean, ordura artekorik ge-

rokoaren hegian. Behar zuen etorkizunak ekar ziezaiokeena, nolanahi izanik ere. Herren bizi beharko zuen bizirik irautekotan, eta bazekien.

Begiak bildu zituen, bestearen eskuak soraiotasunez noiz ukitu zain, gutun harekin berak ireki zuen sakaila osa zekion. Denbora luzatzen sentitu zuen. Arnasarik gabeko urratsak geltokiko sabai metalikoaren pean. Hitzik egin gabe pausatuko zizkion erkainak masail gainetan. Eta eskertu zion eman hura. Azala zuen ulertzen, mingarri lituzke arrazoiak.

Kaferik gabe zegoen. Jaiki eta ia desegin gabeko estalkiez jantzi zuen ohea. Orriak alfonbra gainean ikusteak behartu zuen aldauri arrotzean berriro barneratzera. Ez du gogoan non utzi zuen A. izenez hasieran ez bezala orain txerazko irribarrea sorrarazten dion itzal luzea. Azken batean, hori zuen lanbide; inoiz gertatuko ez den istorio bat norberaren egin eta zirrararen gozora gerturatzea. Ahantzi denetik eskuz eskuko fikzio polit bat bilakatzea. Maitasun oro legez kanpoko dela sinestera. Igartuanera jaitsi beharko zuen gosaltzera. Orriak eskuan hartu eta atzekoz aurrera pasatu zituen irakurritakoak ostera ere

azalean sartu aurretik. Zer bestela. Nekeak ez dio lorik egiten utziko, seguru dago.

– Hik uste baino gehiago.

Arronak zein ezagutuko ote zuen hain lasai botatzeko. Zein telebisio elurtu baten aurrean esnatu eta kaferik ezean kalera jaisten dena, herri haren oldar nahientzat ezer izango ez zen folio mekanografiatuak besapean. Ez zekien arrandia zen ala bestek hartzen ez zekiten norberarekiko ironia mina. Hotz egiten zuen eta gaua joana zen leihotik.

Butanoa garraiatzen harrapatu zuen estufarako. Kendu berri zion emazteari esku artetik, honen purrustaden artean.

– Ez duk giro.

Ez zion igarri zertaz ari zitzaion. Haizemina bazebilen ere, ederra zetorren aurreko egunen aldean. Emaztearekikoan hizpiderik ez ematen asmatuko zuela erabaki zuen. Igartua bera izan zen aukerarik eman ez ziona. Bonbona estufa barruan sartu eta isiotzeke itzuri zen, harrapatu ez zion hitzen bat zuela hortz artean.

– Karmen, emazkidazu pospoloak –eskatu zion Julenek.

Arturratuarekin batera lanean hastearen errea zela esan nahiko lioke, urteen kedarra geure barnearen hondoan, paper zahar eta ustelez betetako leihorik gabeko biltegi handi bat bezala, estaltzen gero eta gaitzago. Ohartu gabetan ikasten den silikosia. Barrapeko zerrauts zapaldugabera bota zuen mistoa sare zulotik atera orduko. Kukubilko jarraitu zuen, gar urdinak panela nola hartzen zuen begira.

– Goiz zabiltza larunbata izateko –esango zion emakumeak bere ondoan–. Ohetik erori al gara?

Barizeak zituen hanka bietan. Ezagun zuen eseri gabe ematen zuela iluntze artekoa.

– Arratoiak ditut tailerrean.

– Almortzatzera etorriko zinen bada?

Irrimaite ederrekoa zen. Begiez hitz egiten zuen. Horrelaxe zion esana Igartuari elkarrekikoak aireratutako azkenean.

– Hi adarrean ari haiz.

Estufa saihestu eta mahaietara jo zuen, ez zegoen jardunerako. Marmol horituaren gainean zabaldu zuen egunkaria. Bazekien hura zitekeela behin eta berriro botako zioten galdera-amuei

zien ihesbide bakarra, uste ez duen arren ahotan ibili behar bazuten ere. Ekingo ahal zioten elkarrekin, oles egin nahi du. Ez zegoen inorentzat gosaldu aurretik, familiatik zetorkion barra.

– Arratoiak orduan.

Tximiniako keak legez egin zuen katilutik gora. Hil ala biziko usadio zuten kafesne beroegiarena, beltzarena bezainbat. Ezpain mintzetara eraman zuen, beti egin ohi zuen hozten utzi aurretik.

– Botilak beharko nituzke. Txikitzeko ditut.

Arean, prestatuak izango zituen amaitzen zuenerako. Kaferako kikera ahuspeztuak barrara ekartzen zegoen senarrari begiratu gabe egin zuen botilak sukalde ondoko biltegitik atera eta zerrategiko zakuan biltzearena. Atea ireki zuten bere atzean, bi ahotsen marmarra heldu zitzaion, tonu motelean berdinduak. Burua goratuz itzuli zien egunona. Kanpotarrak. Beltzuriz ikusi du Igartua eskuak zapi latzean igurtzika begi ertzetik.

– Beteak hobe hituzke! –ez du jakin zeren, baina zerbaiten nahian bota dio Igartuak.

Zor zion soa eta konplizitatezko irribarre bat. Karmenek hartuko zion tokia senar oilartuari sartu berriei bere erdara txikian zerbitzatzeko. Platertxoaren gainean zeukan esnezko bolloa eskuz erdibitu eta kafesnetan busti zuen. Hezurrezko gorputz iharra da Igartua sukaldeko gortinapean ostentzen.

Gero, atezuan zegoela esango zukeen berak, emazteak prestaturiko zakukada bebarruko ezkutuan eman zionean. Askoz lehenagotik igarria zion zerbait ziola esateko, botilak eskura eman eta aterakoa egin baino lehenago zoli argitu ziona.

– Hemen egon duk –ozta-ozta entzun zion.

– Nor gero?

– Hire laguna. Zubillaga.

Harridura hazpegi exageratua zuen Azkuek, bekain beltzak zubituta eta musua luze. Zapata orpoarekin bultzatu zion ateari, erabat hesteko adinako indarrik gabe.

– Zubillaga? Ez duk Zubeldia izango?

– Donostiakoa edo nongoa da barren, autobus horretan tokatu zaiok Karmeni behin baino gehiagotan behintzat. Beti trajez dabilen gizon

handi bat –belarri ertzera ari zitzaiola ahaztu bezala eta ozenago ari zen Igartua, ezkerreko eskua buru gainean gora eta behera.

Merezi ez duen lana iritzi zion beti trajez ikusi izan duen gizon handiarekikoak azaltzen hastea. Lagun izateari buruzkoa, korapilo gaiztoko harilean ibiltzea litzateke; hitzak neurtzen beste horrelakorik ezagutzen ez duen bati harekin ikusi duelako ez duela lagun, lepabueltan sokabilurra ezarri nahi dion zentsorea baizik azaltzekotan egon da. Ostean, zainak eman zion, Igartuak badaki hainbeste, horrexegatik bota dio hain gaizto. Jolasean ari da, berak susmo duenari zer gehi diezaiokeen. Eskertu beharreko aldeko begiak dira Igartuarenak, jaio zaio Azkueri, hormetan dituen boxeolarien adinako defentsa oneko.

– Atzo bazkalondoko kontua duk. Higatik galdegin zian.

Bebarrutik tabernarako atea irekitzen entzun zuen. Kanpokoa zabaltzeak berarekin dakarren korronteak utzi dio begietara egurrezko barra. Topolinoak hutsik. Joan dira, esan du berekiko. Eta Igartuaren ukondoa erruki gabe nogalina emandako ateari bultzatzen. Denbora luzeago

egin dadin egon da, azalpenen gose gelditu diren begi kristalduen menpe.

– Eskerrik asko, Martin.

–7–

Arnasa lo dagoenarena zuen, eta luze jarri zitzaion begira, inoiz elkarren ondoan esnatu izan ez balira bezala. Hurreratu eta putz egin zion aurpegira, horrelakoetan baino egin izan ez dion emetasunez, iratzartuta nahi zuen ikusi. Nola zabaltzen zituen begi biak, iragan hurbilaren oroimena ekarri gogora eta irribarre tristea egiten. Baina lo jarraitu zuen eta lasai egin zezan utzi zion.

Hiria sentitu zuen bizirik ohetik jaiki gabe, eta guztiz zarratzea ahaztutako pertsianen artetik sartzen zen argiak goiza aurrera zihoala adierazi zion. Errauts zaharraren usaina hartu zuen, Inesen aldeko hautsontzitik zetorkiona. Bata bestearen atzetik erre zituela gogoratu du, orain kristalezko azpiaren kontra zapuztuta zeuden hirurak eta loak hartuak usaimena galtzen ote duen otu zaio. Baina han zuen elkarrekikoa ezinezkoa zela esan zionean, bera ere maiz gogora malkotan etortzen zaion aurpegi zabala, are azal

beltzagoko loero geldoan, errautsetatik gordea begiak itxita dituen bitartean bederik.

Atzamar makalez laztandu zion masaila eta leihorantz hurbildu zen. Zenbat izango ote ziren gela hartan bertan elkarri betirako agurra emango ziotenak, kalerantz egin du so. Bestea noiz esnatuko leiho hartatik bertatik jende bera, zubi bera, eguerdi aurretiko itzalaz ur garbietara etzana, beti arrangurazko itxaronaldi batekin lotuko dituen katedraleko dorre berberak ikusiko zituztenak. Haiek ere gaixorik nahi ditu, gaitzak hartuak harrizko zuztarretan. Besterentzat ere nahi duen ikasgaia du, ezer ez da betirako. Izozten zituen oinak. Leihopeko berogailura eraman zuen eskua eta itzalita zegoela ohartu zen. Kontuz sartu zen ohean, inoiz gehiago loa zainduko ez zion emakume haren alboan. Ez zuen esnatuko, haren ondoan egongo zen azkenean heldu den egunak eskaintzen zien argi guztia gelan sartu eta besoaz gerritik gora inguratuko zuen arte. Eta gizonak eskertuko zion gorrotorako aukerarik eman ez izana. Baina bazekien bigarrengorik gabekoa zena zihoakiona, eri izango zela oroiminera kondenatu nahi ez luketen sentsazio-

aren ostean. Betetzen antzeman zuen bere burua, dar-dar egin zion ezpainak. Argiak manta loretuaren gainetik zuen eskua berotzen zion. Hau da norbait betirako galtzea, pentsatu zuen.

Mugitzen sentitu zuen, maindire zimurgabeetan igurtzi zuen aurpegia emakumeak eskuarekin aho gainera jausten zitzaizkion ileak atzeratu aurretik. Emaro zetorren lotorditik. Geroa ikusi uste izan dio ezpain mamietan. Inoiz baino onduagoak zituen, iratzartu eta batera maspilduko zaizkionak.

– Zuk ez nauzu ni maite, zuk Antton maite duzu.

Leba-leba zetorren gauerdia ordurako. Komunera joana zela bota ziola du gogoan. Eta isiltasuna gero, abantada bizian gidatutako auto baten motorraren burrunba kaleko hotzetan, sabaiko argi ahulak elkarren artean nahasten zituen gelako itzalak. Kanpai hotsak entzun zituen, lehenengoz hirira heldu zenetik. Eta isiltasuna berriro ere. Bizkortu egin zitzaizkion taupadak. Emakumearen adatsa imajinatu zuen, luzea haren adinekoen aldean, agian limurtzen hasiak diren bi begi handiek laztandua. Indarrez orraz-

tuko zuen egunez bildua zerabilena, teilatuak ekarritako urak legez esku artetik ihes egin ez dakion.

Inork ez daki zer den maite duzuna hildako batekin konpartitzea. Berekiko esan du, min handiago emango ziokeen jarraitu izan balu. Eta isilean gelditu da, zirrikituan irekitako bainugelako atera begira. Zepiloaren bidea egin du Julenek, korapiloak egiten zaizkio muturretan.

Emakume ederra zen anaiarentzat, Anttonek ere horrelaxe entzun behar izan zuen. Eta hura bezala sumindu egiten da bera ere inoren ahotan ateratzen den bakoitzean. Zeloak, entzun behar izan dio Arronari, ezkutuko ibilaldiak norbaiti ere aitortu egin behar-eta. Zoriontsu egin zuen anaia Inesek, bera egin duena baino gehiago hagitz. Hala nahi izan du besterena, berarena ezinezko izanda. Ez da bera zoriontsu egingo duenik. Lainoz akribilatutako bihotza zuen, jaiotzetik zekien. Tristuraz hiltzen diren horietakoa.

Bigarrenez izan du ezpainak bereen parean jarri eta haize epelez esnarazteko tentazioa, eguerdia jo arteko loa izango du bestela. Hamabietarako utzi beharra dago gela, bere alde du

erlojua. Urduria du lehen aldean arnasa Inesek. Zer ote dabil buruan esnatzera doan batek?, eguzkia bere eskutik ihesi, beste gorputzaren xerka abiatua da. Bizkorrago hartuko du arnasa. Atzera bota dizkio berriro ere aurpegi gainera eroriak dituen ileak, beltzak eta indartsuak, dantzari zingaro batenak bezalakoak. Damu du Anttonena aipatu izana. Beranduegi da ordea atzerakorik egiteko, presakako barkamen eske batek ez eritu, hil egingo luke berak mami irekiak bilatu eta emakumeak masailak eskainiko dizkionean. Horrela imajinatu du agurra, musu bazter-tu bat, gerorako aiherraren mugan Inesek. Laster du begietan argia, beltz zabalduko ditu eta ilun: kartzela eder bi.

Begietarako bidea egin zioten lainoek. Ez zuen inoiz horrelakorik sentitu emakume batengatik, baina bazekien maitasuna behar zuela. Hori zen anaia bigarren enboliak eraman eta emakumeak etxekoekikoak hautsi ez eta gero eta hurbilagoko gogo zuenean sentitzen hasi zena. Arnasak neurtze nahia, ihesiko bilakatuko zuen bakardadeko emana, heriotzak eramandakoen eta bizirik zirauten guztien gainetik.

Haserretu egin zen bere buruarekin, gaiztotu odola. Elkarri minik ez egitekotan zen Inesekin, hala da, berez ahitu den zer edo zeren azkena zuten, klandestinitatera behartutako amodio baten agurra. Baina bazekien maite zuena orain-dik. Zora Volley lurrera erortzen ikusi zuen gaueko gutuna etorri zitzaion, elkarrekin emandako hilabeteen zaparrada gero. Ikaratu egin zen irudiekin. Biktimaren harrotasunez itxaron izan zion komuneko argia itzali eta ohe ertzean eseri zitzaion arte. Gozo egin zuten oin bustiek moketa higatuaren gainean. Zigarroa piztu zuen, eta txiskeroaren hotsarekin egin zuen haren aldera. Zotinka sentitu zuenean baino ez zion pasatu eskua kamisoi barrenetik. Hitzik gabeko barkamen eskea zuen Inesek Julenen hatz dudatiak bere bizkarrezurrean behera. Eta hala ulertu zion. Bota orduko zabal egin zen kea; adar belunen pisuz makurrarazitako artea zirudien. Horrek behar zuen maitasunaren hondarra.

Hildako batekin konpartitzea. Askotan darabilen kontua da Antton eta biekikoa, bera bezala odolak abandonatua hura ere, bien gorria nahikoa ez maitasun bati eusteko. Ospitalera eraman

zuten lehendabiziko aldian egin zuen Inesekin ordura arteko egonaldirik luzeena, zedarririk jarri beharrik gabekoa.

Argi iragaziko gela hartan itzuli zuten bizira. Aitorpen gaitza du. Poliki hasi zitzaion odola zainez zain, gero eta eman oparoagoko egin zitzaion ondorengo asteetan. Betirako ahantziko zuela enbolia alu hark sinetsarazi nahi zuen, biok ere behartu gintuen gezur eder hura esatera, bere kasa ari da Julen. Pentsatu du nola alboan duen emakumeak bizitza emateko beste maitasun eman zion anaiari, baina ez dagoela odolari aurre egiterik. Gantzak ez zituen inoiz ere zain haiek utziko, eta horregatik deritzo krudela gutuna bidali eta ez aste askotara ez zutela gehiago elkar ikusi behar esan zionean emandako berriari. Eta ulertu zuen, bazekien bazela besterik distantziak emandako denboran, eta gertu zegoen betirako galtzeko. Ines entzun zuen besoak gorputzaren parean luzatzen. Irribarre itunik ere sorrarazi izan dio inoiz. Senarra sendatu ezin eta mediku batekin ezkondu.

Egunonak eman dizkioten begi erdi itxiek ekarri dute emakumearen aldamenera.

– Bai zeuri ere –haiei eutsi nahian erantzun zion Julenek, bizkarra oheburuan.

– Zer ordu dugu? –zuzen zegoen Julen: tristeak.

Berandu zutela adierazi zion, eta mahaitxoan utzitako erlojua eskumuturrean lotzen ikusi zuen Inesek ordurik eman ziezaion gabe. Argi ezusteko hark estaltzen zuen ohea, gela ez zen lehenbailehen abandonatu beharreko bunker erasotua baino.

Gehiegi ez urruntzea erabaki zuten, apirileko goiz eguzkitsuak alde zaharrerako tentazioa ematen bazuen ere. Hotelaren parking ondoko terrazan eseri ziren, espaloitik eta trafikotik ezkutuan. Han zuen ordu batzuk lehenago goragotik ikusi duen harrizko zubia, itzalik gabea orain ihi iharreko ugaranaren gainean. Eguzkitarako betaurrekoak atera zituen Inesek. Arrotzagoa egin zitzaion aurpegi hura.

– Iluntzerako egon behar dut etxean.

Luzatzeko asmoz elkarrekin bazkaltzea proposatzera zihoanean moztu dio Inesek. Ihi artera erreparatu du, zozoak direla esango luke. Beha dago Ines ere, ez hegi hezera ordea, karrikak ka-

mioarekin bat egiten duen bihurgunean dagoen semaforora baizik. Militarren kamioi bat, fusilak eskutik askatu gabe elkarri kolpeka dabiltzan soldaduak toldopean. Beldurtu egin da ez ote dituen begi haiek ezinbesteko uneraino bere egingo. Argiak piztuta zeramatzan, aurreko horman jo dutenean ohartu da.

– Eta Jabier?

Urrunerako begirada etetearren itaundu dio, ez dute semearen gaineko hitzik egiten.

– Han segituko du, zure arrebarenean. Inprimategian lanik bada behintzat.

Baietza ematen entzun dio erantzuntzat Inesek, gustura dagoela berarekin. Egia osoa ez esaten ez dago bekaturik, eta alferrikakoa iruditu zaio mutilak zerbait badakien susmoa duena gaztigu ematea. Zigarroa pizten ikusi du Julenek, dardararik gabeko atzamar artean hartu duenean egin dio eskumuturrean behera pultserak. Gezurra da, egun argiz gauzak ez dira gauez baino epelago ikusten.

Zigarroa nola erretzen den, espaloiko hexagono txiki grisetara erortzen den errautsa du erloju orain. Gero, hautsa ez eze zigarrokin gorria

ikusi duenean biribilka espaloitik erreten lehorrera jausten, erretzen ikusiko dion azkena dela jabetu da.

– Gezurra bada ere, esadazu maite nauzula –esan zuen Julenek. Johnny Guitar-ez oroitu zen. Vienna baietz esaten.

Astiro jaikitzen ikusi zuen, mahai gainean zituen funda eta tabako paketea jaso eta eskuan hartu zituen betaurreko beltzak. Biluzi zituen begiak, ausartak.

– Maite zaitut. Adio, Julen.

Inoiz ikusi gabeko emakume bat izan daiteke auto hutsen artetik doana, ibilera seguruko, berearen bila doala aditzera ematen duten giltzak eskuan. Desagertzen ikusi du, kolpez itxitako ate bat eta lehenengoan arrankatu duen motorra. Ez zuen han ikusi behar, atariko mahaietarako zerbitzaririk ez zegoela adierazi zion barrenera zihoan gizon heldu batek zutitzen ikusi duen orduko. Erakusleihoko botilen artetik egon da zelatan, makal ekarri du autoa jenderik gabeko mahaietaraino, leihatila beheratu du bidegurutzera heldu denean. Orduan ikusi ditu. Zatar dator zerua horma itzaltsuaren gainetik.

Hodeien aldera jo du errepidea erdibitzen zuen lorategia atzean utzita. Behera egiten du zubi berriko bihurguneak, adreiluzko dorrearen aurrera irten duen arte. Bestaldetik pasatu den arren, begira-begira eduki ditu ateko soldaduak burdina beltzeko atetik. Matrikulaz ohartu da. Han, armada-buruen bizileku zirudien auzunean zeuden gerora bertan ere ezagutuko dituen publizitate hesiak, paperezko lauki atalez eginak. Zorion beteko aurpegi irribarretsuak erakusten zituzten, erretzen, edaten edo josteko makinak erabiltzen.

Txikiagoak ziren etxeak orain. Behin gainera helduta, zelai-zelaian dago eta lasaiagoa egin da auto eta kamioien joan-etorria. Ispilutik, goibeltzen eta gabetzen doan orbaina da hiria muinoaren gibelean. Zuzen egiten zuen bideak, lursail malguberriek lagundu zioten parkingeko emakumearen irudia buruan izan zuen bitartean. Bakandu eta gorritu egiten ziren etxeak orain. Mercedes batek aurreratu zuen, eta bere atzetik joaten saiatu zen tarte luze batean, haren argi gorriak pizten zirenean bakarrik sakatuz galgari, haltz luze batzuen hostopean bolantearen dar-

darak makaltzera behartu zuen arte. Gelditzekoa egin zuen, lotugabeko animalia bat igarri zuen bere barnean. Zeruak gero eta tarratada handiagoak zituen zenbat eta Pancorbora gehiago hurbildu. Gorriagoak dirudite harkaitz gordinek aitzinean. Arras biziagoak haranzkoan baino. Esan lezake; izpiak amatatzen gordeko ditu.

Depositukoak ahitu artean jarraitu zuen. Begiratzen zuen lekura begiratu, garagarraren berdeak betetzen zizkion begiak. Herririk gabeko hilerri baten ondoko gasolindegian geratu zen.

– Betea –esan zuen.

Apitean zegoen kanposantua, sastrakak jana bidezidorra. Nolanahi izanik ere, bernak urratu behar norbait ikustekotan. Hildakoek ere urte asko harrapatuko ditiztek hemen. Zapata hautsiak ikusi zituen gomazko mangaren muturra autoaren kapoteko ahotik ateratzen.

– Konferentzia baterako?

Aurrerago aurkituko zuen restaurantera bidali zuen. Berrehun metro. Hala ulertu uste izan zion. Lastoz zamatutako kamioi bat iragan eta izpizko lanbroa egin zuen bera eta behin errepidearen bestaldean zabalagoa agertzen zitzaion

bailararen erdian. Lore zuriko arbola bat besterik ez. Korapilo lodiko unama zintzilik adar nagusitik, ohol zatia muturrean. Zinbili-zanbulu hautsia zirudien.

Oinez egin zuen, errepidean zabaldutako galipot eman berria zoletan itsasten zitzaionean bazterreko lur zapalduan arrastatuz kentzen ikusi zuen gasolindegikoak. Euskaldunak konpontzeko utzi zion gurpil zulatua gometatik askatu eta esku bakarraz atera zuen auto aurretik. Maleta gutxi biajantea izateko, etorri zaio.

– On egin.

Tarta anoari ertz erreak kentzen ari zenak bakarrik ez zion erantzun, ate alboko mahaira eserita zeudenekin etxeko zakurrari etsia eman ziotela-eta nola akabatu zuen adierazten gogoa hartuta. Sukalde ondo-ondoko zokora eraman zuen nagusia zirudienak galdetu bezala Donostiarako deia zuela adierazi ondoren. Paretan egindako ziskuan zegoen esekia telefonoa, plastikozko arrosa haustu batzuen azpian.

Larruzko kartera estutik atera duen paper muturrean jarritako zenbakira deitzen iruditu

zaio nagusiari. Blaituak zituen galtzarbeak. Gidatzen etorri da.

– Agustinekin mesedez?

Urruti entzun du telefonoa berehala hartu duen emakumearen ahotsa. Ozenago egin gabe ea ondo ulertzen dion proba egite aldera errepikatu dio, izena bakarrik oraingoan. Bazkaltzera joan aurretik harrapatu du. Erlojuari so egin eta baretu egin da.

Emakumearenak baino garbiago egin du Huitzirenak eta orduan baino ez da jabetu ahotsaren azpian entzun uste izan duen idazmakinaz. Lehendabiziko aldia da telefono horretara deitzen diona, baina beti egon da goganbehartuta bulegoren bat behar zuela izan.

– Non sartu haiz? Bazter guztiak harrotzen eman diat goiza –alatu zitzaion.

– Tailerrerako bidean –erantzun zuen Julenek. Nahikoa zuen heltzeko oraindik beharko zuela adierazteko.

– Emadak horko numeroa. Neuk deituko diat.

Bridatua igarri zion mihia. Telefono beltzak erroberaren erdian boligrafoz idatzia zuen zenbakia eman zion.

– Bederatzi lau zazpi –gehitu zuen esandakoa idatzi zuela nabaritu zionean.

Denbora behar izan zuen.

– Jakin al daiteke zer puta egiten duan Burgosen?

Eteten entzungo du Huitzik, pisurik gabeko hari baten eroriak adina iraun duen metal hotsa. Mahaira egin du, telefonoraino lagundu dion gizon ile urdina ohartarazi gogoz.

– Ez zen ondo entzuten eta handik deituko dit. Hemengo telefonoa eman diot –esate aldera esan diola iruditu zaio.

Irribarreak zer egiten zuen bost inportatuta ere, albait arinen zertzeko esaten zion. Zergatik esan du dit? Emakume bategatik ari zela ulertuko zuen. Mahaira bildutakoen inguruan segitu du, hamabiko handiaren begiak zakur zahartuaren zurituei so, nagusitzat hartu duena barra atzean sartu eta jerez bat eskatzeko aprobetxatuta.

Luzesten hasia zegoenean jo zuen. Mahaikoek jabeari hoska entzun dituenerako zeukan eskuan.

– Julen –entzun zuen. Ez zen telefono bera–. Irakurri al duk? Konposaketak egin eta aurrera.

Bertan egon balitz bezala heltzen zitzaion orain. Idazmakinatik urrun imajinatu zuen. Telefono publiko bat beharbada.

– Eta zentsurara aurkeztu beharko da bada?

– Ez orain eta ez inprimatu ostekora. Galbahetik pasatu gabe bota behar genikek.

Bi izen eman dizkio sukaldetik plater betez irten duen neskari barrenekoak. Nahita gelditu zaio isilik, amu du, harrotasun punttu bat, adostasuna adieraziko dion geldiunea, eta dago hark ekin beharko diola berriro ere, babesik baldin bada.

– Hik bota. Gure kontu.

– Konforme.

– Azken gauza bat. Ez iezadak telefono horretara berriro deitu. Neuk bilatuko haut.

Lotu gabeko harien gainean segitu gogo du, hasieran emandako epeen bete ezinaz konbentzitu, eta ezinago premiazko deritzo elkarrekin egoteari, are beharrezkoago alderdiaren babesa duela jakinda.

– Ba al dakizu tipo horrek ondo idazten duela?

Zalantzatan geratu da esekitzen lehena bera izan dela jabetu denean. Ezagutzen zuenagatik, ez besterik, estiloa du faltan Huitzik. Santoñan entregatua izanak baino egiten ez duena barkagarri. Duesoko amildegia aurreko hondar muinoei harrotuta. Gau gehiegi. Lan behartuak. Aragoiko errepideak. Ez daki. Errukia da akaso.

–8–

Erabat galdua zuen gogoa makinaren hotsean igarri zionean lanak izango zituela orri guztiak etenik gerta gabe inprimatzeko. Bata bestearen gainean pilatzen zihoazkion orrietara itzuli zen eta tintaren tonua konprobatu. Atera egin zuen bat, erditik tolestu gabe kolore desberdinez egindako espatulak gordetzen zituen metalezko kutxaren ondoan zabaldu zuen. Bere buru gainean sentitu zuen zaparradaren erasoa. Bala jitea hartu zien uralitazko gaina kolpatzen ari ziren tantei, lokomotoraren azala jo eta trenbideko harri artera zipriztinetan jausten ziren haiek bezalako tarrapatan. Ordura arte ez bezala entzun zuen teilatu erretenetik kainuan behera ihesi zihoan jarioa. Orri bikoitzaren goiko erpinetan ezarri zituen erpuruak. Hatzek marka utzi zuten. Ordu bi bai Jabierrek etxerakoa hartu zuela, non egongo den asmatzen zail egiten ez bazaio ere. Linotipia garbitzen utzi du honek, molde akastuaz ulertu ez dion zerbait bota dio azkena, kalerako gertu zegoela. Ilobak atea itxi

duenean baino ez dio ekin Julen Azkuek plantxak karroan muntatu eta bobinei tinta emateari. Aldatu egin du haizeak. Atezuan zegoen iluntzeak ekarri du euria berarekin.

Batere gustatu ez zaion krakatekoa atera du berriro ere makinak, ez da fio papera ondo hartuko ote dion. Orriak ondo jartzera egin aurretik, eta bere buruaren gainean bulartzen ari diren uretan belarria, hatz belztuek lotzen duten orriari bota dio begirada.

Pentsatu du A. bera nahikoa izanik istorioak aurrera egiteko zergatik behar izan dituen egileak beste guztiak, oldarrari enbarazu eginez, iragana gorputz batean sartzen ez dela egiaztatu nahirik bezala, mingostasuna ez al den azken batean bakarrarena, ororena izanik ere. Ahul du burua, ezgauza osotasunari urratu gabe eusteko. Ez ditu istorioaren hari nagusi bat edo beste baino gogoratzen, baina argitaratzeko modukoa iruditu zaio, Huitziri honela aitortu ez dion arren, berari ere.

Askozaz ere indargeago jotzen zuten orain, jostorratzak likidoak, xirriparen agortu ezina gainezka egiten hastear egongo zen estolderia-

rantz. Edonola ere, azken plantxak zituen. Hondatu gabe iraungo zuen gau hartakoagatik orriak metatik altxatu eta inpresio-zirrikituan sartzen zituen murtxadurei doi eusten zien beso mekanikoak.

Zertaz hitz egiten zuen orduan A.k bere erbesteko lagunekin itzultzeaz ez bazen? Huitzik, edo goragokoren batek –nor baina gorago?–, helaraziko ziola zegoen lekuan zegoela antzerako itaunik egileari, ikusi egiten du. Hormak egiten dituen irudietan erreparatu eta begiak itxi zituen. Espero zuena baino lehenago amaituko zuen.

Bulegora igo zen makinak berea egiten zuen bitartean. Bere burua neurtze aldera egin ohi zuen Burgoskotik, telefonoarekin buruz buru jarri eta deituko ez deituko aritu, zelan dabilen galdetu eta zorionak emateko, jakinaren gainean gauerdi osteko orduak berak egingo lukeela errukarriago, indartsuago deitzailea hartzailea baino. Oratzeke pausatu du eskua telefonoaren gainean. Hartu eta hiru zenbaki markatu ditu. Inesen atzamarrek marrazki ikusezinak egiten zituzten saihetsen gainean. Beste bi geroago. Zer-

gatik ez didazu esaten maite nauzula? Begi beltz haiek entzun nahi ez lukeen zerbait ostentzen zuten. Utzi egin du.

Anttoni ikusi izaten zion bezalaxe zabaldu du kajoia originalen karpeta ateratzeko. Azpi-azpikoa utzi du mahai gainean, azalean izenik gabeko azula, korapilodun gomaz lotua. Hura esku artean zuela agertu zitzaion Inesi agurrekoan, *atera beharrekoa da, Ines,* kontatuko Huelgasetik hotelera ibai ondoko platanondopetik zihoazelarik, eta memoria historikoari buruzko esaldi orain serioegiren bat gehitu ziola etorri zaio. Huitzirekin erabili izan zuen kode bera. Alferrik, memoriak, ezkutuan eginaren plazerak, ez zuen maitasunik, ez eman ez batzen.

– Lotara ere joan beharko diagu bada?

Bere ardatzean egin zion bira bihotzak, horren exageratu esango dio faktorrari entzun eta batera Zubeldiaren irribarrea identifikatu zuela bulegoko ate ostean. Zaparradak harrapatu zuela aditzera ematen zuen gabardina melatua eranzten zuen bitartean egin zuen atzerantz Azkuek: atea barrutik giltzatzea ahaztu zitzaion iloba irten ondoren. Han zuen ordaina, gabardi-

na esekitzen zebilen aitzakiarekin azalpenik eman ez diolarik gero eta amarratzen gaitzagoa egiten ari zaion herioa. Liburuaz ohartu zen, makina azken plamuak inprimatzen behean. Orain biak aurrez aurre zeuden bulegorako bidean, gordean auskalo zenbat denboran Zubeldiaren begi gosetuena baino izan ez dena. Loratuak ikusi zizkion eta zabala irria.

– Afari bat izan diagu hemen ondoan eta lagun zaharrak zer moduz dabiltzan ikustera.

Berbak gozoak ziren baina uhala eskuan duenarena mintzoa. Elkarri begira zeuden orain, eta Juleni, hilabeteak buruz buru ez zeudela, denbora gutxian oso zahartu zela begitandu zitzaion. Bestea hitz egitera ez bultzatzeko moduan formulatu zituen perpausak ordura arte Zubeldiak. Aurrea hartzea erabaki zuen.

– Berandu ere baduk lanean aritzeko –jarraitu zuen hitzei doi-doiko sastada jarriz.

Isiltasunak makinaren beso mekanikoaren krakateko berria ekarri zien. Handik beharbada. Arronarekin izan zuen elkarrizketaz oroitu zen, bigarrena zuen denbora gutxian hitza neurtzera

egiten zuela. Behartuta zegoen bereak mugitzera.

– Makina. Ez dabilkit oso santu eta froga batzuk egiten.

Galdua zuen partida. Ez zuen aitzakiarik onena, okerretik hartu zuen. Harrotasun handiagoz ekin behar agian. Bazekien beste bi, hiru, lau aldiz mugituta ere ezin izango zuela Zubeldiaren begiztatik askatu. Azpitik zeukan. Azken batean, zer segi ala ez, momentuko erantzun egokiak ez zuen ezertan mudatuko zetorkiona. Edizio guztiaren sekuestroa eta –presakako irudimenaren eskasa, adibide begetal sinpleegia– zapata zolaz deserrotutako ernamuina. A.ren izua. Hogeita hamar urte geroago, pertsegitu egiten zuten.

– Froga onak horregatik.

Harri ustel baten itxura hartu du Azkueren begietara gabardina poltsikotik mahai gainera atera duen orri zimurtuak. Esku guri zabaldua gainetik pasatuz leundu du. Garbi zegoen orain bien aitzinean ezein klandestinitatetan biluzik zeuden ahapaldiak irakurtzen eman zuela bulegora sartu aurretikoa, eta hartuko ziola bederen elkarrizketa bide bihurritik jarraitu ahal izateko

besteko arnasa. Patrika zuloan araka segitu zuen harik eta beste bi plegu atera zituen arte. Nekatuarena egiten harrapatu zuen etorri berriak. Hala ere, ez zirudien otoizle mintzatuko zitzaionik. Gehiago estutzera egin zuen. Ahoa neurri zuen:

– Ez didak esango ezkutu-lanetara itzuli haizenik –berbak irensten balego bezala entzun dio Azkuek.

– Ezkutatzeko gutxi dago hemen.

Algara eder batean lehertu zen Zubeldiaren irribarrea, Azkuek espero zuena baino zuriagoa askozaz ere. Tabakoak belztutako hortzak erakusten zizkion, gero eta ozenago egiten du zentsoreak, eta Julen ziur da beraren eztarriaren alutik ateratzen den tonua erreparatzen ari dela, gogoko duela hotsaren koloreak neurtzea, bolumenak gorago nola egiten duen kontrolatzea. Kristalezkoa du begirada, horasta aurpegia, amorruak jotakoak legez lotzen zaizkio eskuak aulkiari. Bere burua entzun gogo du, eta puntu. Aurki ekingo dio indar erakustaldia amaitzeari, itotzera erasotzen dion eztula eta Azkuek gero eta ubelago ikusten duen musualdeari. Ia ezpai-

nik gabeko mamien atzean gordetzen ikusi ditu erdoka beltzeko hortzak. Mahai gaineko orrialde zimurtuak jaso ditu begiak erakutsi aurretik.

– Lagundu egidak behera.

Eta hala eta guztiz ere, sentibera behar du orain bere aurretik, tailer jabea bera izan balitz bezala, makinetarako bidea erakusten ari zaion Zubeldia hau. Kultua bederik, idazlea ere baden partetik, aitortzen dio, hain maite zaizkion sukalde iruzkinaz gain folklore hutsetik haratagoko ipuinekin eta. Estropezu egin du azken aldeko eskaileretan eta mahuka muturretik eutsi behar izan dio Azkuek. Begi dirdaitsuek esker oneko berbarik eman gabe begiratu zioten. Lainotuagoa zuen ahotsa.

– Esan beharko didak bada nola amaitzen den A.ren kontu hau.

Haizeari botatako lanaren azken pleguak inprimatuak zituen makinak. Metatik goi-goikoa atera zuen Azkuek, alferrik zuen begietarik ezer itzaltzea, emana zion errematea bulegotik beherakoa egitea erabaki zuenean. Lehenago bestea utzia zuen toki berean zabaldu zuen. Euri orra-

tzen sastadak sentitu zituen berriro ere, emeago oraingoan.

– Orain arte euskaraz egin den nobelarik onena –gailendu zitzaion Azkue uralitazko tarrapatari.

Eta oraindik ere, urteak ere badira elkarren ezagutza dutena, ihes egiten dion pertzepzio heina da Zubeldiak euskaraz idatziriko testu orogatik duen ezagutze gogoa; gaixotasun larria dena literaturtasun saiorik denean tarteko, eta, hala uste du Azkuek, gaztelerazko testuak baloratzen dituzten zentsoreek eman ezin ziezaioketen neurria ematen ziona harrapako ez harrapako jolas baino joko hari. Euskal letra inprimatu guztia du kredo. Zubeldia puta honek, erantsi dio bere buruari zigarroa esku dardaratiaz ateratzen ikusten ari dela. Eta hortik du erraiei jaten ematen dien harrokeria ere hazten. Azken batean bera baita sinesmenaren idazle bakar.

Ia ahapeka eman duen ezetzaz erantzun dio Zubeldiaren eskaintzari. Ez daki zergatik, ez du bere bizitza guztian zigarro bakar bat fumatu. Erretzen hasteko garaian inprimategian hasia zelako agian, irribarrerik zurienarekin ikasi du

ezesten. Ohiturak, papera eta errautsaren azalpean gordetako pindarrak ez nahastearena bezalakoak. Inesek hoteleko hautsontzian utzitako bi zigarrokinen usaina berari deitzeko izan duen tentaldi bakoitzean gogoratzearena bezalakoak.

Argi zuria inpresioa amaitua zuen makinaren gainera amiltzen zen. Gosez irekita bezala irakurri zituen Zubeldiak ahoz goraz azken pleguko aurreneko lerroak. A.k bere buruaz hitz egiten zuen; Mar del Platako txurraskeria baten leihoetarik ozeano argiari begira Euskal Herriaz ari da gogoetan. Adjektiboak saldu dezan utzi gabe, sotil, sinesgarri, duin idatzia. Eskuak ez du salatu, hori bederen gogoratzen du, oraindik orain irakurria. Zubeldia geratu egin da. Buruaz ezetz diola, Julen Azkue orain harroagoari behatu dio. Uralitak ez du isiltasuna baino. Jarraitu egin du, ez hain altu orain. Eta horrela zaindu du, isilean, non A.k ez dela itzuliko dioen ahapaldira arte. Berariaz egin du. Mar del Plata eta *hura* –hau– erkatu gabe lotuz, beldur dela dio gorrotoa piztuko ote zaion. Eta aski gorrotatutakoa zela lehen ere. *Nahiago dut itzultzeari uko egitea arerioak anaitzakoak izan baino,* ez zehazki hori, baina antze-

rako zerbait ari da irakurtzen orain zaharra, jaio zaio Julen Azkueri segundoak bere baitarako neurtuz bestearena imajinatzen.

Makinak ahal izan zuen txisturik luzeena atera zuen. Zubeldiak, betaurrekoak eskuan dantzatuz, hitz egitera zihoala ohartarazi zion.

– Eta zergatik ez didak pasatu?

Makina itzaltzearen aitzakian mututasuna dela erantzuna jabetzen ari da Zubeldia.

– Nik uste nian horretarainoko konfiantza bagenuela elkarrekin.

Haizea askatzearen antzerako zarata atera zuen makina itzaliak. Zigarroa ezpainetatik zintzilik, aurpegia hartzen ari zitzaion susmoa hartu zion Azkuek. Ez zen bera izango hari lotuko zitzaiona. Nabarmenkiro urduritzen zetorkion Zubeldia, eta berak jarrai zezan utzi zion, argiaren gonape zuritik ate, ajuste giltza txikiaz joaz metalezko ontzia.

– Julen, gerra ia hogeita hamar urte amaitu zela. Baduk gauzak bere izenez deitzeko ordua.

Begi urdin oro da traidore Zubeldianetara.

– Zer esan nahi didazu, zer zaren niretzat?

– Ez diat hori esan.

– Damua. Gerra egitetik libratu izanaren damua dut.

Isiltasuna neurtzen zekienaren ustean zegoen, baina luzeegia egin zitzaion inondik ere Zubeldiaren erantzun ezean bere hitzek behartutako hura. Euria hasi zuen berriro ere. Aterpean egon ez balira bezala gordetzen zuten bestearen arnasa, zaparrada soinean, burutik beherako jarioan, lehenago pneumoniaz itoa bestearen hatsari amore eman baino.

Zubeldiak, errime, Azkueren sastakoak saihestu nahia azaltzeko, borondatezko keinua, arestian emandako galdera egin dio berriro ere, atzekoz aurrera baina.

– Nik uste nian horretarainoko konfiantza bagenuela elkarrekin. Zergatik ez didak pasatu?

– Bakoitza non gauden ahaztera egin behar dugula esan nahi duzu.

– Ni ez nagok hik uste duan lekuan. Egik gaur egunekoa ni gabe beste baten baietza edo ezetzaren menpe imajinatzera. Ez pentsa horregatik laurdenaren erdirik ere aterako zenuketenik.

Arronarekin gurutzatu zituen hitzak etorri zaizkio berriro ere. Ez zitekeen batekin lehen,

bestearekin gero egoera antzerako haiek gertatzea: begi neurtze haiek, hitza hiltzera, antxit egiteko zauria. Are gehiago, fusilatu sentsazio hura, eskuetatik ihes egindako zerbait, galdua, hondoratua, eta bakardade hura, Ines.

– Hik uste baino gehiago zor didazue.

Bakarrik zegoen. Ezpainak berehalako irribarre tristera okertu zitzaizkion: A.ren adiskidetasun irabazia salbu. Zertarako idatzi dena galdua bada? Hasierako ideiara bildu zitzaion gogoa, argitaratu beharra zegoen.

– Zer egitea pentsatzen duzu?

– Irakurri behintzat lehenengo.

Ezer esan gabe ikusi du eskaileran gora begietatik itzaltzen Zubeldiak. Bulegoko ate itxi ostean dabil, kristal matean ikusten dituen itzalengatik daki, mahai gaineko karpeta urdinera batzen folioak eta bere gabardina ahaztua pertxatik hartu eta besagainean tolesten. Argia itzali duenerako dator behera, ortots arinez makinetara, orain Zubeldiak lehengo plegu bera irakurtzen eta hatzaz lerroen erliebeari jarraitzen dion ondora.

– Kurioso atera zaik. Letra tipo onak zauzkak oraindik hire linotipia zahar horrek.

Hik pentsatuko duk inporta zaidala zer irizten dioan, bere baitarako marmarrean Azkuek. Karpeta zabaldu eta kalkoz idatziriko folioak ateratzen ikusi du Zubeldiak, eskuz egindako oharrak daramatzaten kuartillak laneko jakan gordetzen dituen bitartean. Idazlearenak? Huitzirenak? Inprimategiko teknikoak seguruenik. Proba egiteagatik ezer galtzen ez duenaren jardunaz, lakiotik tiratzen jarraitzea deliberatu zuen, Azkueren urduritasunak berak erakuts ziezaion ibili beharreko bidea.

– Ez al dizkidak ohar horiek utziko? Nobela hobeto ulertzeko laguntzeko badira...

Zurezko ohol baten kontra botatako iltzeen zarata antzeko batek erantzun zion. Elkarri begiratu zioten, kokotsa gora eta begiak berriro entzun gogo direnen arretaz. Seira arte zenbatu zuen Azkuek. Ezer ere ez. Zubeldiaren eskuei begiratu zien, hildako batenak bezain urdin eusten orriei, galduak honezkero afari lagunak. Berandu zen eta nekatuta zegoen, baina bazekien: ez zuen lorik egin ahal izango etxeratutakoan. Hila-

beteetako nekeak izan dezakeen pisu guztia biltzen zuten. Edo deus ez. Iltze hotsek berriro jo zuten porlan eta kristalezko orearen ertzetan, egur ur-handitua xerka nahian. Mintz urratuen batetik besterakoek irribarre burlosoa zabaldu zuten Zubeldiaren aho ezpaingabean.

– Goseak al dauzkak?

Orriek atzamar markak zituzten; horregatik eskatu izan ditu berak beti kopiak, jatorrizkoari egin dakizkiokeen kalteen gaineko ardurak ekiditearren. Ezagutzen ditu, idazleak eta. Lehendik nahikoa ez balu bezala. Zubeldiak azkazala gainetik pasatu eta tintak denbora daramala lehortuta diotso. Gutxika-gutxika hasieran, gero eta nabarmenago sentitu du arratoien lauoinka zentsorearen oroimenean.

– Inoiz ikusi al duk arratoi bat gizona jaten?

Julen Azkuek Zubeldia eta aurretik doakion laguntzailearen oinotsak entzuten ditu autoa errepidean utzita patarrean gora abiatu direlarik, almitza orkatilatik gora. Apirila da eta oskarbi, otadiak gain egiten duen pezoinetik begietara datozkie Bizkaiko mendi urdinak. Laguntzaileak masaileraino altxatuz luzatzen du besoa, hatza

luze: Intxortak, diotso. Hartuak. Baserriraino igotzen den pista bihurgune kiskaliaren gibelean galtzen da. Harantz begira, arnasaren beroa entzunez, Zubeldia artean gazteak hasitako zigarro bat isiotzen du. Eta orduan. Piztu eta bat izan huen esaten dizu orain begi handiak, gizon bat ote artean.

Soldadua zen eta ahozpez zegoen. Gudaria ala reketea zen desberdintzen jakingo zuela galdetzekotan egon bazen ere, entzuten jarraitzea erabaki du Azkuek. Laguna, pezoinetik ez hurbiltzeko zioela hurreratu zitzaiola, oilartu, gorpuak besoa agerian zuenera, armarik zuen bederik ikusteko. Gaztea baininduan eta gerran ikusten nuen lehen hildakoa, berritu du lehen esana Zubeldiak. Oteak iluntzen hasita zeuden eta Bizkaitik ez zen kerik ortzi gainera. Larbehien arran hotsak entzun zituen gibelean. Eskugainaz estali ditu sudur ziloak, egunak daramatza hilik. Eta ez. Norbaitek zuen kendua, eramana. Erdi ezkutuan egonagatik ere, ez zitekeen arma ebatsi zionak izan ezik beste inork ez ikustea. Zubeldiaren bota berriak, orain ote gaztea, orain almitza zapuzten. Larruzko uhal belurituak hutsik zuen pis-

tola zorroa. Oihu egin zion bide erakusleari, *ez zaukak!*

Hik ez dakik zer den esateko goratu du, begia lehertu beharrean, ahotsa ustekabean karrakatua orain Zubeldiak. Eta damu duala esaten duk? Disolbente potetara hurreratu eta paparraren kontra estutu ditu, besoak soinari lotuta, mailu halako esku handiak. Azkuek ez duela paperak biltzeko keinurik egin behar ulertu du. Oihu egin orduko atera zela arantza artetik, neramatzan boten adinakoa, ezkutuka behera egiteko, soldaduaren petik, Julen; nondik bestela arratoia zotz berdea jaten.

– Erraiak jaten ari zitzaioan!

Atonduta aurkitu zuen Zubeldiak karpeta, orri kalkatuak barnean. Irakurriko zuela eta aurki izango zuela bere iritziaren berri, gordetzeko inprimatua bitartean, ezkutuan, orain arte bezala. Eta ikusiko zutela zer egin, egoteko lasai.

Lehenbailehen alde egin zezan erregutuko zuen behin eta berriro bere baitarako Azkuek, baina kalera zabaltzen zen egurrezko atea ireki zionean ohartu zen bazela zerbait faltan egoera hartan, zer zen ondo ez bazekien ere. Ezin izan

zuen burutik kendu, nahita erretako bihurguneko baserritik aldendua, menditartua. Zubeldiak ez zuen afalduko gau hartan, eta ez hilagatik, gorpuak eta arratoiak osatzen zuten bat harengatik baino. Sinestea erabaki zuen, baina gaitz egiten zitzaion ikusten. Arratoi bat ote artean. Krudelegia asmakizuna izateko. Gorpu abandonatu bat, gizon hark behar zuen norbait izan aldamenean gaztigua emateko, harrotzeko, *ni izan naiz* esateko bada ere. Nork ebasten dio pipa hildako bati? Etengabea ari zuen oraindik. Biek behatu zuten gora. Teilatuetara gero Azkuek. Gogoko zituen bustiak, argi haien menpeko.

Ez zuen telefonoz deitzeko korajerik izan.

– Julen, konfiantzan, zer moduz idazten du honek? –esan zuen Zubeldiak karpeta urdina bere gorrian erakutsiz.

Zalantzarik ez, lorik egin gabeko hilabeteen zamak gauaren pisua hartzen zuen.

– Ez nazazu zoratu orain.

Zubeldiak zerbait darabil gabardinako poltsikoan duen eskuko atzamar artean; erpuruak biziagotzen dizkion laztasuna da, begetala eta hila, Azkueren begietara zumar baten gerri azal

zatia bezalakoa agertzen dena. Zergatik ez dakiela, aierukor bilakatu da berehalatik ahots likatsua:

– Isildu hadi, hik ez dakik zer den zoratuta egotea-eta!

Teilatuek zilartuak ziruditen argi haren pean. Zubeldiaren oinotsak espaloian aurrera galtzen entzun zituen, eta elkar agurtzen ziren bozak haiek gorde orduko. Berandu zen baina jendea zebilen artean kalean. Egin ez zuen telefono dei batez oroitu zen.

–9–

Geltoki-buruaren bulegotik bertatik ikusten du Julen Azkuek Arronaren gorputz segaila nasarako ate aurrean, honen presentziaz ohartzeke hau oraindik. Ordu laurden luzea darama, eta argia arretzen suma dezake trenbide gibeleko zuhaitz hosto-berrituetan; eguna luzatzen ari du. Oraindik jaberik igarri ez dion ahots zakarra entzun du, sartu orduko aurren etorri zaion bera, berriro ere Arronaren latz baino hebainari gain hartzen. Hitz bakanak, aihotzez ezpalduta heltzen zaion marruma. Ahaleginak egiten ditu aleturik dituen berben artekoak aurkitzen, esanahi berezirik gabeko hitzen arteko loturak eraikitzen, baina iluntzeak lana gaitzagoa bihurtzen diola dirudi. Ezer ez da berak espero zuen bezala atera. Ez du konturik egin beharrik: zortzi egun. Euria goi eta behe ari zuela, kasik ordura arte legez. Teilatu bustiak, begi kristalduak. Paper inprimatuaren testura Zubeldiaren erkainetan, hitzei bolumena eman nahian ausaz. Berben gorputza. Itzala. Hortzetan gozatuz bustiko

ditu ezpainak. Zuria ala beltza. Eta azken batean erantzunik ez ematea erabaki balu?

Azkue ilunpetan dago eseria, gorputza etzaten utzia, zangoak gurutzatuta eta luze. Ez du atarikoak ohartaraziko lituzkeen argirik piztuko, nahiago du bere begietara itzal bilakatu diren objektuekin dostatzea, hezetasun sarkor hura, atsegin zaion mingostasuna idoro ohi diona. Ilunargitara laketzen, egokitzen sentitzen ditu begiak, eta Bruselatik ekarritako posterrean pausatu du behakoa, flandeserazko testutik hitzen bat frantsesezkoarekin parekatu nahian legez. Ezin izan zuen irakurri, artean emakumearen bisaia estutua suma bazezakeen ere. Tren urdin hura irudikatzera egin zuen are handiagoa zitekeen gau haren babes lasaian, belaze ardaminduen artean beti bere orduan igarotzen, lautadako etxaldeetako argietan erreparatuta lotarako prestatzen ariko ziren bidaiarekin, Frantziako mugara helduta Lilletik Pariserako bidean, loak hartu aurreko begiak sekula gehiago ikusiko ez zituzten beste haien xerka. Ulu egin du urmaelduriko artasoro baten ondotik. Errepide erdian geratutako autoak. Langa jaitsiak harantzago.

Alorretan barneratzen ziren bide adokinatuak edertasuna ematen. Emakumeak ez du baina inoiz tren hori hartuko, pentsatu zuen.

Arnasa betean egin zuen hasperen. Jaikitzera zihoan Arronaren gorputz zuria ikusi zuenean barrura sartzeko keinua egiten. Goratu egin zituen ipurmasailak besaulkian, maratilaren hotsez harrotu hazpegia ateari aurre emanda. Biak sartuko ziren. Argia piztu zuten.

– Hemen al hago.

Hammetten nobeletan oinarritutako film haietako bat etorri zaio gogora, Sam Spaderen bat, zein ez badaki ere, *Kristalezko Giltza?* Ezustea, bonbillak agerian erakutsi berri duen gizona gelan sartzen direnen urduritasun. Ordea Arronak ez du artega keinurik egin. Makinistak burua erakutsiko du faktorraren sorbalda gainetik, eta ikusi egingo du, berari beha orduko egutegia dagoen hormarantz egiten. Bertan itxarotea erabaki duela biltegietaraino bila joan baino, Azkuek. Leher eginda dagoela, ondo egon dela lasai ederrean, ez estutzeko. Zergatik ez duen argirik isiotu, irratirik, arima bat bezala, susto ederra eman didak. Hitza biribildu nahian, narda diola irratiari

erantzun du, tailerrean besterik ez dela entzuten, horregatik beharbada. Kanpoan, arbolen arimak nabari ditzake oraindino.

– Berau hemen dagoela aprobetxatuta, gauza bat, Julen. Heuk konta egiok –egin dio Arronak egutegian zenbaki bakanak bat-banatzen zituen makinista beltzaranari.

Gozo hitz egiten zion gazteak, tentuz. Zaila egiten zitzaion lehenago Arronaren bozaren gainetik entzun duen zakarra eta orain esaldiak etenez dabilena pertsona bera zitekeenik.

– Konfiantzazkoak al dira Bilbon paketea jaso behar zutenak?

Baietz buruaz Azkuek. Zer bada.

– Bada berak izango ziren, ez diot ezetzik, baina han ez zen inor azaldu.

Kokotsa altxatuta hurreratu zitzaion Azkue gazteari, zemai egiten zioten begiek.

– Zer esaten ari haiz.

– Han ez zela inor azaldu –zin egin zuen, makina barruan utzi zuela, bere aulki azpian gordea geltokiko osterantzekoak egiten zituen bitartean–. Itzuli nintzenerako han ez zegoen libururik.

Urrats presatuz ikusiko zuten nasan makinista beltzarana, bulegoetan sartu eta beste makinistagatik galdetzen zuela. Ez zebilela han erantzun zion bere adineko gazte batek. Ondoko trenbide hutsaren paretik doa, tartean korrikaldi txikiz, komunetan sartu-irtena egin eta biltegietan galtzen ikusiko dute. Bi gizonek, bestaldekotik, paketea besapean gordea, ate zabalduari behatzen diote. Ohol higituetan esku egonarritu batek ikurrin bat zuen margotua, zeharkako gurutze gorriz atze berdearen gainean. Makinista beltzaranari atzamar luzatuz irteerako bidea erakutsi eta gero eskuinera okertzeko dioen enplegatu batek lagundu dio atera. Irtetera doa tren bat. Bermeokoa. Gurea baino ez da geratu. Galdua dute, geltoki aurreko tabernetara joana agi danez.

– Ez dakiala nork hartu zuen esaten ari al haiz? –Inesen lakoxe beltz haiek menpe hartu nahian bezala.

Haiexek erreparatu zituen Arronak, herbaltzen ez zirela. Erantzunik eman gabe ari zitzaion hitz egiten. Ez zekien, ez, eta galdu balira ere, beste inork eramanda ere, zer, ez dik bueltarik,

liburuak baino ez dituk, eskertu egidak behintzat borondatea, mesede moduan hartu izana.

Beste biei atzea emanda, kalerako ate kristalduaren bestaldetik behatu zion iluntzeari. Berunaren hatsa sentitu zuen hortz-oietan. Egoera ulertzen saiatu zen: bazitekeen bila joan zirenak makinista berria ez ezagutzean atzera egin eta trena hutsik geratu arte itxarotea, jakinaren gainean egonda paketeak han behar zuela. Non ez baina han. Eta horrekin zarratzen ziren ateak ondorengoetarako? Bera baino ez zirudien horretaz ohartzen zena. Hortz zuztarretara egin zuen mihiarekin, mikaztasuna, berun erdoka urdina ukitzen zuela egin zuen. Nola puta liteke baina horrela ibili, aurpegirik ez eman, *gu gara, paketerik bai guretzat,* izenik eman beharrik gabe, akabo hemen denok hain segurura jotzen badugu. Lapurrak baino okerrago. Makinako atea etorri zitzaion, itxi egiten al da geltokian dagoen bitartean?

– Atea zabalik uzten al duk?

Arronaren begiek hartu zuten. Gaztea desagertua zen, joan egin duk, zakar ostia bat, hori

baino ez haiz esaten zuen lagunaren bekozkoa. Erdeinua. Arean ez.

Ez zuen deus esango, eta emaro sentitu zituen Arronaren begiak bere aurpegiko haragi gorritan sartzen, xularme bakoitzean sakatzen, gero eta barrurago, minberak haren aurretik mugitzera behartu zuen arte. Aterantz egin zuen, zaindua sentitzen den aharia da. Sorbaldak erroan exageratuegi gora eta beheratuz marraskatzen du bizkarra, nagusiaren aurpegiak lasaiago dagoela adierazten eta berari zainak hala ematen dion arte. Bizkarrezur alboetako giharrak zigortzen ditu batez ere, bera ere lasaitze aldera. Besaulkiaren hanken kontra utzi du, eta orain du momentua zerurako ala lurrerako geratu den jakiteko.

– Nire kontu –hartu zion aurrea.

Lehen beste nonbaiten entzunda balitu bezala batu zituen berbak. Ez zuen zalantzarik muturtu dituen elkarrizketa gertatu den bitartean jabetu dela Arrona paketeaz, betiko paperean listari berberaz bildua, eta aurrera jarraitzeko erabakia hartua zuela begiak iltzatu dizkionerako, galdu-

takoa nork hartu duen dudarik ez duen seinale. Konfiantzazko keinu bezala ulertu behar zuena.

– Eta ez dik honek eramango.

Honelako aurpegi bat errailez dago betea, zelai soila, fundizioaren burrunba geltoki atzean, eta trena orain, itxaronaldi uherra betetzera datorrena, Donostiatik Bilborako korreoa 12.04an, ordu eta laurden beranduago hurrengoa, bestalderantz, batera eta besterakoak, berriro ere berdeago egiten zaion belazea, lore horiz betea eguteran, emazteak prestaturiko mertxikak, sagarrak, okaran zoriak, sasoian sasoikoak mahai gainean, banderatxo gorriaren ondoan, bizirik eusteko laguntzen dioten ohitura mekanikoak. Zaku usaina hartzen dion jaka marroia. Ez dago zer eginik. Beti izan zen bezala ikusi, betirako izango zen bezala.

Paketea hartzen ikusi zuen esku artean, pisatzeko moduan azpitik eutsiz.

Berari dagokiola mintzatzea ohartu da, egingo ez duela ondo dakien arren. Ez du nahi errukia izan diezaioten, zirrara hori du. Errukiagatik ez behintzat, esan nahi lioke, pakete galdu batek ez dik errukitzeko eskubiderik ematen, Arrona.

Errukia ezta galtzaileekin ere, bestela gureak egin dik. Baina isilik gorde zuen bere baitarako egosia.

Lan bera jarri dio bere buruari Mar del Platako bolitxea jaso duenean bere gogoetan, traje ilunez jantzitako gizon bat leiho zabalaren ondoan –bapore horiak moiletan, garabiak–, ozeanoan galdurik begiak. Gero eta maiteago, obsesio bilakatzen ari zaion A.z dituen sentsazioak arrazoitzen saiatzen delarik, beldur da ez ote zaizkion erruki printzak azaltzen berari ere, han egotea, distantziaren beharragatik, oroimenaz asago. Beharbada. Laino artean agertzen den transatlantiko baten indarrez agertu zaio dabilenaren harian: *ezin anaitzako bezala bizi etsai izan direnekin.* Eta egonda ere, bada errukiari gain hartzen dionik, jarrerarekiko errespetua, bekaitza, bakardadea noiz izan den inbidiagarri galdetzen harrapatu du bere burua. Berunaren erreak burura jotzen dio. Nekea da. Alderik alde lar garrazten sentitzen dituen zainak. Erretegiko jabeak, erdara pausatuan, gozoegian galdetu izango dio noiz pentsatzen duen itzultzea. Etxera. Nora bestela. Itzuli ez da etxera baizik itzul-

tzen. Atarian lotuko zaituzten besarkadak, A. Ongietorri gaindikakoak. Musu klandestinoren bat. Irribarre egin du. Handiak ditu hortzak: italianoa. Noiz. Une hau heltzerako Azkuerentzat baino ez du jarraipenik nobelak, eta bertan ikusten du A., kaian kulunkatzen diren ontzietara igoa gogoa: *Inoiz ere ez.*

Irentsi ezin dezakeen listu haria egin zaio hortz artean. Zergatik ez zion erantzuten Zubeldiak? A.ren bakardadean pentsatu zuen, egun argitan artean moilan, hain izugarria egingo zaion gauari itxoiten. Euskal Herriko gaua hango eginda. Nostalgiak gakorik bihurrienak izan ditzake, esango dio italianoak. Musikak hitzen petik egiten zuen.

Arronak ulertu ez duen zerbait bota dio, zer? ahul batez errepikatzera behartu duena:

– Afaltzeko gogorik bai?

Ez zuten azken hilabeteetan elkarrekin mahai batera eseri eta gauari abaina ematerik izan. Gaur gogoz kontra ere bai, erantzun diola entzun du Arronak, eta hitz egitea behar bihurtu zaiola ulertu du. Inesi buruz mintzatu gogoko zaiola pentsatu du, hustu, uste baino zailagoa gerta-

tzen ari baitzaio urruntasuna, lehen ere berak bere borondatez aitortua, horretaz inoiz lar tira ez badio ere.

– Laster nauk.

Nasako harri pikorretan aldentzen ziren oinak entzun zituen, ate itxiei bultza egin eta giltzatuta zeudela egiaztatzen. Haizea sartu zen, arbola itzalien usaina harekin batera. Tarteka, Arronak txistua jotzen zuen, nahita eteten zuela zirudien doinu triste bat. Itxaropenik izatekotan, adiskidantzan, jaio zaio. Ordurako, ezinezkoa zitzaion muga horietan atzerago jotzea, ukamenari azken aukerarik ematea bizitzari azken haritik eutsi nahi ez bazion. Eta ezin zuen, A.ri zor zion. Saguzar baten hegadak gaugiro zegoela adierazten zuen, honela ulertu du berak bederen, eta dagoeneko ez du Arrona entzuten kanpoan.

Ez da oroitzen zein izan duen azken irudia, mahaira jasotako paketea agian, listo diotson Arronaren soraiotasuna. Saguzarra ez da bulegoko argitara sartu, ataritik zaindu ditu bi gizonen gerizak bulego barnean, dena bere lekuan dagoela egiaztatzen, indarrez amatatzen den argi larua, azantzaz piztu den motorraren hotsa.

Errepidea erakutsiz herrirantz jo duten foku biak. Azkuek, besoa altxatuz, hutsa erakutsiz eskatu du beste botila bat.

– Hik zer edo zer baduk, Julen.

Karmenek eraman zituen erabilitako plateerak, Igartua barrarekikoak bete itxuran zebilela ohartuta. Zapi zikin batez batu dituen hondarrak jasota, edalontziak baino geratu ez diren mahai gainean antxumatu ditu besoak Arronak, soina aurrera kargatuz. Iristen ez zen aitorpen bati itxaron zion, bere baitari agintzen zion *esadak zer den* bultzada haren esperantzan. Azkuek, eskatuaren aitzakiaz, botila ekarri artekoa zuela jabetu zen gosetuari jaten emateko. Hondarren bat bada ere. Karmenen ibilera herrenduari jarraituz ahalegindu zen mahai gainera egindako behako gosetu hura saihesten. Hondarrik ez, eta hustu. Eta ez errukarri agertzearren. Nola deitzen zien euskaraz Arronarenei indar gutxi zutela-eta Inesek: begi asasino haiek?

– Hik ba al dakik bere burua garbitzen ahalegindu zen baten aurrean hagoela?

Berehala ohartu zen beste neurria eman ziola irribarreak esaldiari, iheslekua eskaintzen zion

bota zuen bezala bota izanak, eta profitatzea geroak emango zion. Zinismo ukituak, bere burua biktimatzat hain agerian azaldu izanak egiten zuen orain egoeraren jabe. Arrona ere ohartu zen gertatua xehatzen ahalegintzea alferlan lukeela, esan zuen bezala esateagatik. Karmenek aspaldiko, bizi al gara-edo galdetu dio, eta sorbaldei gora eginez, botila berriari beha dago emakumeari beharrean: beharko. Bere lekua hartuz, aurpegira begira, ez bera, Azkue izan da hariari eutsi diona, galdera bera higatua esaldiari, gure aldean ba al dakizu nola bizi diren hauek. Amorrarazi nahi zuela pentsatu zuen mugak jartze harekin: ondo bizi direnak eta gu, Karmen. Eta zerrautsa ia harrotuko ez duen katemearen ibileraz, hotsik atera gabe doaz zangoak jendez betetako barrarantz, mendaz lotuak pantorrila biak. Ikusten ez zuen isuria entzun zuen. Azkue basoak erdiraino betetzen.

– Eta ez ez nuelako nahi. Gaizki aukeratu nuela, edo ondoegi, asmaizak. Arazoa duk erabakia hartzen denean, heure burua joaten, abandonatua uzten duanean, berdin diola lortzen duan ala ez –hotzegi ari zitzaiola iritzi zion,

Azkue bera ari zen mintzatzen ardoa beharrean, oraindik nahikoa edan ez zuen seinale–. Erabakiak berak hartzen dik bizitzaren benetako pisua, *ni banoak,* eta horri buelta ematea duk, ez besterik, benetan min ematen duena –etenik egin gabe, prestatuegi balu bezala jarraitu zuen eskuak mahai gainetik altxatu gabe Julen Azkuek.

Hemen nago, taberna hats honen erdian, lur emanda egon zitekeen adiskide baten aitorpenaren notario bakar, pentsatu du Arronak, eta ez daki ebazten afaltzera gonbidatu izanaren damurik ote duen. Urteak dira Azkue ezagutzen duela, estreinako aldia da gaia atera dena, eta horrek handitzen dio egonezina, aitorpenaren gordinak kezkatzen. Baina, hala botea, Azkueri berari ostuta manera, joko intelektual huts bezala ere har zezakeen, nahiaren indarra izan zuen, iragan hipotetiko bati baino ez zion ameto eman. Maitasun hondoratu bat etorkizunaren aurrean.

Ezer hitz egin izan ez balute, geltokitik atera ez balira bezala zeuden orain, ardoak mintzoari eraso gabe artean, labarrik sortu ez eta iragan gertuan hondoa emanda baleude bezala, ausar-

diarik ukan ez izana leporatzen Azkueren berba, salaketa begietan, herio-hotsik gabe, lokatzaren usaina, malkarraren laiotza, fundizioko bidean doan gorputz zabala, galdutzat emandako adiskide bat. *Arrona, horretarainoko mina izanda, ez al zitzaian kaskarretik* pasa.

Arronaren oroimenak egun hartako berba kontrolgabeei lotzen zitzaizkion. Eta han bera, tabernako beste muturretik buruarekin baietz, keinuka ondo al dabilen galdetzen ari zaionari baiezka, ondo, ondo. Ba ote daki zerbait aldatua dela bien artean gaur gauetik aurrera? Zer da ordea jakitea. Gehiago nahi duen galdetu dio Azkuek. Ordea sentsazioen parrastada hura ez zen berriro ere erdiraino doitasunez beteko duen edalontzian kabitzen; gainezka ari zaio bere burua botatzen ahalegindu dela aitortu dionetik. Ariketa intelektual gisa hartuta ere. Zer gertatu den, norberak bere kabutan egin beharreko itauna da. Eta izutu egin da. Galdua du orain arteko trebetasunik maiteenetakoa. Ez daki lagunaren irribarrea neurtzen.

Barratik heltzen zitzaien berbaro beroari arreteman zioten tarte luze baten ondoren, Arronak hartu zuen hitz egiteko erabakia:

– Medikuren batengana joango hintzen.

Beste isilune bat, eta Azkuek ezetz dio. Soak are ezpain tristeagoak erakusten ditu orain. Bat ezagutzen duela, oso ona behar dik izan, baina ez duela uste askorik lagun diezaiokeenik. Hortzak agerian uzteraino altxatu zuen goiko ezpain ertza. Arronak berehala harrapatu zuen: Azkue iraganera begira zegoen. Ulertzen diat, esan dio. Ines badoala esaten ari zaio.

Azkueren begi beteak ikusita, haren iraganak hondorik ez zuela zirudien. Ez al zaion iruditzen gauzarik ederrenekin bizi direnak, lehenago edo geroago behartuta daudela aukera bezala behintzat ikustera galdegingo dio. Ez diat uste, erantzungo Arronak. Gauza batez ziur zegoen, bazegoen laguntzarik ezin eman diezaiokezun jendea. Ezinezkoa dutenak norberak esandako ezeri... Berak hartu zuen oraingoan botila orpotik. Hondoan geratzen zen putzuak behar zuen gorde erantzuna. Topa egin zuten. Azkena.

Agian Azkue bera zela bere gaixotasunaren gainean ezer ez zekien bakarra pentsatu zuen Arronak. Inoiz erkainetako lirdingak aipatu izanagatik ere, beharbada ezeren berri zehatzik ez jakitearen aukera hutsak larritzen zuen. Berandu zela ulertu zuen. Alferrik zuen berunaren indarra aipatzea, inprimategiko plantxetako uherra azalean barneratzen, odolak egunero edaten zuena. Anttonez oroitu zen, ezin ziezaiokeen odolarena aipatu. Eta hala ere, hain zen nabaria gaitzaren aitzinatzea. Karmenek, eskugainaz masailean joz, itxura oneko, goapo dagoela esan dio. Odoletik nerbioetara, burura jotzen dion kalteak sendabide erraza du. Inprimategia ahaztu, odolberritu arte behintzat. Gazta menbrilloarekin, biontzat, eskatu dio emakumeari. Nola esango dion pentsatzen ari da. Izaerara ere jotzen duela, horrena duela lorik egin eza, zekenaldi horiek. Ez dela adibiderik egokiena, baina Goyak gaixotasun bera izan zuela, grabatuetako erabiltzen zituen plantxek pozoitu ziotela barrena. Gehiago esango dio, horregatik hil zela. Biak gozo beharrean al dauden galdetuko zien Karmenek, menbrilloagatik. Beharrean egoteko hobe daudela

inor gozatzeko baino, Julenek. Loratuta sentitzen zituen begiak. Azkuek gogoko zuen emakumearen izaera hura, lotsagabea, zurikeriarik gabekoa.

Zertaz hitz egiten zuen Julenek Anttonekin? Nahikoa paper ba ote zuten etorkizunari aurre egiteko. Alferrik ezkutatu zion, Anttonek arazo bat zuen. Inoiz, bizitzako maitasun bakarrarekin hilko zela zion esana Juleni. Eta izango zuen honek zer eramana harrezkero. Pentsatu zuen bera zela anaiaren lekuan egon behar zuena, berak behar zuela joana.

– Hildakoak ez dituk trukagarriak –botako zion Arronak ahots lodiz.

Ordainetan, isiltasunarekin egiesten zuen Julenek. Egia zen. Eta biek zekiten zer gertatuko zen. Etxea zen maitasun hari gain hartuko zion bakarra, etorkizunaren zain hobeto egoteko egindako leiho haiekin errio aldera. Inesek bere barrenera begiratu eta lur hura ez zuela betirako izango erabaki zuen Antton ez zela bizirik irtengo esan ziotenean. Leihotik begiratu zuen, txakurtegi handi bat zirudien errio ondoan jasotzen ari ziren transformadorea inguratuko zuen sa-

reak. Ez dut uste, esango zion Anttonen anaiak. Ez zion alde egiten utziko. Egiten asmatu beharreko bidea zuela sinetsarazten zion Julen Azkuek bere buruari insomnioak gogoeten zaparrada entzuteko adinako egonarri eman zionean. Hala ere, ziur zegoen emakume hark ez zuela maitatuko.

Baina, esan zion, hik ez duk eskubiderik. Isiltasuna, beti dator isiltasuna nire hitzen ostean, pentsatu zuen Arronak.

Erlojuari begiratu gabe ohartu zen berandu zutela, Igartuak eta Karmenek laster esango zietela astegun buruzuriarena, lanik ez al dugun bihar. Eurak ziren azkenak eta begiak orduen neurri. Aulkiei zorua kendu eta mahai gainetan jarriko zituzten. Orduan esango zion berriro:

– Hik ez duk hemendik alde egiteko eskubiderik. Beste edonork beharbada bai, baina hik ez, Julen.

Eta Azkuek ulertuko zion agiria, bere ideien zorretan eskertu ezingo diona. Eta zergatik nik ez? aurpegiratuko zion. Arronak ez zuen bere salbazioa baino bilatzen beharren delegatunahiaren onarpen harekin, baina errukira jotzen

zuten behin eta berriz haren hitzek. Ez zen hori inondik inora geltoki-buruarengandik nahi zuena. Ordu laurden eskas aitortu diola. Baina ez zuen bestela izan daitekeenik ematen. Honela gertatuko zen.

Iragana bestelako datorkio. Airea zen diferentea zena, beste batzuk begiak, argia bera gertatu liteke arrotza.

Arronaren begi loratuek Etxabe III.aren erretratua identifikatu dute beste guztien artean, beso antxumatuak desafio egiten. Orduan.

– Galdera bat egin nahi diat.

Azkuek burua altxatuz dio baietz, ez dela handik jaikiko eman dio aditzera gorputzarekin nola egin duen ikusteak. Orain Arronak paketeekin zer ikusirik duen galdera bat egingo dit; eta egin egin zuen:

– Hik Bilbora bidaltzen dituan pakete horiek, ez gaizki hartu, ez dituk liburuak, ez?

Biderik ematen ez dioten Azkuerenak sentitu ditu bere erdi itxietan. Edanda dago.

– Ez, ezta? –errepikatuko du.

– Zergatik ez dituk zabaltzen?

Igartuaren ahotsa etorri zaie barra atzetik, ea bihar jai duten galdetzen, *erraz bizi dituk batzuk hemen.* Altxatu eta mahai gainean utziko dituzte egurrezko aulkiak erratza lasai pasa dezaten. Azkue da orain erretratuetan erreparatzen, haietan ordura arte ikusi gabekorik aurkitu nahian. Marko gaizki jarriak, desordena begietsi zuen. Geltokirako bidea agertzen den argazkia erreparatu du, etxeetarako pasabiderik gabe, eta bertan ikusi bere burua, arbola sustraiek harrotzeko urteak beharko dituzten espaloian barrena, pakete bat listaritik oratuta.

–10–

Ez gara iraganera inoiz itzuliko.

Behin irakurrita zuen gogoan, hartara biltzen ziren hotelaren menbretea zeraman orrian gorantz egiten zuten lerro haiek guztiak. Zer zen zirrara sorrarazten ziona ez zekien. Etxera orduko irakurri zituen, eta berarekin oheratu. Nahi baino gehiagotan laprast egin zuen Inesen aitormen hartan, Igartuareneko ardoa, ez du esaldi hori baino gogoratzerik lortzen osorik leitu zuenetik. Izerditan blai itzartu bazen ere, aspaldi ez bezala egin zuen lo. Berak ere nahi izan zuen, ez izkiriatu, emakumearen ahotsaren orbela entzun, *bizi naiz* esateko ez bada ere, jakinaren gainean egonik deitu ostean nagusitu egingo zitzaiola ikara, dar-dar egingo ziola, ez eskuak, bihotzak baizik. Ez zen deirik egon. Zubeldia euritara atera zuen atea itxi zuenetik, zerbaitek galarazten ziola sinetsarazi gogo dio bere buruari.

Zehaztasunez deskribatu izan du Inesek Azkuek bere baitarako irudikatu izan duen dena. Berak inorentzat gorde izan duena berebiziko in-

darrez agertzen zitzaion eskura ematen dizkion lerrootan, beti hain biluzi agertu nahian. Eta bazekien, orain betikoa gertatuko zen; emana zen lehen urratsa, itxaronaldiaren azken bateko haustura, hurbilketak hoztasuna esan nahiko zuen.

Gortzeko moduko zarata zetorkion kanpotik, kamioiak orubean. Ondoa zeukan eta ordubete bai behean egon beharra zuela, auzuneren bateko jaietarako afixa baten konposaketan. Beranduago jaisteko erabakia zuen hartua baina, ardo narras hura. Biharamuna: burmuinean suzko erroberak, etxafuego ikusgarriak bezala lehertzen, arbolatzen diren zain txikiak. Hemorragia txipiak. Ez zen alkoholari gero eta beldur handiagoa ziolako, aurpegiko azal poltsetan ere nabariago ikusten uste zuen azkenaldian lo gaizki egin izanarena baino, ibiliaren arrastoa. Hau muturra. Galtzarbeetan egin zuen usain. Narda hartu zion bere buruari, zikin ke eta izerdi kiratsez. Beharbada ezinezkoa da bakoitza garen belaunalditik kanpo bizitzea, pentsatu zuen. Zerbait aldatua zen bere bizitzan azken urtebetean. Papera euritan bezala zihoazkion urtzen adiski-

deak, Inesen ondoren ezinezkoa izango zuen beste emakume batengatik harengatik izan zuena sentitzea. Zalantza ere egin zuen, ez zen besterik egongo bizitza betean gozatzeko. Zer da benetan min ematen didana, egunerokotasunaz landa. Zer. Ez zekien, baina bere betean zuen agertu beharra. Egia zen, larriak antxituta itzartzen zen; aldiz, ez zuen gogora zezakeen ametsik gogoratzen.

Julen, Jabierrek esango zizun ezkontzarena, espero bezala atera zela dena, eguraldiak ere lagundu zigula. Inoiz baino ederragoa dago Leon garagar berdetan. Ikusi bazenu ze eder zeuden katedraleko beirak bere landare urdinekin. Argi hura, bizirik zeudela ematen zuen, harri artean eguzkitara haziak. Bartzelonara egin dugu ezkontza ostekoa, trenez. Eguna argitzen ari zuen Euskal Herritik pasatu ginenean, eta euriak departamenduko kristalen kontra jotzean itzartu nintzen. Gasteizko geltokian zeuden polizia armatuek eguraldiari begiratzen zaion bezala begiratu zioten trenari. Treneko kafetegian gosaltzen, senarrak ez zidan ezer galdetu, nik ez nion

ezer esan. Zerbitzariak Euskal Herrian beti horrela ari duela, antzeko ergelkeriaren batez ohartarazi nahi izan gintuen. Euskalduna zen, eta gaztea. Zeu harrituko zinateke. Azken hilabeteetan egon garen hurbilen geundela pentsatu nuen.

Irakurri ahala bart leitutakoa datorkio. Baina orain, goraki ari delarik, gauean eman dion baino bakardade aldi handiagoa ematen dio Inesek, azken asteetan ezagutu zuena eta trenean doana pertsona bera ez balira bezala. Bera ere bakarrik zegoen beharbada.

Ez zitekeen, behar zuen beste bizitza –bizitzeko– era bat egon. Arronaren, Igartuaren beraren bizimodua zuen ments agian, giro etsi hartarik salba zitzakeen pertsona bakarrak. Herri honetan, munduko herri guztietan, haiek bezalako pertsonak ziren ausaz benetan bizi ziren bakarrak. Etorkizunarekin zer ikusirik ez zuen bizitzeko era bat imajinatu zuen berarentzat ere, bere oraingoa beteko zuenari erdi miraz, erdi errukiz behako ziona. Irudiotan, Arronak eta tabernariak ez zuten hitzik egiten. Eta haiexekin zegoen, hi-

rurak itzaletan. Oro kanpotik ikusi eta era horretan sentitu, atzean uzten dituzun harietan erreparatu. Eta ohartarazi: hi, zaindu hariak! esango zion bere lekua harturikoari. Ezinezkoa. Ez zen bizi. Eguzkitara irten eta hariak batzen lagunduko zion. Izutu egin zen nahitaezkotasunean pentsatzean. Behar zuen besterik egon. Askotan pentsatu izan ohi zuen gauza bera, *beste bat* nire lekuan. Ulertu zuen etorkizuna zuela orainean lotzen zuen harri, egunen batean behatzarri izan zezakeena. Lagunek aurre egin zioten. Etorkizunak beste daude beraz. Erantzuna baietz zen. Arronarenean pentsatu zuen. Hasiera batean uste izan zuena baino antzekoagoak biak, haiek esatera. Elkarrengandik hain urrun orain. Eta hala ere ez. Desberdintasunak aitor zitzaten eskatu zien. Mututu egin ziren, argitan higatu gero Arrona eta. Borondatea den bitartean bizitza aitzina doa. Tolesturetatik bildu zuen gutuna. Hori zen azken batean: nahiaren jabetza.

Txorrota ireki zuenean ur hotza zetorrela konturatzeak ernegatu zuen. Baso bete bi edan zituen, derrotean. Berogailuak ez zuen ura berotzeko beste erretzen, eta hala ere, toalla harras-

ka ondoan utzi orduko sartu zuen burua kanilapean. Min ematerainoko hotzak ajearena ahantzarazi zion. Berak isiltzen zuena eta Arronak aterako ez zukeena zera zen, izuz jantzitako lotsak ez duela hitzik egiten. Lotsa ez zela esango lioke Arronak. Baina oraingoan ez dio aukerarik emango. Berak behintzat ikasi du isiltzen.

Dariola duen burua atera gabe luzatu du eskua artaziak atxiki dituen arte. Alboka, ez alferrik datorkio begietara munduko ur guztia, itsu baten trebeziaz moztu dio muturra buru gainetik hustu duen xanpu anpuluari. Urberritzerako, gozatzeko lain, nabarmen beroago datorkio, eta bitsez bete da harraska ahoa.

Beste bizitza bat. Bazekien zein egun izan zuen gogoan Inesek euriarena aipatzeko. Etorkizunaren zain hobeto egoteko leiho hartatik ikusi zuen Azkuek, orubea ekiditearren errio ondotik egiten malda hartu zuen arte. Harrapatuko zuela ustetsu, presarik gabe jantzi zituen galtzerdiak oin hutsen gainetik, plaierak gero. Zakur baten adausia. Zu al zinen? esango zion atzetik norbait zetorkiola igarrita harrizko hespilean geratu zenean. Eta Azkue heldu ez zen zerbaiten zain

egon zen lamada hartan. Pentsatu zuen ederra zitekeela muino haietan ibiltzeko nahi besteko aukera izatea, liburuen azpiko mundu hartarik, berunaren zamatik urruti, oso bestela, ia ordura arte anaiaren ondoan ezagutu zuen emakume haren ondoan. Galgoea. Txitxarrek trumoia iragarri zuten. Gizonak bere aho irekia eman zion. Euria hasten zuen. Eta emakumeak sartu orduko atera zuen bere itxia. Bazkalosteko trena entzun zuten, muino azpiko arbolategitik irtenda hartuko zuen geltokira heltzeko emekituagoa zuen abiadura. Ostizaparradak behartuta aldats beherantz zihoazela berba egin zuten. Orube gaineko iratzetan geratu zen gizona emakumea etxera sartzen ikusi zuen arte, ez ziren inoren aurrean elkarrekin agertuko. Antxintxika egin zuen etxerainokoa, irrist egin eta ia erortzen ikusi zuen emakumeak leihotik. Etxera igo aurretik Inesenean jo zuen. Ez zuen ezer entzun, atepeko zirrikitutik zetorren argitan galtzen ziren bebarrutik gorako urrats bustiak. Dutxan sartua zela eta ez ziola entzun esan izan dio gogora ekarri dion guztietan, nola pentsa dezakezu bestelakorik.

Baldosa zurien gainean tolestu ohi duen toallaz lehortu zuen burua. Zenbat aldiz ikusi izan zuen emakumeak gerora horrela, nola etxean nola Leon eta Euskal Herriaren erdi bidetzat jo zuten Burgosko hotelean, toalla sama sendoaren inguruan bildua soin gorriaren gainetik. Uraren hotsak iratzartuta, berak bere gorputz biluzia laztanduko zuen izaren pean. Ohe ertzera etorriko zen, bularpean edo aldaka mamietan zuen eskua pasatuko zion ile bustitik, eta artean gaztea eta gustagarria irudituko zitzaion, etortzeko zena gizon haren ondoan ez zela egongo ondo zekien arren.

Hotel ona da Bartzelonakoa, sabai handikoa, argi-armiarma ederrekoa dantza gelan, hirian dauden gauza guztiak ikusi beharraren ikusiaz askorik gozatzeko betarik ez badut izan ere. Gustatuko litzaizuke hau, Julen. Bestelakoa da itsasoa hemen, bareagoa. Zeruak berak zabalagoa dirudi. Eta bada zer ikusia. Arbolalde ederrak kaleetan, etxeak, Gaudirenak eta harenak ez diren beste zientoa. Liceua. Ranbletan, Güe-

llen paseatu, mundu honetan ez bezala. Ea egin ditudan argazkiak ateratzen diren.

Zigiluari eman zion begia. Menbreteagatik zuen susmoa egietsiko du, bertatik ziola igorria. Baina bazen egoskaitz egiten zitzaion eskurik, letra haietan biekiko harremanei zegokion ezkutuko itxaropenik eman nahi ote zion sinetsaraziko moduko detailerik. Lehen pertsona bakunean baino ez zuen hitz egiten, senarrarekin egon ez balitz bezala eman nahi zion aditzera, berarekin ez beste inor, bera zegoela gogo egin zezan. Bestela ere izan zitekeen ordea: ez zion minik eman nahi. Zergatik idatzi dit orduan. Senarraren ezkutuan idazten ikusten du, haren loaldiari ebatsirik beta. Gutun hondarrera jo zuen, han zegoen: ez gara iraganera inoiz itzuliko. Nork nahi du baina iraganera itzuli. Nik ez, Ines. Karbonarioek ez zuten Liceua surtan ikusterik izan. Eta nik iragana? Beretzat errebelatu zituen Azkuek Inesek esan bai, ezagutzen zaitut, baina inoiz bidaliko ez dizkion erretratuak. Zertarako ateratzen ditugu argazkiak itzultzeko ez bada.

Tinbrea, horregatik gorde behar izan du berriro ere, aurrenekoan baino presatuago, gutuna bere azalean. Haustera bezalako hotsa atera du oholak alfonbrapean aterakoan. Leihoak zirrikitua erakusten zuen, haize korronteak kolpez itxiko zuena. Eskua maratilan duela jo dute berriro, behin eta luze, etxekotasun ezaz. Saltzaileak. Errazago bidaltze aldera, ez du beraz toalla bustia lepotik kenduko.

– Luze iritzita egongo hintzen honezkero.

Iraganak berarekin zuen zor bakarra zen. Etxean ez zegoen freskotasuna sartu zen eskailburutik zur usain zahar haren ostean. Itxi ez zuen leihoaren dangada entzun zuten. Zubeldiak armairu bat zirudien ate aurrean, inongo bizitasunik gabe. Inprimategian eskura eman zion karpeta urdin bera ezagutu uste izan zion besagaina eta saihetsaldearen artean. Sartzeko baino ez zion esan, hark bezala beste inongo agurrik gabe Azkuek ere.

Bezperako ardoak Arronari aitortu ez zizkion gogoeta guztiak berritzeko ahaleginak egin zituen, sukalderako bidea erakutsiz itsuaurreko lana egiten zuen bitartean. Gutunak ahazmene-

ra eraman duen oro zaparradaren legez etorri zitzaion. Ea kaferik hartzen duen galdetu dio. Ziur zegoela Igartuarenekoa bezain ona egiten zuela, eta baietz, hutsa. Eta jarraitu oraindik kendu ez duen toallan erreparatuta: boxeolaria ematen duk itxura horrekin. Izan ere bai igual, Azkuek.

Zentsoreak ez zuen uste etxeak erriora egiten zuenik, eta hala esan zuen. Uretan ahokatzen ziren taketak, txaluparik gabe azkenaldian. Aste guztian ondo erabilita erabaki zuen. Ez zitzaion buruan sartzen argi indarraren zentral txikiarena errioaren ondoan. Mutil kozkor bat bizikletaz sartu zen elkorrean, oporretan oraindik, etorri zitzaion balkoi ertzetik ikusten duen Zubeldiari. Lurrera egin zuen, eta oihuka emandako deia. Erloju bat aurkitu zuen, sugandila baten antzera uhaletik eutsita airean astintzen zuena. Beste bi agertu ziren, umeagoak. Erlojua, erlojua, egiten zuten. Bizikletadunak gora begiratu zuenean ikusi zuen beha zuen gizona. Umeak ulertu ez zuen irribarrea egin zuen gizonak. Erlojua bestek ez heltzeko moduan goian mantenduz, geldiro destatu eta esku biluziaz egin zion

tiro. Zubeldiak ez zuen detonazioa entzun. Erabakita zeukan, ez zen arriskatuko.

– Azkue, hitz egin beharra zaukaagu. A.k arazoak ditik.

Kafearen borborra erreparatzen ari zen Azkuerentzat atea zabaldu duenean baino abiada handiagoz egin zuten gogoetok. Bolumenik gabeko soslaia zen Zubeldia leihotik sartzen zen argi zeharrari atze emanda. Eskuak umeldu zizkion kafeteraren lurrunak.

– Ez zaukaat baietza ematerik –jarraitu zuen–, eta sinets egidak, gogorragoak ere atera dituk erdaraz. Oroimenak baino ez dituk, nahikoa era kostunbristan emanak, modernotik gehiegi ere ez...

Orduan, pentsatu du Azkuek. Baina amaiera duela arriskutsua gaztigu emango dio Zubeldiak, zabalik uzten diola gorrotoari atea. Azkuek bere baitara ekarri zituen azken orrialdeak. Azkenaldian darabilen esaldia. Etsaiena. Anaiena. Itzultzea. Eta hortik atea. Gorrotoan harri egindako amaiera bat eraiki ahal izan zuen berak ere. Ulertzen hasia zen. Ahaztea zen aizu zitzaiona Zubeldiak koipeztatzen zuen makinari, Intxorta

urdinduak ikustera joan zirenean ote artean aurkitu zuten gorpu hura bezain. Gizonak ikusi arren hilotza utzi ez zuen arratoia. Pentsatu zuen nekagarria izango zela A.rentzat hil arte mantenduko zuen gorrotoa, eta deitoratu ere egin zuen berak horrenbesteko indarrik ez izana.

– Eta?

– Dagoen bezala ez dudala baietzik sinatzen. Inprimatzeagatik gertatzen direnak. Aurre zentsurara aurkeztu izan bazenu, amaiera eta beste bi gauza aldatuta, balekoa zitekeen.

Eta beste bi gauza. Ez zion sinetsi, esan ziezaiola behingoz liburu hura ez zatekeela inoiz aterako, ezta aurrez eraman izan balu ere. Baina ez. Sentitzen zuela edizioagatik, baina hitz egin zezala berriro ere partiduko kontaktuarekin.

– Huitzik segituko dik oraindik –galdegingo zion–. Benetan, aldatu amaiera, irabazi egingo likek.

Kafearen garraztasun gozoak hartu zuen sukaldea. Kikera bakarra prestatuko zuen.

– Literarioagoa geratuko duk –erantsi zion esaldiari.

Harri eta makila eginda zegoen, lana ematen zuen sinesten Azkueren aparteko interes hark, are harrigarriagoa aldaketa berak proposatu zionean. Baina lasai bota zuen:

– Auto istripu bat.

A. Mar del Platako etorbiderik zabalenetik irtenda Buenos Aireserantz, jai batera, erbesteratuen jai, bilera batera nahi baduk. Gaua, Hego hemisferioko euri lodiago hori, gizonaren borondatearen gain ez dauden putzuz betea errepidea, beste automobil baten argi gorriak aurrean, galgari sakatzen diola, autoak irrist egin eta arbola bat. Bale, horrelaxe, *the end* esan zuen Zubeldiak hatzak elkar eginda eta ahurra doi-doi erakutsiz sabel paretik zabalerako keinu azkarra egiten.

Azkuek mahai gaineko apalean utzi zuen karpeta, ez dakigula orain kafez zipriztindu. Zerbitzatu eta gero ere, nobela modernoari buruzko azalpen bat edo beste gehitu zion bere jardunari kafea ezpainetara eraman aurretik. Amaiera ez zoriontsua, *happy-end* eza Julen, istripuz hiltzea, ez inork hiltzea, ulertzen didak. Heuk, zeuek ikusi, baina irabazi egingo likek.

Egin ez zion arrapostu galdera izan zen Azkuek bere baitan zerabilena, zoriontsua iruditzen al zaion nobela zabalik uztea, etxera etorri nahi bai baino ondorioen ezinbestean han geratzea erabakitzen duenean A.k berak. Zubeldiak ez zuen deus esaten, putz egiten zion kikera beteari. Azkuek ez zion ezer galdetu, orain bera zen zentsoreari, Huitziri karpeta eman zionean begiratu zion bezalako begiz, agian errukiz begiratzen ziona.

Indar betean ateratzen zitzaizkion eginbeharra burutzeko saio posibleak. Huitziren aginduak ezin zehatzagoak izan zituen, hilabete amaierarako. Berandu zebilen, eta bere buruarekin zuen hartua ardurarik handiena. Onartu beharra zeukan, alferrikakotzat har zitekeen ordura artekoa: papera, denbora, zentsurari ihes egin izanaren bozkarioa.

Egiazkor agertze asmotan hitz egin zion azken ahaleginean:

– Ez dago zer eginik beraz.

– Esan diat, dagoen bezala eta hire inprimategi oinarekin, ez. Huitzik ulertuko dik.

Dena airean geratzen zen sentsazioa, Zubeldiak garbiegi ere marrazten ez zuen bideren bat erakusten ziola iruditu zitzaion Azkueri, isiltasun astun hau, elkarri eusten zioten begiak. Bertan botata inprimategi oin amerikanoa jartzea da beharbada kontua, ebatzi du. Kafekinak kikera hutsetan. Ona irteten dik. Hartuko duzu beste bat. Denborak ez zion kontrarik egingo. Azkuek bere buruari deiadar: kontuz baina. Izoztutako aintzira gainean bezala dabil sortu berri duen hipotesian, Guatemala eta Mexiko baino modernoagoa behar du izan, Venezuela, Argentinakoa, Txilekoa egoki antzerago.

Eskerrak emango dizkio baina presaka dela. Zubeldiak jaikitzera egin zuen.

– Joan beharra diat.

Berak bakarrik aurkituko zuen kalerakoa, ate berdinen artean errazegia ez izanik ere. Pasilloan zihoazela pentsatzeko ondo eta egongo zirela esango zion. Azkuek sinestea erabakiko zuen gizon bitarteko haren hitzetan, nahiz ez zion susmo onik hartu amaiera aldatzearen proposamen hari, baina agian bere erremate propioa asmatu izanak bilakatu zuen baikorrago. Agurtze-

rakoan berak Huitziri telefonoz deitu zionean esan izan zizkion azken hitzak errepikatuko dizkio Zubeldiak berak ere, tipo horrek ondo idazten du. Merezi dik aukera bat. Eta Azkue ohartu gabeko zerbait gehitu: *ez diat uste memoriak direnik. Hori gazteagoa duk. Gorrotorako deiagatik.*

Beharbada ezinezkoa zen Zubeldiaren bisitaren ostean sukaldea nola gelditu zen ikusita bere burua apur bat irrealago, miko bat ahulago ez ikustea. Nola izan daiteke hau egia, pentsatu zuen Azkuek. Kikera hutsa zegoen mahaian pareta jotzen zuen laranja bat zegoen behiala, eta hura balakatzen zuen esku bat. Bestela gertatuko ziren gauzak orduan. Inesek etorkizunari zabaltzen zion eskua laranjari ahurra erakusten zionean. Eta gaur egun badaki ezin zezakeela askorik iraun hastear zegoen garai hark. Orduan ez.

Gorrotoarenak ez zuen nobelari emandako ezetza justifikatzen. Aitzakia merkeegia iruditu zitzaion, literaturtasunari buruzko aipamena beste. Begiak itxi zituen: pisua zuen burua eta egun guztia zer egin erabakitzeko. Huitziri ezin

kontatuko zion Zubeldiak lortua zuela bidea inprimatze prozesua nahi zuenean eteteko. Afaria zuela eta inprimatzen harrapatu zuela aitortuz gero, lekutan geratzen ziren hark hartutako ziurtasun neurriak, hain neurriz kanpokoak iruditu zitzaizkionak. Eta norbaitek ohartarazi bazuen? Nork baina. Eurak salbu, Huitzik baino ez zuen liburuaren berri.

Kikerak oraindik garbiketa arrastoak dituen harraskara batu –artaziak, breazko xanpuaren plastikozko anpulu hustua– eta ahalke eseri zen mahaira, apaletik jaitsi duen karpetaren aurrean. Gometatik libratu orduko ohartu zen ondo bete zuela Zubeldiak bere lana, boligrafo gorriz egindako oharrak zituzten orririk gehienak zirriborroak, marrak, hizkuntz proposamen bakanak tartean-tartean. Amaieran begiratu zuen, orria ezker eskuin ezabatzen zuen gurutze handi batez zituen azken lau orrialdeak. Berriro irakurri zituen, gorritutakotik hasita. A. ez da etxera agertu gau osoan, eta emazteak mozkortuta imajinatzen duenekoa, beste emakume baten beso artean. Benetako istorioa taberna batean dagoela da, italianoarenean, Piamonteko soinu

txikiaren eta bandoneon diskoak besterik ez dituen juke-box baten ondoan, bizarrik egin gabe eta itsasoari begira. Italianoak ez dio itaunik egingo, A.k ez dio gaua non eman duen aitortuko. Bien artean portuan sartzen ari den ontziaren uluak iraun duen bitartean egin den isiltasunaren ondoren, tabernariak baieztapen kolorgea egingo dio: azkenaldian gauzak ez dabiltzala ondo.

Ez, ez dabiltza. Mundu oso bat da erortzen ari dena. Amaituta egon behar zukeen liburuarena, adiskideena, Bilboko entregena, Inesekin batera etorri behar zuena, amiltzera jotzen zuten bulkada guztiek lehen bazen eta orain ez den mundu bat eraiki izan balute bezala. Baina zer da benetan dudana, esango dizut, hor zaudela, zeure bakardade berrian zoriontsu zarela diozun gutuna. Eta Ines, itxurak egiten ari zarela esango nuke, gaitz egiten zait gotortasunetan sinestea.

Atea zabaltzera joan zenean txirrin hotsak behartuta mahaiko kajoian azaletik kanpo gorde duen orri tolestua aterako du berriro ere Azkuek, karpeta urdinaren gainera oraingoan. Eguzki aurrean jarri bide diren hodeiek beluritu dute leiho-

tik lehen ere ahul datorkion argia. Atzamarrez egingo du ordura arte irakurritakoaren bidea:

Uste dut azkenik lortu dudala nahi nuen zoriontasuna. Izan nintzen bidean hor ere, baina oroimenak pisuegiak dira oraindik ere libre maita gintezen. Lotura asko ditut zorretan hor, baina zuengandik urruti bizitzea dut onena oraingoz; eta ez zuengatik, neugatik baizik. Ez da nire asmoa minik egiterik izan, inork ez du mina nahita egiten.

Azkuek begi betez begiratzen du leihotik bestaldera, iratzetara. Norberarena ezagutu eta sentitzeko n aldiz begiratzera behartzen zaituen lege bat egon balitz bezala. Lehendabizi, elkorra agertzen da bere gorrian. Gero, errio atzeko orube eta sarearen gainetik garoa bustitzen zuen aire zahar eta hezea. Eta malda azkenik, gerizpetatik igotzen duen bidexkatik jarraitzen duena, beste gozoago batekin elkartzen den zabalgunean galtzen den arte, subatzen ondoan.

Baina gogoratu zertaz hitz egin genuen, Julen: ez gara iraganera inoiz itzuliko.

Zeri deitzen zaio iragana, galdetu zuen bere baitarako. Ez zen errua. Malkoak begietara agertuko zitzaizkion, eta iruditu zitzaion gizon baten figura ikusten zuela arbola lerdenaren ondoan, gaztea, lehentxeago atzean utzi duen muinoaren magalean, iratzeak betikoa zirudienetik, errioari, elkorrari, etxeari begira.

–11–

Gaur, zuk eta biok euria entzungo dugu, eme, gozo, zirin daragoio goizaldetik, horrelaxe ari zuen atea jo dutenean, deiadar batean irekitzeko, botako zutela bestela behera. Lardats egiten zuten tantek gelako kristalaren kontra, ilun zegoen, hirurak hamar gutxi, oheburuko mahaian ikusita dakit. Teilatu hegaletik jario mehean amiltzen zen, eta espaloiaren kontra jotzen entzuten zen, ezer ere ez, hari bat. Primerako eguraldia diagu-eta, agudo, esan du hitz egiten zuenak janzten ari nintzela, oinutsik artean. Ni baino gazteagoa zen, euri beltzez zituen bustita gelako argitan distiratsu egin zaizkidan botak. Aldean daramadanarekin nago, bai, eta nola egon naiteke horrela baino, militarren antzeko manta bat eman didaten arren. Entzun nola datorren, gau guztian ari du horrelaxe, inoiz sentitu gabea nintzen karrika uretan irristaka bezala, hain abiadura bizian jaistea, gurpilen zipriztinak dendetako kristalak narrasten. Argiak piztu dituzte leihoren batean, aldamenean neramanak oihu egin diela-

ko dakit, ixteko. Burdinak eta arropak usain handiagoa hartzen dute ura neurrian hartuz gero. Segurua kentzen diotela entzun, busti usaina sudur mintzetan duzula, subfusilen metal hezea begietatik, azaletik odoleraino, tailerreko beruna bezalaxe –Arrona ere ez zen ausartu berba aipatzen, *saturnismoa*– bihotzeraino, zainetan barrena gogoraino sartzen zaizula. Egonezina areagotu egiten zait, eta beste nonbaitera eraman nahiko nituzke gogoetak, keizuak ez dit besterik ekartzen uzten baina, euri hau. Horregatik nago, nola esan duzu, aldatua, horregatik ez zaitut hemen ikusten, zertara etorri zara, hemen ez da zuretzako tokirik. Ez nago ziur, baina ez ditut esaten dizkidazun hitz guztiak ulertzen. Desegin egiten dira niregana heltzerako. Zer egiten duzu hemen, eguantzak behar du oraindino, eta nik lotaratu egin nahi nuke, baina euria, etengabeko erori xare hau dut galerazle bakar. Eta orain ixo Zubeldia, begira ezazu kanpora, emaiezu isiltasuna zure hitzei, eta entzun. Entzun euriaren laztana kristalen kontra.

Zubeldiak ez zien mintzatzen baleude bezala leihora hurreratzeke kanpo ilunerantz behatzen

zuten begi haiei entzuten. Pentsatu zuen urrun zegoela, bere barneko sakonen batean, inoren esanetarako gordea, ostendua, eta ez zela betirako zaparrada hura atertu arte handik aterako. Baieztapena errepikatzea erabaki zuen, bigarrengoz esan zuela oharturik hitzoi atxikiko zitzaizkiolakoan:

– Aldatua hago.

Azkuek begiak langar jarraitu zuen. Kuartel aurreko seinaleetara heldu zenean, keinu egin zuen argiekin. Ubel kolorekoa zen. Hiru itzal iruditu zitzaizkion barruan.

– Benetan, ez haut ulertzen.

Zubeldiak pentsatu zuen hobe zukeela agertu izan ez balitz, galdu ere zerbait galdu zuela ezer lortuko ez zuen bisitaldi harekin komisarioaren begietara, zegoen bezala egonda Azkue, euritan gehiago bere hitzei arreta emanda baino. Atearen bestaldean zegoen guardiak eztul egin zuen. Bisita luzatzen ari zela esan nahi zuela ulertu zuen. Eta Azkue leihotik salto egiten saiatuko balitz? Aho biak lotzen zituen burdinazko txaplata mehea ikusi zuenean lasaitu zen. Ez zen gertatuko. Azkuerengana egin zuen buruaz.

Lehen berak ikusi duen errepidean zituen begiak. Egunaren lehen argiak heltzeke ere, nondik igotzen zen egin zezakeen: soilguneak zituen bazterretan, pinuak ez ziren bertaraino heltzen. Eta harexeri barrenetik segituta.

Bide hartan ibili nahiko zukeela esan nahi zion Zubeldiari, pinu artetik agudo datorkion lainotan, atertzen-ez-duen-lanbroa izuak puztutako aurpegiaren kontra sentitu, arropen blaia eta ohartu orduko bere begietara ezkutatuko zen zidorra ikusi.

Nahi ez duela ere, hori du barrenerako duen paisaia, ebatzi du Zubeldiak. Mututasun hark bere onetik atera ez zezan utzi gabe, azken ahalegin bat egitea erabaki zuen, ahots lasaiz oso:

– Hitz egidak, Julen.

Baina Azkueren begiek gorago baino ez zuten egin, bideak gaina hartzen zuenetik gora. Hodeiek bentana estua erakusten zuten ostartetik, ikusezin kasik. Argi baten bi keinu, eta itxaron, laino artean eta euriaren bestaldean oso goian imajinatu zuen iheslekua, ahal izan zuen heinean jarraitu zuena. Beste bi. Piztu eta itzali. Euriaren emana. Piztu eta itzali. Gero batek bestearen

ertza jaten, zarratzen ikusi zuen. Beti izan zen horrela, argiak eta betirako ixten diren leihoak. Pentsatu zuen hegazkinek ez diotela inoiz inori lagundu, beti izan dela horrela hemen, pizten eta itzaltzen zen argi hartara bil zezakeela derrota ororen manera.

– Laguntza ez da inoiz zerutik etorriko –esan zuen begiek laino artean zelatan segitzen zuten bitartean.

Zubeldiak ulertuaren keinua egin zionean zentsorea benaz ari zitzaiola sinetsi nahi izan zuen. Beste uste batek lotu zuen baina, bakeagatik egin ziola baietz, berarekin, barnean zerabilen luiziarekin bat agertu nahi batean. Eta pentsatu zuen Zubeldia bera ere abioien pozean egondakoa zela, haien hegalpetik erauzia zela azken batean zentsoreak estali gogo zuen iraganaren bermerik onena. Baina isildu egin zen. Euria ukitzera ematen zion goizalbak. Eta ukitu egiten zuen.

Zubeldiak ez zuen gertatzen zenaren inguruko ezer maite, ez Azkueren begiak euri hari gaixoaren indarrez begira, ez berbak berak ere: hil, bizi, libre, aberria. Ez ziren pertsonak izaten, hi-

tzak baizik elkarren teman jarraitzen zutenak. Benetan zioen, hizkuntza diferente banatan ari balira bezala zihoakien agortzen baimenez emandako denbora. Hutsaren hurrengo gertatu zitzaizkion egindako ahalegin guztiak. Azkuek hartua zuen jarreraz jabetu orduko jarri zuen zalantzan bere presentzia hutsa, eta hala ere, oraindik laguntza eman ziezaiokeela sinesten zuen. Horregatik mintzatzen zitzaion hain gozo, hitzez beratu nahian bezala.

– Esaiek dakian dena. Nik ere irakurria dudala.

Haizealdi batek zakarrago ekarri zuen erasoa leihora. Inprimategian harrapatu zuen gaua zekarkion gogora eguraldi hark.

– Orduan baino ez haute bakean utziko.

Bakea imajinatu zuen: ihesaldia baso hartan barrena, lainoaren zama gorputzaren gainean. Bustiarekin, handiagoa inguruaren usaina, ekarri dutenean uniformeen tergala eta burdina bezalaxe, biderkatua, gurariak berak lezakeen beste. Pentsatu zuen Zubeldiak ez ziola ulertuko ihes egitea bake izatearena, ihesa beti herioa, estuasuna izanik besteen oinotsak zeure xerka, adar

hautsietan, galipot gaineko ibilera presatuan gero eta gertuago, hatsa atzematen sumatzen dituzula. Ordea zer da bakea bera aldaketa nahia baino, muturreko egoeretan bederen, Zubeldia. Hari horretatik ezer ez ematea zukeen onena, hobe erantzun sotilagoa.

– Ez naute baina bakean inoiz utziko –goratu egin zuen boza–. Zeuk ere badakizu horrenbeste.

Bere burua libre sentitzen zuen ametsera itzuli zen. Gainalde soildu batean etzan zen, aratinik eta begiak euriak uzten zion biltzekeen. Zerbait aldatua zen. Orain ez zuen inor atzetik, jarraitze amaitua zen eta ez zen euria belarretan iltzatzen baino entzuten. Berun argiko zegoen ortzia. Ez al zuen norbaitek oihu egin? Euriak ez du oihurik egiten. Ahoa ireki zion ortziari, lanbro meheak ordura arte ezerk ez bezala kilimatu zuen ezpain mamietan. Lehorrean geratu gara, pentsatu zuen. Inesen malkoak, bereak. Maitasunik gabeko bizitza bat, euri hartan, belar sail harekin. Eta hala ere, litekeena da bizitzea. Betebetean zabaldu zituen, argi ahuletan irakurtzeko egin ohi zuen moduan. Berez gertatu zen: urez

bete zitzaizkion begi hobiak, azukrezkoak balira bezala astiro urtu arte.

Lehengo aldean ozen egin zuen eztul orain zelatariak. Zubeldiak ez zuen atzar emateko asti gehiagorik, zerbait joana zen leihotik sartzen hasia zen argitasun harekin batera. Kanpora begiratu zuen. Trasladoetarako furgoneta bat heldu berria zen atarira, nabarmenkiro lokaztuak alboak. Argi isiotuak itzaltzen ikusi zuten biek. Hurrengo pizten zirenean, ondoan zeukan gizona eramango zuen barruan.

– Julen, *dana emon biar yako* ez duk itsu-itsuan hartzeko.

Azkuek erdeinuz begiratu zion. Zimurretan igarri zion hau isilean gordetzen saiatu zena, gelan sartu zutenetik zekiela Donostiara eramango zutela. Orain ez zezakeen amaraun hartatik kanpo ikusi: munstroaren giza alderdia. Ez zuen gauza batez baino pentsatzen, Zubeldia Poliziak ekarri du hara. Eta halarik ere, bazekien errukarri agertzen ari zela zentsorearen begietara. Hala zen. Erruki zion. Euriaren eroria bezain astiro berrikusi zuen gau luzea. Azkue atxilotu duteneko berri eman dion emakume ahotsa goi-

zaldean, eta hotzikara: badaki zioa. Loari ebatsiriko irudien parrastada hura. Kamio ondoko harrizko petrilak ilunpetan, ibai handituaren hotsa, gidatzea eragozten zion kristal itsutua, baimena eskatu beharreko bisita. Zertarako.

– Emaiek nire izena. Liburua ez duk inoiz argitaratuko.

Orain isildu egingo ziren berriro ere. Lika balitz bezala irristatuko zen lanbroa leihoko argian behera. Gerra egin ez izanaren damua bezalaxe, berdin hiltzea ala ez. Ez zion esango.

Ez dute hori nahi, eta ez dakit benetan ari zatzaizkidan liburuarena diozunean. Amarrua ote den, ala zu ere azken batean ez al zaren makina handi honen piezarik galduena, liburuen begi, berariaz hautsiaren zirrara, baina azkena, gurpilik itsuena. Begira ingurura, Zubeldia, non gauden, ez da posible zeure indarrean benetan sinestea, laguntzakoenak arindu ditzakezunaren uste hutsa izatea, ekarri zuen bere baitara Azkuek. Letxeraz zuritutako pareten kontra pilaturiko artxibo itxiei so egingo zien. Gehiegi herri bateko kuartel baterako.

Zubeldiak aurrez aurre zuen gizonarengan pentsatu zuen. Bera ere horietarik izan zen. Azkueren lekuan egon ez zedin egindakoaz oroitu zen. Garaiz hartutako erabakia. Ez zen besterik bi gizonak banatzen zituena, horregatik min ematen zion orain; bera izan zitekeen. Gertaerek ez lukete gizonen artekoa inoiz baldintzatu beharko, beti daude arrazoiak. Uzkudun etorri zitzaion, zer da baina traizioa? Traidorea deitu zioten lehen aldira doakio gogoa. Ulertzen zuen Azkueren begi urdinek adierazi nahi ziotena. Ez, berak ere ez du ikasi barkatzen, bere burua haien baitatik betirako aldentzen ikasi ez duen bezala.

– Laster esango zidatek irteteko –atearen bestaldeko hotsengatik zekien. Urratsak, murmurio ito heltzen ziren ahots desberdinak. Barrenean ez zeraman lasaitasuna erakusten ari zen.

Nor abisatu behar da, galdegingo zion.

Inor ere ez:

Begi errauts handiez erakarri zuen berarengana. Hiru aste pasatu ziren trumoiak harrapatu zituenetik. Afari legea prestatzeko janariarekin zetorren karrikan gora Ines ikusi zuenean beba-

rruko atean. Barrurako bidea ematen zion gizonaren besoa sentitu zuen gerri gainean, eta aspaldidanik bazetorrena burura heltzen ari zela pentsatu zuen. Iluna emateko itxi zen atea bien gibelean. Elkarri egin ziezaioketen mina, zaila izanik ere, erabakia zuen hutsa izan behar zuela. Ordura arteko ez bezalako pertzepzioa zen hura, urtsuagoa zirudien arnasak. Hespilean baino ausartago eskaini zizkion ezpainak gizonak, garratzegiak emakumearentzat. Zerbait hasi baino zerbait amaitu zela etorri zitzaion Inesi, eta presaka, Julenek eskutik oratuta igan zituzten estropezuka zurezko eskailerak. Etxean sartu orduko, Azkue zen biluzten zuena, berak gizonari bildots begiak iruditu zitzaizkionaz behatzen zion. Ez ziren inora helduko, alfonbra gainean etzan ziren, eta Jabierrengatik galdetuko zion, horrela harrapa ez zitzan. Gero, falta zitzaizkionak erantziko zizkion, zerabilen sentimendua ere guztiz gorririk utzi arte. Julenen begietan aterpe hartzen ahalegindu ziren Inesenak, baina gizona ez zegoen berarekin. Eskuek gizonaren bizkarrera, masail tenkatuen bila egingo zuten Azkuerenek adatsa nahasten zioten bitartean. Indarrez eus-

ten zioten, izerditzen sentitu zituen bereak. Haizeak astindutako egunkari batek bezala egin zuen dar-dar definitzen asmatuko ez zuen zer edo zerk mugimendu takar, bulkada harro haien pean. Betiko hormek, etxekotasunak bestelako itxura zuen orain, aratinik zetzala, eta lotsa antzeko bat nabaritu zuen. Gizonak ahur bilduaz bozatuko zion ahoa, eta Inesek horzkada txikiak emango zizkion aho sabaian geratuko zitzaion berun zaporeko azalari. Gero, bere ondotik joan ez zedin erregutuko zuen. Udaberri azkenetako sargori usaina etorri zitzaion, nonbaiten lehertua bezala, baina Azkue prakak lotzen hasia zen. Sukaldeko erlojuaren bidea entzuten zuen. Gizonak Ines haserraraziko zuen zerbaitetan pentsatu zuen, biluztasunean egingo ez zion galdera bat. Makurtu eta sabelpeko biribiltasun leunduan musu eman zionean, *uste dut maite zaitudala* esan zuen.

Lo ezak ekarritako urduritasunak bizkortu egiten zion memoria. Bost, sei segundo baino ez du iraun txinpartak, animaliazko desio zaparradak, sentimenduen eztanda desorekatuak, eta hala ere gogoenean zuen oraindik Inesen lehen-

biziko malgu usain hura. Eta Zubeldiak entzun ez balio bezala errepikatu zion Julen Azkuek: *inor ere ez.*

Bakarrik geratuko zen. Zubeldiak besteen esku utziko du, eta harritu ere egin da zentsorearen presentziak une batez eman dion babesagatik, orain, kalerako prestatzen ikusten duenean, zerbait galtzen ari balitz bezala gertatzen da dena. Sinestea erabaki du, benetan ari zitzaion liburuarena aitortzeko, bere izena emateko esan dionean. Etorkizuna elkar ezagutzen ez duten milaka letra kajoitxoz dago osatua, tartean-tartean inoiz elkartzen direnak. Zubeldiarekin egon den azkenetan, beti izan da bat bestearen usainera hurreratu dena, beti izan da bestea norberaren arnasa neurtzen. Horra letra urtuak, berunezko bi etorkizun bakar batean. Zubeldia bere lanean. Garbi dauka, ez du Huitzigatik sentitzen duena sentitzen aurrean duen gizon harengatik, eta hala ere, ez da herra.

Ahultzen igarri du bere burua, eta ez dio berbarik egingo gelan jo bata eta jo bestea alderik alde urduritzen hasia den Zubeldiari. Furgoneta ikusi orduko susmatu duena baieztatuko dio, hi-

tzez azkenean; Donostiara eramango haute. Azkuek ez zuen erantzungo, berriro gordea zen haren arima leihotik goiz ateri berriari so zegoen gorputzaren ezkutalekuetan. Gelako giroak hotz orratzak sartuko dizkio lepo-hezurrean aterantz egin duen Zubeldiari. Kanpotik irekitzen den atea, ezetz egin dio zaindariak buruaz. Ez dio gehiegi ekingo. Kristalean ikusi ditu bi islak. Behean, furgoneta garbitzera doaz, aharrausi egin eta goraino betetzen du baldea. Bere baitan egosi du, beranduegi azken ahalegina eskertzeko.

– Egunon –esan zuen ezagutzen ez zuen ahots batek bere atzean.

Zubeldia atetik behako tristea egiten duen gizona baino ez da orain, sartu berriaren aurrean hitzik egin gabe joan dena. Berrogei bat urte izango zituen eta ezpala bezain iharra, errespetua baino nolabaiteko babesa eskaintzen zuen aurpegia. Izenik eman gabe, kaleko jantziz aurkeztu zen, zortea eduki duk gurekin, *hauek* –guardia zibilengatik ari zen– ez ditek pertsona eta zakurraren artean bereizten, esan zion. Julen

Azkuek hormetara begiratu zuen, lehenbizikoz han sartu zutenetik.

– Editorea beraz, interesgarria.

Hala-hola adierazten zuen keinua egin zuen.

– Garbi esango dizut. Ez dut uste ezer daukazunik.

Sartu orduko zekiela asmatzen zeinek zuen zer edo zer eta zeinek ez. Gero literatura zenbat maite duen erakusten ahalegindu zen, errealitateari gainak hartzearen artea, *beste begi batzuk,* esango zuen. Azkuek irakurri gabe zeuzkan autoreengatik galdetu zion, ea zer zeritzen, poesia maite zuela izugarri, frantsesak, Verlaine, Baudelaire, Valery. Abezearen klabean hitz egiten zuen, aipamen haiek guztiak esku-liburuetatik ikasiak balitu bezala eman zion Azkueri. Baina Rimbaud bezalakorik ez dela inoiz egon, indarra du, bota zuen, ez beste marikoi horrek bezala. Zer edo zergatik fusilatu zutela erantsi zionean, zeinengatik ari zen ulertu zuen; ikasitakotik gehiegi aldentzen ari zela iruditu zitzaion ezer ez jakiteko. Erdi egia bat aitortu zion: berari ere ez zitzaion lar gustatzen. Esan eta batera ohartu zen zerbait beratu zela bere barruan. Ondo etor-

tzearen jolasean ohartzeke eman zuen lehen urratsa. Komisaldegietatik pasatutakoei entzundakoetatik xehatu zuen ondorioa; polizia onarena egiten duena zen.

– Ez dut uste zure kultura duen inork inongo saltsatan sartzeko beharrik duenik. Tipo zintzoa ematen duzu.

Baliteke, pentsatu zuen Azkuek, baina ez zegoen han kultura zuelako, gezurra gainera, interrogatua izateko baizik. Urduritu egiten zuen galdera zehatzekin ez hasteak, esku bero hura sorbalda gainean. Kontrakorik ere bazen baina, literaturaren aipamen haiek lasaitu ere egin zuten, bazitekeen Huitziren liburua izatea zioa hortik hasi bada, deus gutxi beraz. Ordura arte ukiturik ez egiteak esan nahi zuen zerbait; bestalde, behin horretara etorrita, ziur egon nahiko zuen, Zubeldia zikinduko zen horrenbeste.

Behera jaitsiko zutela ohartarazi zuen, pare bat ordu, zigarrorik nahi duen, ziegan ezingo duela erre eta. Berarentzat bat ateratzen eta ahoratzen zuela, Azkuek oso-osorik ulertu ez zuen zerbait gehitu zuen frantses baldar batean, olerki zati bat zela pentsatu zuen. *Itxaron, ez*

beti etorkizunari, halako zerbait. Zuriegi marraztu zitzaion irribarreaz agurtu zuen.

– Furgoneta atondu arte.

Zoru gainean esertzea erabaki zuen. Elkarrizketak lasaitu egin zuen, ezin zezakeen uka. Ez zen gehiegirik biluztu, ez zien bere barnerik eman haien begiei, ez komisarioarenei, ezta Zubeldia berari ere, eta horrek beste aldarte bateko utzi zuen. Euria ariko zuen berriro ere kale bustien gainean. Ume ahotsak entzun uste zituen, oihartzun urruneko eta galdua, *harria gorria badabil!,* euritan galtzen direnak, *ez dabil!* oihuka. Ziega barruan baleude bezala irudikatzen zituenak, *hiru hiru sei, eta hiru bederatzi* kontatzen. Guztiak kanpotik entzun eta han egon, alaitasunetik metro batzuetara. Eta ulertu. Egun argi. Jabier harritua inprimategia irekitzera agertu ez delako. Mutilak ez zion inoiz onartu amarekikoa. Noiztik dakite. Lasaitasuna gorde behar zuela konprenitu zuen. Noiztik. Paketeak. Berariaz ez zituen bi berdin egin. Lasaitasuna, errepikatuko zion bere buruari. Eskolara doaz, pentsatu zuen. Tua eman zion esku inurrituari. Bederatziak ez oraindik.

Bi ordu pasa zeramala ohartu zen, ez zitzaizkion bila joan. Aldi luzea da irratia entzuten dela atearen bestaldean, ziegen pasilloan, baina musikak ez du handik eramaterik lortzen. Hormen hezetasunean bigun egiten du azkazalak, amaitzen ez duen berba baten lehen letrak baino ez ditu idatzi. Irratizko isiltasun hura eta galdera ezinbestean, nondik datorkigu herio hau, arnasa galaraztera etzaten den itomen aipaezina. Begiak itxi eta zabaltzera jolastu zen, aurreko horma hurreratu orduko atzeratu eta kolorez aldatzen.

Nekeak Azkueren begi zelaiak hartu zituen. Itxi eta gehiago ez zabaltzea desiratu zuen, gauaren haizaldean balkoian geratzea erabaki zuenean legez. Hilda egon nahi izan zuen gauaz oroitu zen. Zapaten lokarriak kendu zizkioten ziegara sartu zutenean. Irratitik are gehiago asaldatu zuen berri baten zantzuak ulertu uste izan zituen. Norbaitek aparailua ate atzeraino hurbildua zuen; Bilbon jendea atxilotu zuten. Itxi eta gehiago ez zabaldu, Irlandako zoikaztegietan aurkitu zituzten gizon armatu, soldadu biluzi antigoaleko haiexek bezala, ondorengoentzat lo.

Haragi gogor bilakatu. Baina gogoa handik ordu, minutu batzuetarako orain zegoen ziega bertaraino zihoakion ihesi: atea zabalduko zuten, bortxaz.

– Editorea beraz –esango zion handienak. Paisanozkoak eskuak poltsikoetan zituela geratu zen ate ondoan.

– Bai –erantzungo zuen.

Jiratzerakoan sentituko zuen kolpea belarri ondoan. Burua tomate heldu bat bezala lehertuko zitzaion, eta halarik ere, irekiak ez zuen jariorik. Odolak abandonatu egin zuela pentsatuko zuen, duela hilabete batzuk bere anaia abandonatu zuen bezala. Ez zen jaikiko. Behegain hotzaren kontra mantenduko zuen belarria, eta geldi, arratoien aztarrika amorratua entzungo ziegaren sabelean. Aditu egin zezakeen, euria ari zuen berriro ere. Errekak hobietan barrena amiltzen ziren, eta begiak itxita, leihoko kristalak nola astintzen zituen ikusita gozatuko zitzaizkion barrenak. Alferrik zen, ez zuen saihetsak eta barrabilak kolpatzen zizkion bota entzuten. Itzali ezin duen isiltasuna begi bilduetan. Hasiera baino ez zela pentsatu zuen. Euria ari zuen berri-

ro ere larreetan. Atertu gabe aritu zuen hilerriko malda igo zuten bitartean. Julen Azkuek gorbataren korapiloa estutu zuen. Behean, herriko argiek dar-dar egiten zuten. Goazen, esan zuen. Bustita zegoen. Euriaren indarrez egiten zuen ihesi gogoak anaia zetzanera, inoiz ikusi duen muinorik ederrena, lanbroak laztandua, itsaso aldera etzana.